

HITZAURREA

INDIO AURKITU BERRIAK

Frantzisko Vitoria hamaseigarren mendeko Europa Katoliko teorilaririk ospetsuenetako bat zen. Profesioz teologoa zen, baina garai hartako teologo guztiek bezala “zientzien amatzat” hartzen zuen teologia, eta beronen esparruak, De Indis-en hasieran aldarrikatzen duenez, lege jainkozko eta naturalez gobernaturiko guztia besarkatzen zuen, giza legea izan ezik guztia, hau da, jurisprudentziapean deskribatuko genukeenaz aparteko guztia.¹ Vitoriaren idatziek gai-sail ugaria hartzen zuten, magiaren ahalgarritasunetik hasi eta suizidioaren onargarritasuneraionoko guztia. Baina garaiko auzi juridiko eztabaidatuenei buruzkoengatik –botere zibilaren eta erregetzaren izaera, aita santuaren boterea, eta batez ere, europarrek Amerika konkistatu eta okupatzearen legitimitateari buruzko idatziengatik-- dirau nagusiki bere ospeak.

Vitoria Burgosen jaio zen 1485ean segur aski, eta Pedro de Vitoria eta Catalina de Compludoren hiru semeetako bat zen. Haren anaietako batek ere, Diegok, maila intelektualeko posizioa lortu eta Burgoseko domingotar komentuko priore bihurtu zen. Norbaitek iradoki izan du Pedro de Vitoria ez zela jatorriz kristaua. Baina segur aski litekeena izan arren, ez daukagu funtsatzeko ezer. Frantzisko 1506 baino zerbait lehenago sartu zen Ordena Domingotarrean eta bere dohain intelektual gailenengatik, 1509an Pariseko Saint-Jacques Kolegiora, Europako bizitza intelektualaren bihotzera bidali zuten. 1516an Erasmoren mentorea zen Peter Crockaert teologo flamenkoarekin ikasi ondoren, 1522an hartu zuen teologiako doktoregoa. Hurrengo urtean, 1523an, Espainiara itzuli zen Valladolideko San Gregorio Kolegioan teologi irakasle eta ikasketa-buru izateko. 1526an, halere, Salamancako Teologiako Katedra Nagusirako hautatu zuten eta bertan gelditu zen 1546ko abuztuaren 12an gertaturiko bere heriotzara arte².

Vitoriak bi eratako testuak idatzi zituen. Santo Tomasen Summa theologiae-ren eta Pedro Lombardo Sententzien irakurketak, Salamancan Teologiako Irakasle nagusi gisa hogeitertan eman zituen klaseak eta relectiones edo “berrirakurtze”-sail bat. Hauek klaseetako hitzaldiak baino luze eta formalagoak ziren eta, klaseak ez bezala, testu bakar baten iruzkinak, arazo berezi bati buruzko ikerketak ziren. Nolanahi ere, urte hartako klaseetan eztabaidaturiko testuarekin zerikusia zuen arazoren bat izan ohi zen, baina sarritan gizarte –edo politika-mailan zuzeneko garrantzia zuena ere bai. De Indis, 1539an entregatua, horietako bat zen.

Vitoriak berak ez zuen ezer argitaratu bizi zen bitartean. Bere ikasleek, hala esan zuen behin, jadanik gehiegi omen zeukaten irakurtzeko. Bere idatzietatik dirauenak Salamancan hamaseigarren mendeko irakasleek beren testuak diktaketa-abiaduran irakurtzeko zuten ohiturarengatik dirau bizirik. Ikasleak, beraz, gai izaten ziren irakasleak esaten zuenaren parte handi bat kopiatzeko. Transkripzio horien zenbait kopiak oraindik badiraute eta berorietatik egin ziren bere obren ondorengo edizioak, zeinetarik lehena 1557koa den. Vitoriaren irakaskuntzaren parte handi batek, era askozaz eskuragarriagoan, ikasle izan zuen Domingo de Sotoren De iustitia iure obraraino urratu zuen bidea, zeina 1553an lehen aldiz Salamancan inprimaturiko

¹ *Relectio* “De Indis” (1557) Lehen argitalpen Lyonen Jakes Boyer baitan “aurrerantzean *De Indis* bezala aipatuko dena”.

² Vitoriaren lehen urteei buruzko kontaketa hoberena hemen aurkitzen da: Ricardo García Villoslada, *La universidad de Paris durante los estudios de Francisco de Vitoria* O.P. (Erroma, 1938)

eskubide eta justiziari buruzko usadiozko eskuliburua zen, Europako liburutegi guztietako apaletan aurkitzen zena, nola katolikoen hala protestanteen artean.

Relecciones deituak entzuleria akademikoari zuzendurik zeuden. Beraien helburua, Vitoriak De Indis-en hasieran maltzur samar esaten duenez, erretolika teologiko guztia gorabehera, ez zen egia aurkitzea (deliberative), baizik eta hura erakustea (demonstrative)³. Baina horiek ere legitimazio erritualeko tradizio luze batean txertatzen ziren, zeina Gaztelako errege-erreginek, Erdi Arotik hasita, eskuarki erabili izan zuten badaezpadako auzi moralekin topo egiten zutenean. 1521ean komunero-errebolta menperatzean, Gaztelako koroak modu eraginkorrean lortu zuen bere nazio politikoaren onarpena. Frantziak, edota Ingalaterrak berak ez bezala, jadanik ez zuen partikularren edo fakzio-interesen aurka bere legitimitatea berretsi beharrik izan, eta bere ardura ideologiko nagusi, ordea, bere buruari eman zion eta gero eta arriskutsuago zen kristautasun unibertsala babestearen zaindaritza bihurtu zen. Bere teologoen egitekoa zen, aukera guztietan, printzipio etiko-politiko kristauekiko adostasun zorrotzean jokatzeko edo ahalegintzen zela jokatzeko ziurtatzea.

Vitoria oso ezaguna zen bere garaian, baina nazioarteko ospea lortu zuten bi espainiar teologo eta jurista-belaunaldiren maisu eta maisuen maisu ere bazen. Gizon hauek, beragandik hurbilen zegoen Domingo Sotogandik (1494-1560) hasi eta Luis de Molina (1535-1600) eta Francisco Suárez (1548-1617) teologo eta metafisikari jesuitenganaino izen desberdinek ezagutu izan dira: “Bigarren Eskolastikoak” eta, maila mugatuagoan, “Salamancako Eskola” gisa. Jakituria zabalekoak ziren eta bere jakintzagaiak hasi teoria ekonomikotik eta mugimenduaren legeetarako, eskatologiatik kontratu-legeetarako, ia mugagabeak, baina jurisprudentzian eta filosofia moralaren izan zituzten lorpenik ausartenak. Eta Vitoriari zor zituzten bere proiektu komunaren oinarriak.

Parisen, aurrena ikasi eta gero 1509 eta 1523 bitartean irakatsi zuen tokian harremanetan sartu zen hamabosgarren mendeko frantses humanisten obrarekin. Baina nahiz eta bere aurrekoentzat itxita zeunden jakite klasikoaren eremuetara sartzeko aukera eman agian horrek, eta haiek izandako espekulazio teologikoaren esparruari buruzko zentzu zabalago bat ere bai, ez da zuzena Vitoriaren obraren orijinaltasuna, aditu askok egin dutenez, tomismoaren eta “kristau humanismoaren” arteko ezkontza zorientsuari egozte. Egia da irakurketa ugari eginga zela literatura klasikoan –bai grekoz eta bai latinez, Luis Vives valentziar humanista sinetsi behar badugu behintzat–, eta gehiago fidatzen zen filosofia moral klasikoaz teologo gehienak baino, batez ere Seneka eta Zizeronen obretan. Baina “gramatikalari berriekiko” bere jarrera beti kontrakoa izan zen eta gogortu egin zuen luteranismoaren aurkako borroka areagotu ahala. Lefèvre d’Etaples frantses humanista herejetzat hartu zuen. Erasmo ulertzen ez zituen arazotan muturra sartzen zuen gramatikari asalatu gisa ikasten zuen, eta Lorenzo Valla berrietsua omen zelako bidali zuen⁴.

Vitoriaren orijinaltasuna eta bi pentsalari-belaunaldirengan izan zuen eraginaren iturria ezta aurkitu behar “modernoekin” (novatores) –honela deitzen zitzaizkien humanistek isekaz batzuetan–, ezta bere metodoetan ere, zeren guztiak eskolastiko konbentzionalak baitziren. Aitzitik, filosofia moral bat sortzeko egin zuen ahaleginetan aurkitu behar da,

³ *De Indis.*, 293 or

⁴ Ikus Beltrán de Heredia, *Los manuscritos del maestro Fray Francisco de Vitoria, O.P. Estudio crítico de introducción a sus Lecturas y Relecciones*. Biblioteca de Tomistas Españoles IV (Madrid 1928) 41 or

zeinak sartuko zituen erromatar legeko testu handien interpretazioa –ius naturae-- lege naturalaz nagusiki arduratzen den diskurtso baten barruan.

II

Tomistentzat legea lau kategoria nagusitan sailkatzen zen. Lehena, beste guztiak bere baitan hartze zituen, Lege Jainkozko edo Betierekoa zen. Jainkoa beraren ratio sortzailea zen eta Salamancako teologoen Jainkoak sorkuntzan arkitekto batek –konparazioa Domingo de Sotorena da-- planoak bezala erabilitako arau- edo regulae-multzotzat jotzen zuten.

Lege Naturala (ius naturae). Santo Tomas Akinokoaren definizioa erabiliz, “izaki arrazoidunek Lege Betierekoan duten partaidetza” da⁵. Jainkoak sorkuntzan “gizakien bihotzetan” ezarritako lehen printzipio autoebidentezko gorputz bat bezala hartzen zen. Horrela Vitoriak ohartarazi zuenez, Lege Naturala ez zen “nahimen-ofizio bat baizik eta arrazoi eta argitzapenezkoa”⁶. Halere, bi parte bereizi zituen. Aurrenekoa lehen printzipio deiturikoez eraturik zegoen (prima praecepta), ezein izaki arrazoidunek indarra uka ezin diezaiekeen maxima horiez: sinpleenak dira eta gehien aipatzen den agindua den agindua hau da: “Egin besteei zuri besteek egitea nahiko zenukeena”. Gero hauek, eskolastikoek “synderesis” (Aristoteles silogismo praktikotik hurbil samar dagoena) deitzen duten prozesu baten bitartez printzipio sekundario bihurtzen dira –eta behar izanez gero, tertziario, koaternario eta abar, eta horiek, beren aldetik, lege kodetu guztientzako eustazpia ematen dute-- . Zenbat eta handiagoa den egintza kognitibo jatorrizkoaren eta legearen kodekuntzaren artean ezarritako tarte-mailen kopurua, hainbat errazago sor liteke errakuntza, eta ondorioz hainbat indar behartzaile gutxiago izango du azken aginduak. Baina giza lege eta arau guztiek, zuzenak badira, naturako legearen lehen manamenduren batean (primum praeceptum) dute jatorri bereizgarria. Hau ez zaie aplikagarri hiltzea, lapurreta egitea edo adulterio egitea bezalako lege nabariei bakarrik (zeinak ageriki kondenatuak dauden Dekalogoan) baita ohiko portaera soilari ere bai: pertsonak jaten duenari eta horretarako erabiltzen duen moduan, bere taldeetako beste kide batzuekin harremanetan erabiltzen dituen modua, janzteko erabiltzen dituen arropak eta abarri ere bai. Giza portaeraren aspektu oro jo daiteke natural edo ez-naturaltzat – eta naturaren legearen printzipioaren aurkikuntza dedukzioaren baitan zegoenez gero, arrazional eta irrazionaltzat ere bai, abstrakzioz lehen printzipio orokortuen batetik-- . Hau, bistan dagoenez, tresna indartsua izango zen Amerindiarren ohituren “naturaltasuna” edo “ez-naturaltasuna” balioestean.

Tarte-maila batetik itzulpen zehatza egitea ziurtatzen zuen prozesua, Vitoriaren hitzetan, “gizakien kontsentsu orokorra” zen⁷. Zeren eta, argudioak honela segitzen zuen, nik eta nire (kristau) kide guztiek, arrazoidunak diren heinean, egiaztat jotzen dutena, izatez horrela ez bada, orduan Jainkoak, nire gogamenean Lege Naturalaren prima praecepta horiek ezarri dituenak, zeinen bidez nik munduari buruzko neure ulerkuntza eratzten dudana, ni engainatzen dihardu. Hori guztiz pentsaezina da. Ezaguerak, beraz, “gizaki

⁵ *Summa theologiae*, Ia Iae p. 91 art 1.2.

⁶ *Comentarios al tratado de la ley* (I-II, 00, 90-108) (1534-7), ed. V. Beltrán de Heredia (Salamanca 1932-52) 6 bol., Bol. III. 10 or

⁷ Ibid

guztiak ados dauden horrek izan behar du egia”⁸. Vitoriarentzat, Akinokoarentzat bezala, naturaren legea zen gizakiak bere inguruko munduarekiko zeukan erlazioa euskarritzen eta gizarteko edozein jarduera gobernatzen zuen kausa eragilea. Berak bakarrik ematen zion teologoari mundu naturala deskribatu eta azaltzeko aukera, baita gizakiak bertan zeukan lekua ere, erabat arrazoizko terminotan. Ebanjelioetako eta Dekalogoko egia, eta berorrekin Erromatar Legeko testuetan ezarrita zeudenez Europako instituzio politiko eta sozialen zuzentasuna, erabat defenda zitekeen, agerkundera jo gabe lehen printzipio autoebidente batzuetatik gogamen arrazionalak ateratako ondorio ezinbestekotzat.

Giza legea edo Lege Positiboa –lex humana, lex civilis edo lex positiva– gizakiak promulgaturiko lege horiez eraturik zegoen. Horiek behartzaileak izateko Lege Naturaleko manamendu batetik edo bestetik eratorriak izan behar zuten, zeren eta jadanik gizaki guztiek kontzientzian (in foro interno) ezagutzen zutenaren kanpo-munduko promulgazio soilak baitziren (in foro externo). Baina Giza Legearen diktatuak, Lege Naturalekoak ez bezala abrogatuak izan zitezkeen eta beren autoritatea giza egintza soiletik zetorrenez gero, begi-bistan zegoen aldatu egiten zirela, batzuetan erroitik gainera, komunitate batetik bestera. Erdibide bat harturik eta lege naturala eta positiboaren artean posizio guztiz zalantzakorarekin Nazioen Legea, ius gentium zegoen. Lege-gorputz hau Vitoriak “mundu guztiko... ongitasunaren” botereak promulgaturiko manamendu-multzo deitzen zuena zela esan zitekeen, tokian tokiko legegintzako konbikzioak, sinesteak, komunitate bakoitzaren ohiturak edo denboran zuten kokapena bera ere kontutan hartu gabe. Vitoriarentzat, nahiz eta izan horrela Akinokoarentzat, hori Lege Positiboaren funtsezko parte bat zen⁹. Hori, berak zioenez, “berez bidezkoa ez dena, baina giza aginpidez arrazoiaren oinarriturik “ezarria izan dena”¹⁰. Baina ius gentium horrek zuzenean Lege naturaleko prima praecepta-en gainean oinarriturik egotearen premia, eta abrogatzea ia ezinezko egiten zuen kontsentsu unibertsal baten gainean bermaturik egoteak gainera (nork imajina lezake munduko herri guztien biltzar legegilerik?) esan nahi zuen argi eta garbi askoz hurbilago zegoela lege naturaletik agintari banakoen promulgazioak baino. Hain hurbil, izan ere, non Europarrak ez ziren gizarte “barbaroak” ere ius gentium horren menpean egon zitezkeen, nahiz eta argiro ez egon berena ez zuten beste giza lege baten menpean. Espainiarrek Amerika inbaditzearen legitimaziorako argudio honen inplikazioari buruz Vitoriak egindako oharrek ekarri zioten nazioarteko zuzenbidearen “guraso” izena. Nozio hori anakronikoa da, zeren eta nazioartekotasun kontzeptuak lege naturalaren teoriagile “moderno”-engan baitu jatorria, batez ere Hugo Grotius, Samuel Puffendorf eta John Seldengan, zeinen proiektua Vitoriarenaz zeharo bestelakoa zen, eta zeharo axolagabe ius-ren definizio tomistarekiko. Vitoriak ius gentium-ari buruz ematen duen berria, gainera, oso laburra da, bere obra osoaren oso parte txikia hartzen du, eta ez da erabat kontsistentea. Baina “Indietako Arazoa” deitzen zituenekiko ageri zuen ardura eta berorrekin zerikusia zuen gerra justuaren auziak, ius gentium-aren nozioa zuzenbide naturaleko printzipioetan oinarrituriko Lege Positiboaren forma bat bezala ezartzen zuen tinko Sotorengandik hasi eta Suarezenganinoko bere ondorengo guztien aztergaiaren artean.

III

⁸ Comentarios de la *Secunda Secundae* de Santo Tomás, III, 89-9 or.

⁹ Ibid, 12 or.

¹⁰ Ibid, 12. or

Espainiarrek Amerika konkistatzearen legitimotasunaz Vitoriaren obrarik ezagunenak dira bi relectiones: De Indis eta Gerrako Legea. Amerikako kolonizazioaren legitimazioari buruzko eztabaida –Vitoria De Indis-en hasieran egiten du horren aipamena-- 1513an hasi zen Fernandok teologo, legelari zibil eta kanonistez osatutako batzorde bat (junta) bildu zuenean gai hori aztertzeko. Hemendik legegintza koloniaren lehen emaitza sortu zen, 1513ko Burgosko Legeak. Baina eztabaida auzi luze eta nazioarteko baten gai bihurtu zen 1520-22an Mexikoren aurkikuntza eta konkista eta 1531-2an Perurenarekin eta hemezortzigarren mendearen amaierara arte luzatu zen. Itxura zenez, Txina bezain inperio handiak inbaditu eta birtualki suntsitzea nekez pasa zitekeen oharkabea. Vitoriak lehenik aipatu zuen “Indietako Arazoak” deitu zituenak 1526-9ko Akinokoaren Summa theologica-ri buruzko bere ikasturte-klaseetan, non galdetu zuen ea “printze kristauak konberti ditzaketen “amerikar indioak” bortxaz edo ezpataz”. Erantzun zuen amerindioen ustezko kanibalismoak bakarrik ematen ziola Enperadoreari koertziarako eskubidea, eta orduan ere naturaren kontrako krimen horiek “gure auzoentzat kaltegarri direlako” eta “gure auzoen defentsa gu guztion ardura bidezkoa” delako¹¹. 1534an Andaluziako probintzial domingotarra zen Miguel de Arcosi egindako gutunean, nahigabe nabarmena ageri du Francisco Pizarrok Cajamarcan Inken armadaren kontra egindako triskantzaren berri eta ondorioz Atahualpa inka¹² nola preso hartu zuen jakitean eta 1537an Lege dietarioak edo Brumurrizpenaz egin zuen relectioan kanibalismoaren eta giza sakrifizioaren auzira itzuli zen aski hedatuki.

De Indis bi urte geroago eman zuen “Zein zuzenbideren izenean erori diren delako barbaroak espainolen menpe”¹³ galderari erantzuteko ahalegin bat zen. Espainiar gehienek, hala uste zuen Vitoriak, edo ez zuten arazo honetan pentsatzen, edo bertan behera utzia zeukaten “beti deliberatzen egonez gero, horrela infinituraino egon zitekeelako” Aristotelesen maximaren argitan¹⁴. Gainera errege-erregina Katolikoen eta Karlos V.aren karitate eta justizia ukaezinak segur aski frogatzen ziren “gai honetan kontzientzia onarekin jokatu izanarena”¹⁵. Baina hala eta guztiz ere, Vitoriak zioenez bazegoen nahikoa zalantza auzitan zeuden arazo haien berrazterketa justifikatzeko. Gauza ugari entzun zen “hainbeste hilkintza, eta hainbeste gizaki errugaberi ondasunak zakuratu eta lapurtu izanaz, non nahikoa eta gehiegi arrazoi zegoen galdetzeko ia guztia bidezko egintza izan zen”. Arazo guztia, azken finean, konplexua zen, eta ez zegoen epaiketa soil batekin konpontzerik. “Barbaroen arazoa”, zioen Vitoriak, “ez da hain argi eta garbi injustua, non galde ez daitekeen iustua izan ote litekeen, baina ez da hain argi eta garbi justua, non galde ez daitekeen iniustua izan ez ote daitekeen –baina badirudi justizian eta injustizian bietan hartzen duela parte”¹⁶.

Ezbai hauek baino oraindik garrantzitsuago zen legegizon zibilak, lehenago auzi hauetan aritu izandakoak, Vitoriaren ikuspegian, beraietan jarduteko gaizki horniturik egotea. “Zeren barbaro horiek, azalduko dudanez, giza justiziaren pean ez daudelarik, beren egoera ezin daiteke giza legepekotzat jo, baizik eta jainkoen legepekotzat,

¹¹ Ikus Anthony Pagden, *La Caída del hombre natural. El Indio americano y los orígenes de la etnología comparativa*, itzulp. Belén Urrutia (Madrid 1988), 99 or

¹² *Obras de Francisco de Vitoria. Relecciones teológicas*, ed Téofilo Urdanoz (Madrid, 1960), p 157 “aurrerantzean Obras bezala aipatuko dena.”

¹³ *De Indis.*, 286 or

¹⁴ *Aristotle, Nichomachean Ethics*

¹⁵ *De Indis.*, 287 or

¹⁶ *De Indis.*, 292 or.

zeinean juristak ez diren behar adina adituak beren kabuz jokatu ahal izateko”¹⁷. Indietako arazoa teologoen gaia zela baieztatzean, Vitoria halaber ari zen baieztatzen De Indis-en aztertzen ziren auziak Amerikar Indioak, gizaki zen heinean, zuen izaeraren eta mundu naturalean zegokion lekuaren baitan zeudela. Izan ere zerbait jainkozko legearen parte dela aldarrikatzeak adierazten baitu gauza hori sorkuntzaren egitura osoaren baitako zerbait dela. Legearen esparruari ez baizik eta gizakiaren izaerari – antropologiari-- eta bere gizarte-munduaren metafisikari zegokiola esatea adina zen.

Vitoriaren galderari zegokion erantzuna --“zer legeen bitartez zeuden barbaroak espainiar gobernuaren menpean”-- halere, beste batean zentratu zen: ba al zuten Indioek, izatez, bere arazoei, eta okupatzen zituzten lurraldeei buruzko domeinuaren (dominium) jabetza, espainiarrak heldu baino lehen? 1539az aurretik, Gaztelako koroak subiranotzarako zeukan eskubiderik nagusia, edo Vitoriak erabiltzen zituen neotomismoaren hitzetan dominum jurisdictionis deitzen zena, 1493an Alexandro VI.ak egindako Dohaintza Buldatan oinarritu zen Ameriketara. Berorien bidez Atlantikoan aurki zitezkeen ez-kristauak populaturiko lurralde guztien jabegoa ematen zitzaion Fernando eta Isabeli. Dohaintza horiek egiteko ahalmena, halere, aita santuak aginpide denboralarekiko zituen gisa horretako eskubideetan oinarriturik zegoen, zeinak jadanik Vitoriak errefusaturik zeuzkan¹⁸ eta berriz ere errefusatuko zituen. Gaztelako koroak zeinahi eskubide zeukala ere, beraz, lege naturaleko eskubideak soilik izan zitezkeen.

Begi-bistakoa zen, Vitoriak zioenez, entzunda zeukan guztiaren arabera, espainiarrak heldu baino lehen, indioak “beren ondarearen jabego ukaezinean egon zirela, nola publikoki hala pribatuki”. Horregatik, lau arrazoi posible bakarrik egon zitezkeen dominium-az ere ez zutela gozatzen Gaztelako koroak inplizituki defendatzeko: edo bekatoriak edo fedegabeak edo zoroak (insensati) edo adimengabeak (amentes) direlako¹⁹.

Biek erakartzen zuten Vitoriaren arreta eta bere relectiones guztietan errepikatzen zituen, eskubide guztiak (iura) naturalak eta Jainkoaren ondorio eta ez Jainkoaren graziarenak zirelako Akinotarraren argudioak errebortxatzeko. Kontrako aldarrikapena, lehenik John Wycliff ingeles teologoak hamalaugarren mendean egin eta gero hamabosgarren mendean Jan Huss bohemiar erreformatzaileak, eta berrikiago, eta askoz mehatxukorrago diren et Vitoriak “hereje moderno” deitzen dituenek, hau da, luteranoak, eskubideak, --hemendik dator printze sekularren autoritatea--, Jainkoaren graziaren baitan jarri zituzten. Hauen arabera gobernari jainkotiar bat bakarrik izan liteke legegile iustua. Horrela, printze bat herejea baldin bazen edo frogatzen bazuen, bera epaitzeko hautaturikoen begietan, bekatuzko egoeran zegoela, bere legeak ezin zitezkeen kontzientzian behartzaile izan, eta kargutik legitimoki ken zitekeen. Horrek euskarritu zuen luteranoen eta geroago kalbindarren iraultzaren teoria, nahiz eta Luterok eta Kalbinek behin eta berriz esan praktikan ezin zitekeela ezarritako autoritatearen kontra oposiziorik justifika. Vitoriarentzat, eta geroago Trentoko Kontzilioan espainiar ordezkari izan ziren Domingo de Soto eta Bartolome Karrantza Toledoko Kardinale Artzapezpikuarentzat (Vitoriaren ikasle ohiarentzat) hiltzikoa zen teoria hori beheragoko magistratuentzat beren printze ezarriek kontra gerra egiteko eskubidea eraginkorra bere baitan zeukan heinean, krediturik gabe uztea. Gizakia, argudiatzen

¹⁷ *De Indis.*, 293 or *Relectiari* Vitoriak egindako sarrera osoa elkarte akademikoaren barruan ezaguera egoki sailkatzeko dagoen premiari buruzko iruzkina da.

¹⁸ Obras 299-302 orr.

¹⁹ *De Indis.*, 295 or

zuen Vitoriak, izaki arrazoiduna da eta ezin du bere ezaugarri hori bekatuarengatik galdu, nahita bere eskubide naturalei uko egin ezin dien bezalaxe. Eguzkiak, zioen, Mateo 5:45 aipatuz, zintzoentzat eta gaiztoentzat egiten du argi. eta hori gertatzen bada, orduan dominium-ak alienaezina izan behar du. Gauza bera aplikatzen zaia ez-kristauai, zeren fedegabeak ere lege naturalaren azpian baitaude. Hortik dator, beraz, kristauak “ezin erabili izatea argudio horietakorik batere barbaroen beren ondasun eta lursailez gabetzeko tituluaren euskarritzat”²⁰. Burutu litezke halakoak ez direla inondik ere egiazko gizakiak iradokitzea bezalako zenbait egintza bidegabe. Baina, ikusiko dugunez, Vitoriaren iritzian gutxienez Amerikar Indioak, nahiz eta Naturaren Legea haustearen errudun izan, gizakiak ziren argi eta garbi.

Horrela Vitoria bere bi azken aukerekin gelditu zen. Ez adimengabeak, ez erabat irrazionalak ez du dominium-ik, ez baitira egiazko gizaki. Ezin liteke esan iraina hartzeko gai direnik, eta iraina hartzeko gai ez diren izakiak ezin zitezkeen argiro lege-subjektu izan, eta ezin zitezkeen esan, beraz, eskubideak zeuzkatenik. Iniuria pairatzeko gai ez dena, ezin daiteke iura-jabe izan. Vitoriaren iritzian, halere, ez zegoen inolako froga enpirikorik indioak adimengabeak edo insensati zirela iradokitzeke eta brauki ondorioztatzen zuen, nahiz eta Indioak barbaroak izan “kristauak bezalako domeinu (dominium) beraren jabe zirela, bai publikoki eta bai pribatuki”²¹. Horrek baliorik gabe uzten zuen konkista-eskubideak, edo aurrez okupatu gabeko lurraldea okupatu izanaren eskubidea –“aurkikuntza-eskubidea” deitzen zelakoa-- baliaraztea.

IV

Puntu honetan sartu zuen Vitoriak argudio guztietan eztabaidatuena. 1510ean, John Major domingotarrak iradoki zuen Amerikar Indioak, Aristotelesek Politikako I eta III Liburuetan, aski lausoki, deskribaturiko “izaerazko esklaboak” izan zitezkeela. Aristotelesen arabera, baziren jende-talde batzuk, agian arraza osoak, berak orokorrean “barbaro” izendatzen dituenak, zeinek “arrazoia atzemateko adina baina arrazoi egiazkoaren jabe izateko adinako” parterik ez dutena arrazoimenean²². Halako izakiak ulertzeko gai direla esan daiteke, baina gaiezak Aristotelesek “arrazoi praktikoa” (phronesis) deitu zuenerako, “zeren arrazoi praktikoa aginduak sortarazten baititu., baina ulermen epaiak bakarrik”²³. Bere nagusiei komeni zitzaenez, beraz, “esklabo naturala” esan zitezkeen agindu bat betetzeko gai dena dela, baina sortzeko gai ez dena. Konkisten apologista batzuentzat, aski garbi bide zegoen beren jokabideetatik Indioak horrelako izakiak zirela, eta horregatik, ezingo zutela Europarrak heldu aurretik bizilekutzat zeuzkaten lurraldeen gain dominium-a obratu segur aski.

Vitoriarentzat, ordea, politikoki etekintsua baina gordina zen hipotesi horrek arazo gaindiezin batzuk sortzen zituen. Animaliak eta beste arrazoigabeak erabat gizonari “dagozkio” espezie behere baten kide gisa, eta horregatik “atseginerako ere ehizatuak” izan daitezke²⁴. Abere-makina hauek bizirik egoteak ez du garrantzirik zeren eta nolakotasun transzendentea duen gorputz biziaren parte bakarra arima arrazoiduna baita; eta hori, jakina, gizakiak bakarrik du. Baina Vitoriak argi zeukan Amerikatik

²⁰ *De Indis.*, 299 or.

²¹ *De Indis.*, 309 or

²² *Aristotle, Politics*, 1254b 20. Puntu honen eztabaida xeheago izateko ikus, Anthony Pagden, *La Caída del hombre natural*, 51-87 orr. eta Francisco Castilla Urbano, *El Pensamiento de Francisco de Vitoria. Filosofía política e indio americano* (Madrid 1992), 261-66 orr.

²³ *Nichomachean Ethics*, 1143^a 11 f

²⁴ *De Indis.*, 306 or

jasotako berrien arabera –eta bere egoeran zegoen batek alorrean zebiltzan domingotar misiolariengandik informazio xehea jasotzen zuen zalantzarik gabe-- Indioak ez zirela irracionales soilak edo beste abere-gizaki motaren bat. Bost urte lehenago Arcosi idatzi zioenez, “Indioak gizakiak ez baziren, tximinoak baizik, ez ziren irainerako gai izango”²⁵. Gainera espainiarren jabego izango ziren, zeren animaliek ez baitute lurralde-eskubiderik, eta arazo guztia giza lege soila besterik ez zen izango. Baina Vitoriak zioen, behaketa arrunta aski zela erakusteko “haiek gizakiak zirela(sunt illi homines)”²⁶.

Indioak ez dira inozoak (amentes) zentzu mekaniko mugatu batean bakarrik arrazoidunak diren mentalki subnormalak. Zeren inozoak, elbarritu eta beste izaki eragabeak bezala naturaren aberrazio dira, baina elbarri izatea naturazko ibileraren kontra egotea da. Baina indioak, ondorioztatzen zuen Vitoriak, argi eta garbi baliatzen dira arrazoiak, pro suo modo. Badute, hau da, “halako ordena arrazional bat bere arazoetan” beste gizakiek erabiltzen duen ordo-aren antzekoa eta ondorengo gauza hauetan aditzera ematen dena: egoki antolatu dituzten bere hiriak, ezkontza-era ezaugarri bat, auzimaisuak, agintariak, legeak, industria (opificia), merkataritza, eta horiek guztiek arrazoiak baliatzea eskatzen dute. Item erlijio-era bat ere badute”²⁷.

Vitoria hizlariaren diskurtsoaren substantzia, eta kasu askotan koherentzia ere bai, oinarritzen zireneko erreferentzia esplizitu eta inplizituak hornitzen trebaturiko entzuleria ikasi bati mintzo zitzaion. Jakin beharra zeukaten, lehenengo eta behin, zerrenda soil hau Aristotelesek Politika I. liburuan eskaintzen duenaren bertsio aldatu bat dela eta bigarren, bertako puntu bakoitza egiazko gizarte zibilak beharrezko dituen baldintzei buruzko ustekizun teoriko bati edo besteri lot dakiokela. Zeren horiek, Erretorika klasikoan topoi, leku komunak zeritzetenak baitira, eta Vitoriaren entzuleek berehalaxe ezagutu bide zituzten Jainkoak nahi zuen arabera gizarte-ordenaren koadro oso bateko atalak bezala.

Lehenik, eta oso begi-bistan, hiria zegoen. Hori ez zen leku soil bat, nahiz eta egitura fisikoak, kokagune fisikoak berak ere definizio mamitzen laguntzen zuen (inork ez lioke lurrezko txabola multzo bati hiri deituko); Vitoriarentzat, Aristotelesentzat izan zen bezala, giza elkarte osoaren metonimia bat zen, polis edo civitas, gizartearen unitate handien eta perfektuena, bertutea praktikatzea eta zoriona bilatzea inondik ere posible deneko leku bakarra, zeinak diren gizakiaren helburua, bere telos-a. “Izanera etortzen da”, esan zuen Aristotelesek, “existentzia soila dela medio, baina izanera etortzen denean bizimodu onerako da”²⁸ Gizakia hiritargorako jaio da, phusei politikon da²⁹ eta antolaturiko elkarte bateko bizitza ez da berarentzat, hobespen soila edo ezta babesbide soila ere sarritan bere etsai potentzialak baino fisikoki ahulago deneko³⁰ mundu batean; mugimendu-lege psikologiko bati erantzuteak bultzatzen du elkarteak eratzea³¹. Hiriaz kanpo ez dago lekurik ez gizartekotasunerako (hominum consortia) zeinean

²⁵ Obras, 157 or

²⁶ Esaldi hau “*De insulanis*”, Domingo de Cuevas eta Juan de Salinasen tratatu batean aipaturik dago, zeina Vitoriaren irakurgaietan oinarritu eta segur aski *De Indis*-en galdutako zatiak errepikatzen baititu. In *Vitoria De Indis* 196-318 orr

²⁷ *De Indis.*, 308 or

²⁸ *Aristotle Politics* 1252b 29ff

²⁹ *Aristotle Nichomachean Ethics* 1097b 7-11

³⁰ Ikus adibidez, Vitoria, *Obras*, 156-7 orr.

³¹ *Ibid.*, Aristoteles aipatuz, *Physics* 250b 11.

adiskidetasun oro, gizakiak bakarrik dituen bertuteetan gorena, oinarritzen den³², ezta munduari buruz egiazko ezaguera lortzeko aukerarik ere, zeren, ikusi dugunez, ezaguera kontsentsuaren baitan baitago eta hori gizakiak elkarren ondoan eta egitura-hurbiltasunean bizi direnean bakarrik lortzen da.

Hauxe zen hiri-eraketaren ikuspegi klasikoaren muina. Baina hiriko biztanleak kristau bihurtu zirenean, civitas-a elkarte espiritual bilakatu zen presentzia ia mistiko batekin.

Vitoria, neo-aristoteliar gehienek bezala, hiria eta “gizarte-gorputza” bera –gaur egun “Estatua” deituko genukeena-- baliokidetzat jotzen zituen. Giza talde bat civitas bihurtzen da bizitza politiko antolatuan bizitzen hasten bezain laster. Baina elkarte-era hori edozein errealitate fisiko aparta existitzen bada ere –existitzen da, eta beti existitu da Jainkoaren gogamenean-- halere giza historia desberdina du. Gizakiak ez dira beti hirian bizi izan, eta gizaki batzuk, “barbaroak besteak beste, oraindik ez dira horrela bizi. Organismo biziak bezala zeinen antza duen, elkarte zibilek badute hazkuntza eta beharakada-ziklo bat, eta ziklo horren historia azaltzeko ahalegin oro gizakiak bere gizarte-aurreko egoeran izandako portaera naturalaren ereduen berri emanaz hasten zen tradizioz.

Gizakiek beti, hala uste zen, bizimodu monogamoa izan dute izaeraz. Primitiboek ere familiak sortu eta beren seme-alaben ongizateaz eta hezkuntzaz ardura izaten zuten. Beharrak eraginda, ingurune etsaiaren eskakizunei aurre egiteko bakarka gaiezatasun fisikoa baitzuten, beren buruak babesteko bildu ziren lehenik banda alderraitan. Gerora banda horiek elkarte egin ziren beren artean multzo handiagoak eratuz eta horiek batzean sortu zen egiazko civitas-a. Bandatik fratiarako urrats erabakigarria ematera gizakia bultzatu zuen indarra bokantza izan zen hizkuntzaren ahalmena. Hizkuntzak izan zuen egitekoa giza elkarte sortzean leku komuna zen greziar eta geroagoko erromatar pentsamenduan. Bere garrantzia dago hizketa eta zuzena eta okerraren pertzepzioa prezeptu erlatibotzat hartzean³³, zeinak gizakiak bakarrik dituen beste animalia guztien aldean, izan ere horien izaerak atsegina eta oinazea sumatzeraino bakarrik hedatzen baitira³⁴. “Barbarismo” kontzeptua jatorriz linguistikoa ez ezik – horrela izendatzen zituzten grekoek grekoz hitz egiten ez zuten guztiak-- Amerindiar hizkuntzen ebaluaketak hiltziko eginkizuna izango zuen haien erabiltzaileen estatusa finkatzerakoan³⁵.

Egiazko giza elkarte guztiek, consortium-ean jokatzeko trebetasunaz gain, badute bere baitan egitura politiko bat ere formaz Zeruko Erreinuak duenaren antzekoa. Honek familiaren antolakuntza hierarkikoa eragin zuen eta berez ordena-indar geldiezin bat eragiteko gauza da, Vitoriak vix ordinatrix deitzen zuena. Zeren giza gorputza bizirik irauteko gai izango den litzatekeenez baldin eta bere kide guztiak garrantzi berekoak eta koordinatu gabeak balira, horrela hirak, era berean organikoa izaki, ezingo luke osorik iraun, edo elkarte bezala jardun baldin eta bere kide guztiak estatus berekoak balira. Horrela, nahiz eta gorputz politikoa funtsean corpus mysticorum bat izan errealitate fisiko den heinean, toki jakin batean eta bizi den eta promulgazio eta aplikazioa behar

³²

³³ *Aristotle Politics* 1253 14-17

³⁴ *Aristotle De Anima* 414b 18-19

³⁵ Honetaz ikusi Anthony Pagden *European Encounters with the New World, from Renaissance et Romanticism* (London and New Haven, 1993) 117-140 orr.

dituzten lege jakinak betetzen dituzten gizakizko gorputz gisa, giza banako bakar baten sorkuntza zen.

Civitas-a beraz, gizakiak elkarrekin bizi izateko duten modu naturala da. Hartaz kanpo bizi izatea hautatzen dutenak edo beren nahi librez hartatik alde egitea, abereak edo – Aristotelesen heroien kristau baliokideak-- aingeruak dira. Hiria bizitza zibilizaturako beharrezko baldintza delako ustea --zeina jatorriz gutxienez hirietan emandako bizitza gisa definitzen zen-- oinarri teoriko indartsuaren jabe zen horrela. Baina esperientzian erroturiko zerbait ere bazen. Zeren Erdi Aroko eta Aro Modernoaren hasierako Europak azken aldiko Erromatar mundutik, San Agustinen mundutik (zeinarentzat bai giza erreinua eta bai zerukoa hiri gisa kontzebituak baitzeuden) oinordekotzan hartu zuen izaera nabarmenkiro hiritarra. Espainiarrek ahaleginak egin zituzten hori Mundu Berrira esportatzen, ciudad eta villa-k eraikiz bere konkisten aurrerapen nabarmenarazteko. Horiek sarritan aste betean, existitzera destinatuak egotean nahiz eta presentzia fisiko ilaunenaren jabe izan eta horrela Erregea eta Enperadorea, eta beraiekin espainiar zibilizazioaren aurrerabidea ordezkatu.

Auresuposamendu hauek etengabe buruan zituztela, kontzienteki edo inkontzienteki, ez da harritzeko europarrarentzat azteka eta inken “hiri” handiak, Hernán Cortésekin Sevilla eta Kordobarekin konparatuak, Toribio de Motolinia frantziskotarrak Jerusalem eta Babiloniarekin, eta Garcilaso de la Vegak, Inkak, Erromarekin, hain arretagune berezi bihurtu izana. Argi eta garbi zegoen halako lekuak eraikitzeak gai izan zen edozein arraza ezin zitekeela egon Aristotelesek esklabo naturaltzat sailkaturiko barbaroen artean.

Vitoriak indioei egozten dizkien beste zibiltate-zeinuak hiriak eraikitzeak duten bere trebetasunari darizkie. Familia zuten, noski, edozein gizarte-talderen oinarri, izan ere edozein gizarte zibil gero eta unitate handiagoak pixkanaka metatzetik sortua baitzen, zeinetarik familia zen lehen maila, eta hiria azkena continuum horretan. “Auzimaisuak, agintariak eta legeak” argi zegoen hiltzikiak zirela edozein hiriren iraupenerako. Zeren Vitoriak zioen, Aristotelesen leku komun bat aipatuz, “hiriaren helburua bakea eta bizimodu onerako beharrezko legeak direla”³⁶. Vitoriaren zerrendan gelditzen diren beste puntuak, industria, merkataritza, eta erlijioa, guztiak dira gizakiaren entelegu espekulatzailearen froga, zeina den berari, Jainkoaren sorkarien arteko bakarrari, mundu naturaleko ahalbideak ustiatzeko aukera ematen dion tresna. Hori egia da erlijioaren kausan ere, zeren Jainkoari buruzko egiak ulertzea sua edo goldea aurkitzea bezain mundu naturala ulertzearen parte diren. Izan ere gizakiaren arrazoimen sortzailearen agerpenik ahalik eta posibleena baitzen, zeren erlijioak bakarrik ematen baitu aukera Unibertsoko misterio sakonagoetara iristeko. Amerikar indioek praktikaturiko erlijioa faltsua izan zitekeen, eta Vitoriaren begietarako makurra era bai; baina inolako erlijiorik ez edukitzeak kosmosaren eraikuntzari buruzko ulerkuntza akastuna adieraziko zukeen, eta jakina, gizatasun-gabeziaren froga izango zatekeen...

Beren aurrean halako atributu-zerrenda zuela. Vitoriaren entzuleak justifikaturik aurki zitezkeen Indioak bizimodu zibilararen oinarritzako eskakizun guztiak betetzen zituen gizartea batean bizi zirela onartzerat. Kasu hartan, froga enpirikoen indar soilez ez ziren “barbaroak”, Aristotelesek hitzari ematen zion zentzuan, eta horregatik ezin zitezkeen beren eskubide eta jabegoez gabetuak izan aukeramen librerik gabeko gizakiek sorturiko kultura zutelako arrazoiak baliatuz.

³⁶ *De Indis* 386 or, Aristoteles aipatuz, *Politics* 1280b 35 f

Baina jakina, gizarte-formak egote hutsak ez du ezer haien nolakotasunaz esaten. Eta nahiz eta Vitoriaren zerrendak nahikoa froga eskaini indioak ez zirela irracionales, ezta inozoak ere argi eta garbi sinesteko, horrenbestez ez zuen baztertu oraindik zehaztu gabeko beste hirugarren kategoriaren batekoak izan zitezkeelakoa. Zeren erabat gizaki zibilizatuak izateko ez zuten hirietan bizimodu ordenatua egiten bizi behar soilik; naturaren legetik eratorritako lege eta ohituren arabera ere bizi beharra zeukaten.

De Indis-en bigarren partean, bada, konkistarako ustez zeuden titulu justuez hitz egiten duen partea, Vitoriak honako gaia planteatu zuen: ea indioak, nahiz eta esklabo naturalak ez izan, ez ote zitezkeen oso tarte laburrera egon (amentes) burugabeengandik, non gai ez ziren termino zibil edo gizabidezkotan errepublika legitimo bat eratu edo administratzeko³⁷ Hauxe da relectioaren hamazazpigarren eta azken titulua zeina (gugana iritsi den eran) esklabutza naturalaren teoriarekin, hasi eta amaitzen dena, zeina den Vitoriak erabilitako izenburu bakarra zuzenean naturara garamatzana, eta ez indioen estatus legezko edo politikora.

Vitoriak orain, jakina, kontrako argudioak ematen ditu eta ez die jaramonik egiten Indioen munduko ezaugarri positiboei, negatiboei baizik, ez indioen gizarteek zeukatenari, ez zeukatenari baizik.

Nahiz eta zalantzak izan bere proposamenaren indar guztiaz “Ez naiz posizio hau baieztatzeraz ausartzen”, aitortzen zuen caveat modura, “baina ukatu ere ez dut egiten”, Vitoriak ohartarazi zuen haren alde, nahiz eta indioek gizarte zibilaren atributu arruntenak izan, hala eta guztiz ere, “ez duela lege eta auzimaisu egokirik (convenientes); eta ez direla etxea (rem familiarem) behar bezala gobernatzeko gai ere.”³⁸

Horiek, jakina, hutsegite nabarmenak ziren. Etxea gobernatzea beste edozein gobernatze-formaren oinarria da³⁹; eta indioak maila honetan akatsarekin ageri baziren ez da harritzekoa gizarte bat behar bezala eraikitzeke gai ez izatea. Baina indioek sortutako legeak eta epaiketetan haietaz baliatzeko erak Vitoriaren iritzirako ez ziren “asegarriak”, ez etxe-oinarri ahuletik zetozelako baizik eta lege guztiek burutu behar duten egitekoa burutzen hain nabarmenki huts egiten zutelako. Horien egitekoa, noski, betetzen zizutenak hiritar on bihurtzea zen eta ondorioz pertsona bertutetsu, zeren bertuteak eta arteak behar baitira beroriek obratzeko.⁴⁰ Helburu hau lortzerakoan huts egiten duen edozein kode, natura-legearen bortxaketa da, definizioz, eta horrela pertsona makurrak egindako obraren itxura izango luke.

Vitoriak Amerindiar kulturaz egindako bi txosten laburrek indioen gogamenaren ikuspegi kontraesankorra eskaintzen zuten itxuraz. Partez De Indis-en sail berezietakoak direlako da, zeinen argudioak premisa diferenteetatik datozen. Baina partez bakarrik, zeren indiar kultura “aurreratuak” –aztekek, inkek, eta maien ondorengoak-- benetako erronka jartzen baitzioten hamaseigarren mendeko eskolastikaren sailkatze-ohiturei. Alde batetik indio horiek izaki arrazoidunena bakarrik izan zitezkeen bizimodua zeramaten. Beste aldetik, berriz, Jainkoak nahi izan zuen bezala naturaren legea

³⁷ *De Indis.*, 371 or

³⁸ *De Indis.*, 371 or

³⁹ *Aristotle Politics* 1252b 12 ff

⁴⁰ *Aristotle Nichomachean Ethics* 1103 26

interpretatzeko hainbeste zentzutan hain gaituak ziren indio horiek beroriek txundigarri gertatzen ziren bera bortxatzen zutelako. Gizaki arrazoidunak baziren, nola esplikatu zitekeen beren kanibalismoa, giza sakrifizioak, beren nekazal teknika primitiboak eta beren “artearen izaera imitaziozkoa?”

Vitoriarentzat, galdera hauen erantzuna unibertsoaren egitura formalean aurki zitekeen, beste behin ere. Materia guztiak bezala gizakiak ere bere baitan dauzka potentzialitatea eta aktualitatea Indioek, Vitoriak hori ohartarazia zeukan De Indis-en lehen atalean, nolanahiko aberekeriak egiten zituztelarik ere beren ohiko jokaeretan, ez dute “huts egiten besteentzat begi-bistakoak diren gaietan”. Egiten zituzten hutsegiteak gehienetan, hain begi-bistakoak ez ziren alorretan mugatzen ziren, zeinek izan ere eskatzen duten pertzepzio intelektual trebatuzko maila bat haiek erraz hauteman ahal izateko. Adibidez, horrelakoak izango lirateke arte liberalak eta gutxienez arte mekaniko batzuk, beste hitz batzuetan esateko, begi-bistakoa denez naturan ez dauden gauzak. Jakina, egiazki zibilizaturiko gizakiak alor horietan ezaguera lortzen ikasi du, baina indioek ez lortu izanak ez du adierazten irrazionalak direnik baizik eta beren arrazoizkotasuna oraindik in potentia dutela. “Jainkoak eta naturak” zioen Vitoriak, “ez diete huts egin espezie gehienentzat beharrezkoa denean. Gizakiarentzat garrantzitsuena arrazoimena da eta in actu huts egiten duen potentia baliogabea da (frustra).”⁴¹

Esaldia gnomikoa da eta baliteke transmisioan desitxuraturik gelditzea, baina hartatik atera beharreko ondorioak ezinbestekoak dira. Baldin eta indioa, Vitoriak argi utzi zuenez, erabat gai bazen zenbait egintza arrazional burutzeko baina psikologikoki ezgai beste zenbait burutzeko, orduan gogamena derrigor izoztua bide zeukaten bilakaera-punturen batean; eta edozein gizaki egoera horretan baliogabe izango litzateke gizaki bezala. Halere, ezin pentsatuzkoa da horrelako izakiak izan litezkeenik munduan, non Vitoriaren ikasle zen Domingo de Cuevasek esplikatzen zuenez, Aristoteles nihil facit frustra axioma sarritan errepikatuaren oihartzun gisa, “Jainkoak eta naturak ez dute inoiz baliogabea den ezer sortzen”⁴².

Zentzu batean Vitoriak agerian jarri zuen –nahiz eta bere asmo argi eta garbia ez izan hori-- Aristotelesen jatorrizko hipotesian zegoen kontraesan nagusia. Zeren esklabo naturala ez bada gai, Aristotelesek dioenez, grekoek “zoriona” (eudaimonia) deitzen duten egoeraren partaide izateko, orduan halaber ezin da gai izan bere helburu propioa (telos) gizaki bezala lortzeko. Baldin naturak ez badu inoiz ezer sortzen berez bere helburuak betetzeko gai ez denik –zeren horrelako gauza bat baliogabea izango bailitzateke-- orduan esklabo naturala ezin daiteke gizaki izan. Argudio beragatik, gizakiaren antzeko hainbeste atributu erakutsi dituen indioa ezin daiteke esklabo natural izan. “Esklabo natural” kategoria izatez gizakia dela uste izateko arrazoiak ematen dizkigun izakiren bati aplikatu nahi izateak, arriskuan jartzen du Jainkoaren unibertsoaren funtsezko harmoniaren kontzepzioa. Zeren lehenengo eta behin gizaki izateko, indioak arrazoimenaren jabe izan behar du eta ahalmen horrek aktualitate-egoera beteaz lortzeko gai izan behar du aktualitate moralaren bitartez. Hau da, gai izan behar du, Aristotelesek ezarritako terminoetan, “arrazoi praktikorako (phronesis). Vitoriaren ondorengo askok argudiatuko zuten, izan zitezkeen oraindik, munduko alderdiren batean, gizakien eta abereen tartean, izatearen eskalan nonbait kokaturiko izakiak, zerengatik naturak barietate horretarako duen gaitasuna amaigabea baita. Baina hori horrela bada, orduan, José de la Peña (1513-64), Bartolomé de las Casasen lagun

⁴¹ *De Indis.*, 309 or

⁴² “*De insularis*”, in Vitoria, *De Indis* 199 or

luzaroan izanak eta Vespers, Salamancan teologi irakasle izanak ohartarazi zutenez, “oraindik ez da inoiz horrelako arrazarik (natio) aurkitu”⁴³.

Vitoriak argiro frogatu du horrela esklabutza naturalaren teoria ezin zitekeela indioen portaera “ez natural” sarriak azaltzeko erabil. Baina halere portaera hori oraindik azaldu beharra zegoen eta egiazko gizaki guztiek izaki hobegarriak izan behar dutelako konbikzioa mehatxupean jarriko ez zuen eran azaldu beharra gainera. Vitoriak arazo horri eman zion soluzioa begi-bistakoa zen; ez dago zer, argudiatzen zuen, makurra denik indioen gogamenaren konposizioan, menpean hartu duten influentzia da errua. “Sinetsirik nago”, zioen, “hain burugabe eta leloak badirudite (insensati et habetes) hori izan duten hezkuntza pobre eta barbaroarengatik dela”⁴⁴ “Hezkuntzaz” Vitoriak ez zuen eskolatze soila esan nahi –nahiz eta horrek ere funtsezko eginkizuna izan gogamenaren formazioan-- baizik eta Aristotelesek ethismos⁴⁵ deitu zuena, “adimen espekulatzaila”⁴⁶ deitu zenaren trebatzea, halako punturaino, non gai den zehaztasunez eta laguntzarik gabe Naturaren Legeko manamendu sekundarioak ateratzeko primarioetatik. Zentzu zabalago honetako “hezkuntza”-gabezia, Vitoriak ohartarazi zuenez, aski arrunta da herrialde kristauetan ere. Eta, horri zegokionez, Amerikako indioek Europarako behartsu langileen oso antz handia zuten. “Geure jendearen artean bertan ere”, jarraitzen zuen Vitoriak, “nekazari asko ikusten ditugu animalia arrazoigabeekin konparatuta alde handirik ez dutenak.”⁴⁷.

Analogia oso argia eta leziagarria zen, Hirian hezitakoentzat nekazariak bizimoduz, nahiz eta ez jatorriz, lanean erabiltzen eta izaki “zibilizatu” bihurtzen zituzten animaliengandik hurbil zeuden. Indioak bezala, haiek ere baziruditen inguruko munduaren ulerkuntza oroz gabetuak izan zirela.

Vitoriaren konparazio soila indioekin harremanetan sartu zen ia guztiek erreplikatu zuten. Alonso de la Veracruz teologoak, adibidez, Mexikoko hirian urte luzeak eman zituenak ohartarazi zien indioak gizaki-espezie apalagokoak zirela esaten zutenei, haien bizimodua, espainiar nekazariena bezala egiazko civitas batean ez bizi izateari zor zitzaiola. Multz politikotan bildu eta hirietan kokatuz gero, gizaki bezala beren buruak gobernatzeko trebetasuna berehalaxe azaltzen zitzaien. Gizakien gogamenak, beste hitz batzuetan esateko, bizi ziren inguruneak determinatzen zuen ia erabat.

Baina “abereekin” hiriko hornez haraindi bizi zen nekazaria, poble langileen multzo guztiak bezala, Jainkoak gizartearekiko zeukan asmoaren beharrezko parte zen. Mundu ideal batean edozein gizarteren elitea kiderik gaituenez osaturik egon behar zuen, eta horiek gobernari dituztenek burutzen dute komunitate zibil ongi antolatu guztiek beharrezkoa duten lan banausikoa. Pobrearen status soziala eta betebeharrak esklabo naturalen oso antzekoak dira, baina funtsezko bereizkuntza batekin: pobrea ez da jaiotzez bere nagusia baino gutxiago; nahiz eta gutxiago hornitua, adimen gutxiagokoa, guztiarekin ere naturaren legeko lehen manamendua (prima paecepta) betetzeko gai da, eta bere nagusien laguntzarekin, manamendu sekundarioetarako urratsa emateko ere bai; beraz, ezaguera eta bertutea eskuratzeko gai da, hitz batean, gizaki den heinean bere helburua lortzeko. Zeren Vitoria eta bere ondorengoentzat, indioa, nekazari pobreak

⁴³ Norabide honetan Vitoriaren ideia izandako garapenaren berri izateko, ikus Pagden *La Caída del hombre natural* 138-53 orr.

⁴⁴ *De Indis.*, 309 or

⁴⁵ Ikus *Aristotle Nichomachean Ethics* 1103^a 23-6

⁴⁶ Ikus Vitoriaren ikasle ospetsuena zen Domingo de Sotoren iruzkinak, *De iustitia et iure*, (Anberes, 1568), f. 12 f.

⁴⁷ *De Indis.*, 309 or

bezala, gizakia zen, gizaki-mota apalagoa agian, baina homo sapiens hala eta guztiz ere. Paulo III.ak hitz argitan 1537ko *Sublimis Deus* buldan aitortu zuenez, indioa erabat gaiturik zegoen “Fededun Elkartean” (congregatio fidelium) onartua izateko eta horrela baita betiko salbameneko ahaltasunean ere.⁴⁸

Gainera bazegoen Vitoriaren analogietan urrunago zihoan beste dimentsiorik ere. Zeren behin eta berriz esatean hezkuntza zela indioen portaeraren erruduna, Vitoriak eraginkorki jaregin zuen erdi-arrazoizkotasunaren hutsarte denboragabetik eta gune historiko batean kokatu zuen, non beste gizakien aldaketa, aurrerapen eta beherakada intelektualaren hutsarte denboragabetik eta gune historiko batean kokatu zuen, non beste gizakiek aldaketa, aurrerapen eta beherakada intelektualaren lege beren azpian aurkituko zen, kristau zein ez-kristauak, europar zein ez-europar zirela ere. Eta hezkuntzak baldin bazuen beren portaera barbaroaren erantzukizuna, orduan beren estatusa, nekazariena eta beraien antzera trebatu gabeko pertsona guztiena bezala, haurrena bezalakoxea zen, zeinak Aristotelesen definizioan potentzialki bai, baina aktualki ez baitziren izaki arrazoidunak. Haurrek, zioen Vitoriak, badute dominium-a eta hori zerbaitez bere erabilkizun zuzenaren arabera baliatzeko eskubidea besterik ez da⁴⁹, zeren animaliak ez bezala iraina pairatzen dutela esan baitaiteke; eta legez beraien ondasunak tutoreenetatik aparte edukitzen dira. Baina kontraturik egin ezin dezaketenez gero bere herentzia gisa edukitzen dituzte ondasun horiek. Vitoriak ontzat ematen zuen, beraz, Gaztelako koroa gai izan zitekeela (baina izan zitekeela soilik) indioak eta haien lurraldeak babespean edukitzeko eskubidea eskatzeko harik eta ezaguerara iritsi arte. “Argudio hori, ondorioztatzen zuen, karitatearen eskakizunetan oinarri zitekeen, barbaroak geure auzo ditugulako eta gu haien ondasunaz arduratzer beharturik gaudelako”⁵⁰

Vitoriak kontsideratutako konkistarako beste zazpi “titulu injustuak” aita santuak edo Enperadoreak munduaren subiranotzarako zuten eskubide aizunean edo fede kristaua indarrez ezar zitekeelako suposizioan oinarritzen ziren. Enperadoreak, argudiatzen zuen, ezin zezakeen eskubiderik izan agintaritza (inperium) edo domeinua garai bateko Erromatar Inperioaren jurisdikziotik kanpo zeuden herrien gain ezartzeko. Vitoriarentzat, eta oro har espainiar neo-tomista guztientzat, aita santuak jurisdikzio zibilera jotzeko eskubidea bakarrik zuen kristauen ondasun espiritualak arriskuan zeuden kasuetan. Jakina horrek ezin zien eman eskubiderik jentilen gain beren gai kristauetan. Fedea ez dago indarrez ezartzerik, ezta kristauak ez dute eskubiderik ez-kristauak beren bekatuengatik zigortzeko eskubiderik ere, zeren ikusi dugunez, ez bekatuak ez fedegabeziak ezin dezakete gizakia bere eskubide naturalik gabe utz. Azken bi titulu injustuetatik –indioek espainiarren agintaritza nahia onartu zutela eta Amerika Espainiari “Jainkoaren emari berezitzat” eman zitzaiola-- lehena begi-bistan dago faltsua dela zeren indioek espainiarren subiranotza onartzen zutela bazirudien ere, bortxapean bakarrik egin zuten holakorik. Bigarrena “lege komunaren kontrako” profezia oinarriturik dago, eta inola ere ez zukeen Espainiarren inbasioa berretsiko⁵¹.

⁴⁸ Inprimatua in Alberto de la Hera, “El derecho de los indios a la libertad y la fe. La bula *Sublimis Deus* y los problemas indios que la motivaron” in *Anuario de historia del derecho español*, 26 (1956), 119-139 orr.

⁴⁹ *De Indis.*, 305 or.

⁵⁰ *De Indis.*, 373 or. *De Indis* 373 or. Melchor Canok gerora baztertu egin zuen argudio hau karitatezko ezein manamenduk ezin zezakeelako bortxarik onar. Ikus Anthony Pagden. *El imperialismo español y la imaginación política*, itzul. Soledad Silio (Madrid 1991), 45. or.

⁵¹ *De Indis.*, 348 or

Argudio horietako batek ere ezin ziezaiokeen Gaztelako koroari Amerikaren gain dominium-ik eman. Segur aski iustuak izan zitezkeela Vitoriak kontsideratuko tituluak, guztiak Nazioen Legetik, ius gentium-etik atereak ziren. Lege honen pean espainiarrek bazuten Vitoriak “partaidetza naturala eta komunikazio” deitzen zuenerako eskubidea.⁵² Itsaso, kostalde eta portuak beharrezkoak dira gizakiaren biziraumenerako izaki zibil gisa, eta ondorioz, gizaki guztien akordio komunez jabegoaren jatorrizko banaketatik libre geratu dira. Betidanik eskubide objektiboa izan da legean inori ezin ukatu ahal izatea edozein hondartza-zatirako irispidea, normahirena delarik ere une jakin batean, eta hain zuzen ere horregatik zuzen deskribatzen zituen Eneasek Latioko antzinako erregeak “barbarotzat”, aingura ezartzeko baimena ukatzean.

Bidaia egiteko eskubide hori, ius peregrinandi-ak horrela eskubidea ematen zien Indietara iristeko. Bazegoen gainera, “komunikazioari” emandako legezko definiziopean, merkataritzarako eskubide inplizitua ere. Esaterik baldin bazegoen espainiarrak enbaxadore, bidaiari eta merkatarik gisa joan ziren hasiera batean Amerikara, errespetuzko tratua hartu behar zuten eta baimena izan beraiekin tratuan egin nahi zuen guztiekin tratuan egiteko, frantsesek egin zezaketenez, Vitoriaren iritzian, Espainian tratuan egiteko, frantsesek egin zezaketenez, Vitoriaren iritzian, Espainian tratuan egiteko trabarik inork legez jarri gabe.⁵³ (Argudio hau baztertu egingo zuen gerora Vitoriaren ikasle zen Melchor Canok. Nork, galdetzen zuen lehor, deskribatuko zukeen Alexandro Handia “bidaiari gisa?”⁵⁴)

Vitoriak argudiatu zuen gainera Nazioen Legeak ematen ziela espainiarrei beren erlijioa interferentziarik gabe predikatzeko eskubidea (ius predicandi)⁵⁵ eta gerra justu bat egiteko eskubidea ere ematen zitzaiela “tiranoaren kontrako errugabearen defentsan”⁵⁶. Lehen bi kasuetan, espainiarrek bortxaz euts ziezaiaketen bere eskubideei norbaitek kontra eginez gero, zeren gizakiari bere eskubideak kentzeko ahalegin oro irain baita, eta irainen bindikazioak gerra iusturako zioak ematen baititu. Vitoriak Miguel de Arcosi 1534an esan zionez, “konkistadoreek” ezin dezakete iure belli, gerra legea beste titulurik aurkeztu⁵⁷, eta Gerra Legea idatzian, De Indis-en jarraipen bezala argi eta garbi pentsaturik zegoenean, Vitoriak kontsideratzen zuen ia, izatez, gerra indioen kontra egin ote zen.

Gerra iustuaren bidez garaileak epaile-estatusa lortzen du eta, ondorioz, menperatuaren ondasunak beregana ditzake (nahiz eta normalean horietan ondasun pribatuak bakarrik sartzen diren, bere bona”). Halaber garaileak autoritatea lortzen du menperatuaren gain bere burua etorkizuneko iniurietatik babesteko, eta gerra iustuan hartutako presoak legitimoki esklabotu daitezke. Baina beste ezein kasutan ez dago etsaia bere jabegoaz gabetzerik. Halere, irain oso handia egin deneko kasuetan –eta hori aplikatu lekieke amerikar indioei-- edo etsaiak ez dirudienean soluzio baketsu batera iristeko modukoa denik, baliteke printze-agintariak kentzea (tollere principem edo mutare principatum). Horrelako kasuetan espainiarrei eman lekieke baimena “ministroak” bidaltzeko

⁵² *De Indis.*, 352 or

⁵³ *De Indis.*, 355 or

⁵⁴ Aipatua in Pagden, *El Imperialismo español y la imaginación política*, 1991, 46 or.

⁵⁵ *De Indis.*, 362 or

⁵⁶ *De Indis.*, 364 or

⁵⁷ *De Indis.*, 342 or

etorkizuneko beren interesak babestera eta premia sortuko balitz tokiko agintari gogaikarriak kentzeko.

Ari zegoen, ordea, naturaren kontrako bekatu horien frogak bakarrik, zeinak gizateriaren beraren aurkako irainak ziren, eman zezaketela indioen kontra gerra justua egiteko. Eta nahiz eta Vitoriak posibilitate hori itxuraz inoiz baztertu ez zuen, Gaztelako koroa sarturik zebileneko enpresa kolonial mota haren legitimaziotzat ez zuen onartu.

Vitoriaren hirugarren titulua, “errugabearen defentsa” oraindik mugatuagoa da bere aplikazioan. Espainiarrek ezin dute, behin eta berriz zioen, indioen kontrako gerrarik egin haien ustezko naturaren kontrako krimengatik, zeren eta nazio guztiak baitira errudun horrelako krimenez. Baldin eta printze batek ez badu eskubiderik beste baten lurraldea inbaditzeko “fornikazio hutsezko” kasuak zigortzeko –zeren ez baita lurrian naziorik bekatu horretatik libre dagoenik-- ezein printzek ezin dezake beste bat zigortu kanibalismo edo giza sakrifizioak bezalako krimenengatik. Neo-tomista guztientzat, horiek guztiak Jainkoaren legearen hausketak zirenez gero, Jainkoaren kontrako irainak ziren eta gizonaren kontrakoak, eta Jainkoak bakarrik zigor zitzakeen. Edozein printze sekularrek, Erromatar Enperadore Sakratuak berak ere, Jainkoaren obra beronen orde egin zezakeela iradokitzea, beste behin, dominium-a Jainkoaren Graziaz eta ez Jainkoaren Legez ematen zela uste izatearen errakuntza luterotarrean erortzea zen.

Vitoriak, horrela, oso aukera murriztarekin utzi zuen bere erregea Amerikan jurisdikzio izateko (dominium jurisdictionis), ea jabegoari buruzko eskubiderik bat ere gabe. Eta, jakina, koroak ius gentiumaren pean beretzat eska zitzakeen eskubideak indioek espainiarrak “iraindu” izan bazituzten bakarrik izango ziren baliozko. Alabaina, kasuak zituen itxura ia guztien arabera, haiek iraintzaile izan ez zirenez gero, Vitoriari gelditzen zitzaion arrazoi nabarmenki objektibo bakarra zen, espainiarrak ordurako bertan zeudenez gero, Indietatik alde egiteko ahalegin orok “galera eskergak ekarriko zizkiokeela Erret Ogasunari, zeina onartezina zen.”⁵⁸. Eta bere entzuleriari gogorazten zionez ez zegoen inolako frogarik portugaldarrek Afrikan gutxiago irabazi izanarenik merkataritza bidezko gaztelauek Amerikan okupazio bidegabez baino.⁵⁹

Vitoriak ez zuen bere argudioez Enperadorea Inperioaren zatirik handienetik inondik ere bidali; baina arrisku handiarekin hurbildu zen horretara. 1530. urteen azken aldera Mexikon barrena zabaldutako zurrumurruek, Karlos V, eta geroago Felipe II “Indietatik alde egiteko” prestamenak egiten ari zirelako zurrumurru hutsak ziren, baina Vitoriak eta beronen ikasleek espainiar monarkiak Ameriketara zuen legitimotasun ahulaz idatziriko guztiaren inplikazioen ulerkuntza argi eta oso hedatuetan oinarrituak ziren.

Vitoriak botereaz eta konkista-eskubideez idatzirikoak Europa katolikoan eztabaidagai nagusi bihurtu ziren hamazazpigarren mendearen azken aldera arte. Espainian Amerikaren kolonizazioari buruzko legitimazioaz berak emandako arauak –argitaratu zirenean- ortodoxia gisako zerbait bihurtu ziren. Adibidez, 1548an, Vitoriaren hiri ikasle argienetakoek, Melchor Cano, Bartolome Karrantza eta Diego de Covarrubiasen Juan Ginés de Sepúlvedaaren *Democrates secundus sive de justis causis belli apud indos sonatus condonatus* zuten; ala egin bazuten, azaldu zuen Canok, “errespetu guztia merezi duen Frai Frantzisko Vitoria doktore ospetsuak gai horretaz luzaz idatzi duelako da eta

⁵⁸ *De Indis.*, 310 or.

⁵⁹ *De Indis.*, 374 or

zure ikuspegiaren kontra, eta guk gutxi egin genezake zure iritzia baztertzeaz aparte.”⁶⁰ Vitoriaren ikuspegiak oinarri teoriko handia eman zion Amerikako indioei buruzko idatzi etnografikozko gorputz zabala burutzeko ere. Eta nahiz eta erabat faltsua izan Vitoria “Nazioarteko Legea” bezain orokortu eta moderno den zerbaiten gurasotzat hartzea, kontua da nazioarteko harremanetan zenbait printzipio arautzaile sartzeko gerora egin ziren ahaleginetan bere idatziak parte osagarri bihurtu zirela.

Anthony Pagden

Indio aurkituberriei buruzko aita Francisco de Vitoriaren lehen irakaspena
Berrirakurri behar den pasartea Mateo baitan (28-19):

"Irakats itzazue herri guziak, bataiatzen dituzuela,
Aitaren eta Semearen eta Izpiritu Sainduaren izenean"

BILDUMA

1. Kontzientzia seguruan izatekotan, zalantzarik baldin baduzu zerbaitetaz, kontsultatu behar diezu, haren irakastea dagokienei.
2. Zure galdea egin ondoan zalantzarik baldin baduzu zerbaitetaz, kontsultatu dituzun jakitunen aburuari behar zara jarraiki; bestela ez zara seguruan izanen.
3. Zalantzan zabiltzalarik zerbaitetan, galdezkatu dituzun jakinek uste baldin badute zer hori zilegi dela, izatez zilegi ez delarik, ea jakinen aburuari jarraiki behar zaren, kontzientzia seguruan izatekotan.
4. Espainolak etorri aitzin, Indio barbaroek egiazko jabegorik¹ ba ote zuten maila publikoan nola pribatuan? Eta ba ote zen haien artean nehongo printzerik edo buruzagirik?
5. Bekatu mortalean daudenek nehongo jabegorik ez dutela izaten ahal diotenen uste okerra altxatzen da.
6. Bekatu mortalak ez du eragozten herritarren gaineko jabego zibila ezta egiazko jabegoa ere.
7. Jabegoa galtzen ote da fedegabeziarengatik²?

⁶⁰ Aipatua in Pagden, *La Caída del hombre natural*, 157 or.

8. Heretikoak ez du, Jainkozko zuzenbidez, ontasunen jabegoa galtzen bere heresiarengatik.
9. Heretikoak, giza zuzenbidez, galtzen ote du bere ontasunen jabegoa?
10. Bere krimena egin duen egunetik, heretikoak jasaten du ontasunen konfiskatzeko zigorra.
11. Heretikoaren ontasunez jabetzea kondena baino lehen, ez zaio zilegi fiskoari, nabarmena izanik ere hobena.
12. Heretikoaren heriotzetik landa etorri baldin bada ere kondena, ontasunen konfiskazioak atzera eragiten du, nornahiren esku gerta daitezten ontasun horiek, krimena egin izan den eguneraino.
13. Beren krimena egin duten egunetik, heretikoek egin ditzaketen saltzapenak, dohaintzak eta ontasunen eskuratze mota guztiak, baliogabeak dira, etabar...
14. Heretikoak, bere ontasunen jabe ote da, kontzientziaren arabera, kondenatua ez deno?
15. Heretikoari zilegi ote zaio bere ontasunez gozatzea?
16. Heretikoak, bere ontasunak beste norbaiti urririk uzten ahal dizkio hots, hari ematen.
17. Heretikoari ez zaio zilegi bere ontasunak beste bati dirutan uztea hots, haien saltzea edo dotetan ematea, bera auzitara deitzen ahal badute.
18. Zein kasutan heretikoari zilegi ote zaio, berdin dirutan bere ontasunen beste bati uztea?
19. Ez beren sinesgabekeriazko bekatuak ez beste bekatu mortalek ez ditzakete barbaroak debeka, maila publikoan nola pribatuan, jabe egiazko izatetik.
20. Ea adimendura heldua behar den izan, jabe izateko?
21. Ea haurra jabe izaten ahal den, adimendura heldu aitzin?
22. Ea eroa jabe izaten ahal den?
23. Erokeriaren aitzakiagatik, ez dira barbaroak debekatzen ahal, jabe egiazko izatetik, ez baitira eroak.

24. Espainolak haiengana etorri aitzin, Indio barbaroak, maila publikoan nola maila pribatuan, egiazko jabeak ziren...
25. Enperadorea ez da mundu osoaren jabea.
26. Mundu osoaren jabea balitz ere enperadorea, ez luke horrengatik eskubiderik, ez barbaroen lurraldeez jabetzeko, ez nagusi berrien ezartzeko, ez aitzinekoen kentzeko, ez eta ere zergen biltzeko.
27. Jabegoaz eta botere zibilaz mintzatzeko, Aita Saindua ez da mundu osoaren jabe zibila edo tenporala.
28. Aita Sainduak, munduko botere tenporalik balu ere, eskubiderik ez luke munduko printzei botere horren emateko.
29. Izpirituzko gauzei buruz ordenaturikako botere tenporal doia badu Aita Sainduak.
30. Aita Sainduak ez du batere botere tenporalik, ez Indio barbaroen ez nehongo beste fedegabeen gainean.
31. Aita Sainduaren boterea ez baldin badute barbaroek onartu nahi, ez dugu horrengatik eskubiderik ez haiei gerla egiteko ez haien ontasunez jabetzeko.
32. Kristau fedez deus jakin aitzin, barbaroek fedegabekeriazko bekaturik egin ote lezakete, Kristo baitan ez balezate sinets?
33. Zer behar du ezjakintasunak, garaiterraza, erruduna eta hobenezkoa izateko? Eta zer gertatzen da ezjakintasun garaitezinarekin?
34. Eginbide ote dute barbaroek, kristau fedearen lehen aldarrikapena sinesteko, eta bekatu mortalik egin ote lezakete Kristoren Berri Onaren iragarpen soila onart ez balezate?
35. Fedea, bakarrik iragarria eta aurkeztua balitzaie barbaroei, eta hauek ez balezate berehala onart, ez lukete horrengatik Espainolek eskubiderik gerlaren egiteko, ez eta ere gerla legez haiei jazartzeko.

36. Barbaroak deitzen eta aholkatzen baldin badituzte, erlisioneaz bakean mintzo zaizkien entzutera, eta haiek ez baldin badute entzun nahi, bekatu mortala egiten dute, nahitaez.

37. Barbaroak noiz ote dira behartuak kristau fedea onartzera, bekatu mortalaren nekepean?

38. Kristau fedea jadanik aski argi iragarria eta aurkeztua izan ote zaie barbaroei, haren onartzera behartuak izateko gisan bekatu mortalaren nekepean? -Ez zaio iduritzen idazle honi.

39. Jadanik kristau fedea aski argi eta garbi iragarri izan zaielarik, barbaroek ez baldin badute nahi sinetsi, ez da horrengatik zilegi, ez haiei gerlarik egitea, ez haien ontasunez jabetzea.

40. Kristau printzeek ez dute eskubiderik, ez Aita Sainduaren izenean ere, barbaroen natura legearen kontrako bekatuetarik urruntzera behartzeko, ez eta bekatu horiengatik haien zigortzeko.

SARRERA

"Irakats itzazue herri guziak, bataiatzen dituzuela Aitaren eta Semearen eta Izpiritu Sainduaren izenean" (Mt. 28-19).

Pasarte horretarik datorkigu galdea,ea haizu den fedegabeen umeak bataiatzea, burasoek ez baldin badute nahi. Galde horri ihardesten diote Irakasleek³ IV. Sententiarum (dist.4)- en eta San Tomasek⁴ Summa Theologica-n (II-II, q. 10, a. 12 & III, q. 68, a. 10) .

Eta gure eztabaida eta irakaspen hau guzia eskaintzen diegu mundu berriko Indioak deitzen ohi dituzten barbaro haiei, Espainolen eskutara etorri baitziren duela berrogei bat urte⁵, eta lehenago ezezagunak baitziren gure mundu honetan.

Gure eztabaida honek hiru zati izanen ditu⁶:

LEHENIK ikusiko dugu zein zuzenbideren izenean erori diren delako barbaroak Espainolen menpe.

BIGARRENEKORIK, zer egin dezaketen haiekin Espainiako Printzeek maila zibilean eta tenporalean.

HIRUGARRENEKORIK, zer egin dezaketen haiekin, edo Printze horiek, edo Elizak berak alor izpiritualean eta erlisioneko gaitetan. Eta horretan ihardetsiko diogu lehen galdeari.

Baina lehen zatiari doakiola, iduri duke eztabaida hori guzia alferrikakoa dela eta behargabea; ez bakarrik gutartean, -ez baitoakigu guri, eztabaidatzea oro zuzen ote diren gizon haien administrazioan, ez eta ere negozio hori guzia zalantzan jartzea, edo izan daitezkeen hutsen zuzentzea, -baina bai gai horretaz axola eta ardura izateko eginbidea dutenen artean ere.

Lehenik, alabaina, ez Espainolen Printzeak ez haien aholkulariak ez dira behartuak, lehenago eztabaidatuak eta erabakiak izan diren eskubideen eta tituluen berriz, has- eta- has, aztertzeraz eta eztabaidatzeraz; bereziki fede onez hartu baldin badituzte printze haiek delako ontasunak, eta bakean baldin badauzkate.

Ezen Aristotelek dioen bezala, Etika-n (III, 1), "Mugaezinera ihes egin liezaguke gaiak, beti kontsultatu behar izanez gero", eta orduan ez litzateke segurantzarik ez ziurtasunik ez printzeen ez haien aholkularien kontzientziarentzat; eta beren jabegoaren tituluak hastapenetik ikertu behar balituzte, ez lukete deusik finkatutzat edukitzen ahal.

Eta bestalde, gure Printzeak, Fernando⁷ eta Isabel,⁸ eskualde haietako lehen jabeak, guziz giristino onak baitziren eta Karlos Bostgarrena⁹ Enperadorea, guziz Printze zuzena eta erlisionekoa baita, ezin da sinets ez dituztela gai garrantzitsu horretan zorrozki ikertu eta finkatu beren kontzientziaren eta karguaren segurantzari doazkion alde guziak. Horra, beraz, zergatik iduri lukeen eztabaida hau ez dela bakarrik behargabea baina ere bai ausartegia; eta iduri luke alegia ihiari korapilo ikertzen, edo zuzenaren egoitzan bidegabearen bilatzen ari garela.

Ateka honetarik ateratzeko, oroitu behar da Aristotelek zer dioen Etika-n (III, 1): nola ezinezkoan eta ezinbestean ez den hartzen erabakirik ez aholkurik. Ez da azterketa etikorik egiten, seguruak eta fidagarriak, onak eta zuzenak diren gaietan. Ezta ere alderantziz, nabarmenki eta segurki gaiztoak eta debekatuak direnetan. Nehork ez du, beraz, azterketa zuzenik egiten, neurria atxiki, bertutea erakutsi, eta zuzentasuna begiratu behar denentz jakiteko; edo, bidegabeki eta ahalkizungarri ihardun behar ote den, ala ezkontza hautsi, ala hitza jan, ala burasoak ohoratu behar ote diren, eta beste horrelako... Ez dira ez horrelako galdeak Kristauari doazkionak.

Baina zerbait egin nahi delarik, eta egiteko hura zuzena ala okerra den, ona ala txarra, egiazko zalantzak badirelarik, orduan bai behar da hartaz aholku hartu eta deliberatu; eta ez berehala, zer den zilegi eta

zer ez, aztertu eta ikusi gabe, ausartziarekin egiten hasi. Hori gertatzen da bi alde badituzten gauzetan: bata ona eta bestea txarra; hala nola ordainketa, kontratu eta negozio mota anitzetan.

Hona nola diren gauzak kasu horietan: Demagun norbaitek zerbait egiten duela, zilegi denentz aztertu eta zuzen ikusi gabe. Izatez egitate hori zilegi balitz ere, bekatu egin lezake egileak eta ez luke ezjakinaren aitzakiarik, haren ezjakina ez bailiteke garaitezina; zer zilegi den eta zer ez, ikusteko egin zezakeena ez duenez gero berak egin. Ezen ekintza bat ona izan dadin, -bestela dudazkoa baldin bada-, gizon zuhurraren aburuaren eta erabakiaren arabera egin behar da: Aristotelek dioenaz Etika-n (II, 1), hori da ekintza onaren baldintza; eta beraz, zalantzetan dabilena aitzakiarik gabe gelditzen da, ez badie aholkurik eskatzen badakitenei.

Demagun gainera, berez zilegi dela ekintza hura: zalantza arrazoizkorik jauzten baldin bazaio egileari, egile horrek eginbide du, adituen aburua eskatzea eta hari jarraitzea, delako adituak hutsean gertaturik ere. Horra zergatik norbaitek, Irakasleekin kontsultatu gabe, jendeak zilegi den ala ez zalantzan daukan kontratu bat egin baleza, bekatu egin lezakeen, dudarik batere gabe; berdin kontratu hori zilegi balitz ere, eta berari, ez gizon zuhur baten erranarengatik, baina bere ustez eta bere aburu propioaz hori bera baderitzo.

Eta halaber norbaitek dudazko zerbaitetan jakintsuen aholkua hartu baldin badu, eta hauek erabaki badute ez dela zilegi, orduan bere burutarik egiten badu halere ekintza hura, bekatu egiten du, haren ekintza, berez zilegi izanarren.

Gizon batek adibidez, ez dakielako honelako emakumea bere emaztea duen ala ez, aholku hartu du jakiteko, kasu horretan, bere ezkonteginbidea zor ote duen ala sori ala hartze. Irakasleek ihardesten diote orduan neholaz ere ez duela horrelakorik haizu. Baina bere emaztearen maitez edo bere tirria propioz, hark ez ditu sinesten eta haizu duela baderitzo. Dударik ez da bekatu egin lezakeela emazteari hurbiltzen balitzaio, berez hurbiltzea zilegi izanagatik -izatez zilegi lukeen bezala- zeren hori eginez, bere kontzientziazko eginbidearen aurka baitoa.

Salbamenari dagokionez alabaina, Elizak irakasletako hautatu dituenen sinestea eginbide dugu, eta dudazko gauzetan haien iritzia dugu lege. Zeren auzitegiko auzietan Epailleak epaitu behar duen bezala lekukotasunen eta frogen arabera, kontzientziazko auzietan, bakoitzak epaitu behar du, ez bere burutarik, baina bai egiaren itxurari eta jakinen zuhurtziari behatuz. Bestela ausarta zara zeure erabakietan eta galtzeko arriskuan ezartzen duzu zeure burua; eta beraz galtzen zara. Testamentu Zaharrean errana da (Dt 17,8-11): "Eztabaida aurki bazeneza, odola bai eta odola ez-en artean, auzia bai eta auzia ez-en artean, legena bai eta legena ez-en artean eta ikus bazeneza zure herriko epaileen hitzak ez doazela alde berera, dio Jaunak, jaiki zaitez eta igan Jainko Jaunak hautatu duen lekura;

Lebiren apezai buruz joanen zara eta kargutan den epailearengana eta egiazko epaia galdutako diezu epaile horiei.

Eta eginen duzu hango buruzagiek erranen dutena eta haien bidetik joanen zara, ez eskuin ez ezker baztertu gabe".

Horrela, bada, dudazko gaietan bakoitzak eginbide du, Elizak horretarako jarri dituenengan argitzea; apezpikuen, predikarien eta konfesoreen baitan, hauek Jainko-legea ala giza-legea ongi ezagutzen baitute.

Ezen Elizaren baitan, batzuk begiak dira eta besteak oinak, etabar... (1 Ko 12,12-30).

"Kristok berak egin ditu batzuk Apostolu, besteak Ebangelari, beste zenbait Artzain eta Irakasle"(Ef 4,11). "Moisen alkian jarri dira Izkribauak eta Farisauak; egizue eta bete haiek erran guzia" (Mt 23),2-3). Eta Aristotelek Etika-n (I, 1), ematen digu ere, Hesiodori hartu dion aholku hau: "Bere baitarik deus ez dakiena eta zer den ona jakiteko nehor behatzen ez diona, eroa da eta ezdeusa".

Ez da beraz aski, norberak bere kontzientzia eta bizia seguruan izatekotan, zuzen dabilela uste izatea; dudazko gauzetan bakoitzak eginbide du dagokien zuhurtzia baitan bere aburua finkatzea. Eta negoziatzaileentzat ere ez da aski, beren ustez zilegi ez den ezer ez egitea, zuzenak ez diren kontratuak egiten baldin badituzte bestalde, adituei aholkurik batere galdatu gabe.

Ez dugu beraz onartzen ahal Kaetano kardinalearen iritzia,¹⁰ ho-

nela dioena: Demagun zerbait berez zilegi dela eta gero zalantzan ematen dela. Predikariek edo konfesoreek, horretaz erabakitzea dagokienek erraten baldin badute gauza hori ez dela zilegi; edo beniala dela, edo mortala dela, orduan delako gauzaren maitez hori sinesten ez duenak eta bere kontzientziaren arabera bekatu mortalik ez dela uste duenak, ez du hark bekaturik egiten.

Eta adibide hau emaiten digu kardinaleak: Emazteek erabiltzen dituzten larru-tinduak eta beste behargabeko apaindurak, berez ez dira "mortalak", Predikariek eta Konfesoreek hala direla erranik ere. Bere burua apaintzeko asmoz, emazte batek sinesten ez baditu, eta zilegi dela, edo bederen "mortala" ez dela baderitzo, ez du bekatu mortalik egiten horrela apainduz.

Nik ordea daukat arriskutsua dela iritzi hori, zeren edozein emaztek eginbide du salbamenari doazkion gauzetan adituak direnen sinestea eta haien aurka joanez bere burua arriskuan jartzen du; hori mortala baita jakintsuen arabera. Baina alderantziz, dudazko kasu batean adituen aholkua hartzen baldin baduzu, eta gauza zilegi delako, aditu haien erabakia onartzen, seguruan da zure kontzientzia; non ez zaituen berriz iratzartzen, edo esku duen norbaitek, edo beste arrazoi batek eta non ez zaren orduan behartua dudazko aburura, edo berdin kontrako iritzira itzultzero. Hori argi dago, ahal duzuna egin baituzu zure aldetik eta garaitezina baita horrela zure ezjakintasuna.

Hemen erran guzietarik datozkigu proposizio hauek :

1. Dudazko gauzetan norberak argitu behar du, horietaz irakastea

dagokien adituen baitan. Ez da bestela kontzientzia seguruan izaten ahal, dudazkoa dena, berez zilegi izan dadiela edo ez.

2. Dudazko gauzaren argitzeko mintzatu diren adituek erabakitzen baldin badute gauza hura ez dela zilegi, bakoitzak eginbide du haien iritzia onartzea; eta kontrakoa egin baleza, ez luke aitzakiarik, haren ekintza bidezkoa izanik ere .

3. Alderantziz mintzatu diren adituek erabakitzen baldin badute zalantzan zen gauza hura bidezkoa dela, haien aburua onartzen duenak seguruan dauka kontzientzia, delako ekintza ez balitz ere izatez zilegi.

Goazen orain berriz Indio barbaroez generaman solasera!

Ez da arazoaren bidegabekeria hain nabaria, non ez baita hor zuzentasunik aipatzen ere ahal. Ez da ere horren zuzentasuna hain ageria non ez baita bidegabekeria zalantzan emaiten ahal. Baina iduri luke alde bakoitzak baduela zerbait itxura.

Zeren lehenik, ikusten dugularik gizon zuzen eta jakintsuen esku dagoela arazoa, sinets dezakegu ongi eta zuzen daramatela guzia. Baina gero entzuten dugularik hainbeste gizaki sarraskitu direla, hainbeste jende errugabe zirenak larrutu dituztela, hainbeste jabe beren ontasunetarik haizatu direla eta beren aberastasunetarik gabetu, badugu arrazoirik aski gure buruari galdatzeko horiek oro zuzenki egin izan diren ala zuzengabeki. Eta beraz eztabaida hau ez dateke osoki behargabekoa. Horra zer ihardesten diogun gure erantzuleari.

Den gutieneko zalantzarik ez balitz ere bestalde arazo honetan, ez litzateke gauza berria teologiako eztabaidak antolatzea dudazko ez

diren puntu zenbaiti buruz: Hala nola eztabaidak izaten diren Jainko Gizon Eginari eta fedezko beste artikulu batzuei buruz. Teologiako eztabaidak alabaina ez dira beti deliberatiboak. Askotan demostratiboak dira; erran nahi baita, egiaren erakusteko antolatzen direla eta ez egiaren frogatzeko

Eta norbaitek erran baleza: Lehen bai menturaz, zerbait zalantza izan zen arazo honetaz, baina aspaldian aditu batzuek eztabaidatu eta epaitu dituzte horiek oro eta orai denak horien erranetik badoaz. Ez da beraz berriz azterketa egite beharrik.

Ihardesten dugu lehenik: Hori horrela baldin bada, Jainkoa izan bedi benedikatua! Baina gure eztabaidak ez dio nehoi kalterik egiten, eta ez dut gatazka berririk sortzeko xederik.

Bigarrenekorik erranen dut, ez dagokiela Legelariei¹¹ -edo bederen ez bakarrik haiei- arazo honetaz erabakitzea. Zeren erakutsiko dudan bezala, barbaro haiek ez ziren giza zuzenbidez gure menpe, eta beraz haien arazoak Jainkozko zuzenbidez argitu beharrak dira; ez soilik giza legeen arabera. Legelariak ordea ez dira baitezpada Jainkozkoez jakintsun, berek beren baitarik erabakitzeko horrelako auzietan.

Ez dut uste, gainera, arazo honen eztabaidatzeko eta erabakitzeko behin ere deitu izan den Teologo treberik, gai garrantzitsu horietan entzuna izateko on denik. Alta bada kontzientziazko auzietan apezei -erran nahi baita Elizari- dagokie erabakitzea. Horra zergatik Liburu Sainduak agintzen dion Erregeari legearen liburua har dezan Apezaren eskutik (Dt 17,18).

Hirugarrenekorik, demagun arazoa bere osotasunean aski ongi aztertua izana dela eta segurutik erabakia: ez ote dugu eremu zabal horretan xehetasun bat edo beste aurkituren, zalantzan dagoenik eta eztabaidagai on dukegunik?

Horra zergatik, ene iduriko, lan garrantzitsua eginen dugun, eta ez behargabeko lan alferra, hartze duen duintasunarekin argitzen ahal badugu arazo hau.

LEHEN ZATIA

Aitzineko Indioez

Goazen beraz berriz gure solasera!

Urratsean joanez, ikusiko dugu lehenik Indio barbaroek bazutenentz maila pribatuan nahiz publikoan jabego egiazkorik, Espainolak etorri aitzin; hots, beren ontasun eta funts berezien jabe egiazkoak ote ziren. Eta bestalde, ba ote zituzten beren printzeak eta bestei manatzeko buruzagi egiazkoak?

Eta behin iduri luke ezetz, zeren esklabuek ez dute ontasunen jabegorik: "esklabuak ez du bererik deus izaten ahal" (Institutes, Per quas personas acquirere liceat, § Item vobis), (Digesta, De acquirenda haereditate, Placet legea); beraz, irabazten duen guzia bere nagusiarentzat du irabazten, (Institutes, De his quae sunt sui, vel alieni juris § Nam apud omnes). Indio barbaro horiek bada esklabuak dira; eta beraz...

Tipia frogatzen da: Aristotelek zuzenki eta ederki dioen bezala Politika-n (I, 1), "gizon batzuk badira, izatez esklabu direnak, hobe baitute agintari baino zerbitzari izatea". Horiek dira, aski zentzu ez dutenak beren buruen gobernatzeko, baina bai besteen aginduak entzuteko. Izpirituan baino gehiago gorputzean daukate beren indarra. Eta nehon izatekotan horrelakorik, barbaro haiek izan behar dira; zinez ageri baitute abere basenganik ez dabiltzala urrun. Ez ez dira on, neholaz ere, agintari izateko. Eta segur hobe da haienez, beste batzuek gida ditzaten, ezenez eta haiek besteak. Aristotelek dio zuzenbide naturalak eskatzen duela horrelako gizonak esklabu izatea. Ez daitezke, beraz, izan deuseren jabe.

Eta ezin da erran, Espainolak etorri aitzin ez zutela nehongo beste jaberik, gertatzen baita esklabu batek jaberik ez izatea, Digestaren Iruzkinek altxatzen duen bezala (De liberali causa, Si usum fructum legea). Legeak berak espreski erraten du, gainera. Quod servus legea bestalde aipatzen du (ikus Digesta, De servorum stipulatione) bere jabeak bazter utzi eta nehork erosi ez duen esklabuaren kasua: nornahik hartaz jabetzeko eskua duela erraten ere du. Indioak esklabu zirenez gero, Espainolei, ondorioz, zilegi zitzairen haiez jabetzea.

Ihardets dezakegu ordea Indioak lehen, bakean bizi zirela, beren ontasunen jabe, bai maila pribatuan bai maila publikoan, eta beste arrazoirik agertzen ez deno, egiazko jabetzat hartu behar direla; ez zaizkie beraz beren ontasunak kendu behar, bidezko kausarik gabe, naturaz esklabu direlako aitzakiarekin.

Ez dut hona ekarri nahi, auziaren erabakitzeko, jabegoaren definizioaz eta jabego mota berezietz Irakasleek erran dutena: nihaurk luzaz gaia oratua dut "itzultzeaz" mintzatu naizelarik Sententiarum (I-IV, dist. 15), eta Summa Theologica (II-II, q. 62) liburuen iruzkinean. Gauza horiek bazter uzten ditut beraz, garrantzitsuagoak ez ahanztearren.

Eta puntu horiek bazter utziz gero, ohart daiteke, barbaroek ez baldin bazuten jabegorik, ez zela hori gertatzen ahal, edo bekatore, edo fedegabe, edo ero eta zentzugabe zirelako baizik.

1. INDIOAK BEKATORE?

Jabegoaren oinarria grazia dela diote batzuek, eta beraz be-

katoreek -bekatu mortalean bizi direnek bederen- ez dutela deusetan deuseren jabegorik. Hori izan zen Lyongo Errumesen edo Vaudiarren¹² errakuntza, eta gero Joanes Wiclef¹³ ena. Honek errana baitzuen: "Nehork ez dezake jabego zibilik izan bekatu mortalean bizi deno"; Konstantzako Kontzilioak gaitzetsi zuen proposizioa. Baina Armagheko Richardek¹⁴ ber iritzia agertu baitzuen De Quaestionibus Armenorum (1.10, c.4) liburuan eta Defensorium Pacis elkarriketan, haren aurka idatzi zuen Tomas Walden-ek¹⁵, Doctrinale Antiquitatum delakoan (t. I, l.3, c. 82 & 83; t.II, c.3).

Armagheko Richardek nahi zuen erakutsi, Liburu Sainduen arabera, Jainkoak gaitzesten duela horrelako jabegoa: "Erregeak hautatu dituzte, baina ez nik erranik; printzeak jarri dituzte, baina ez nik galdeginik". Eta jarraian hona zergatik: "Beren urre eta zilarrez jainko irudiak egin dituzte, suntsituak izateko" eta abar... (Os 8,4). Horrengatik dauka gizon horien jabegoa ez dela zuzena Jainkoaren begietan.

Bai argi dago Jainkoarengatik datorrela jabego oro; denak Jainkoak egin dituenek gero. Eta beraz, nehork ez du jabegorik izaten ahal, Jainkoak berak eman ez baldin badio. Ez dagokio bada Jainkoari, zerbait eman diezaien, Hura sinesten ez dutenei, eta Haren aginduak hausten dituztenei.

Eta berdin munduko Printzeek ez dituzte beren ontasunak, adibidez beren lurrak eta gotorlekuak ematen, jazartzen zaizkienei, eta eman baldin badizkiete, gero berreskuratzen dituzte. Gizabideen arabera ikusi behar ditugu bada Jainkobideak (Er 1,20). Jainkoak ez die beraz jabegorik emanen, Bera sinesten ez dutenei; eta horren adiarazteko, boterea kendu die Jainkoak printze batzuei, hala nola Saul-i (1 Erg 15&16), Nabukodonosorri eta Baltazarri (Dn 4&5).

Bestalde, Jainkoak erran du: "Egin dezagun gizona gure iduriko,

gure eiteko, eta izan bedi itsasoko arrainen nagusi" etabar...(Hs 1,26). Iduri du beraz Jainkoaren idurian finkatzen dela jabegoa; baina bekatoak ez du Jainkoaren eiterik; eta ondorioz ez da jabe izaten ahal.

Gainera, bekatoak errege kalteko laidoa egin du; zuzen da ondorioz gal dezan jabegoa.

Eta oraino, San Agustinek dio, ez duela bekatoak jaten duen ogia merezi .

Azkenik, oroitu gaitezten, gure lehen burasoei Jainkoak eman ziela Baratzearen jabegoa; baina gero kendu ere zien beren bekatuarengatik (Hs 1, 28-30); beraz...

Aitortu behar da bizkitartean, ala Wiclefen ala Armagh-ekoaren solasak ez direla aski zehatzak, eta printzeen nagusitasunaz direla mintzo, izatekotz. Baina haien argumentuek edozein botere berdin hunki dezakete; edozein botere jotzen dute orokorki. Eta horrela hartu zuen haien iritzia Conrad Summenhartek¹⁶ De Contractibus (1.I,q.7) bere liburuan eta Armagheko Richardek hori bera aski argi erraten du. Ondorioz, aburu horri jarraitzen zaionak erran dezake Indio barbaroek nehongo jabegorik ez zutela, beti bekatu mortalean bizi zirenez gero.

Bainan iritzi horri kontrajartzen diogu beste hau: Bekatu mortalak ez du kentzen ez jabego zibilik ez botere egiazkorik.

Proposamen hori finkatua izan da Konstantzako Kontzilioan, Eta Piarres Aillykoaren¹⁷ ondotik, Jakes Almainekoak¹⁸ justifikatzen du honela Sententiarum liburuaren iruzkinean (I.IV, d.15, q.2). Ezen ikusi behar da zer lanetan litzatekeen gizon bat bekatu mortalean izanez, baitezpada ogia jateko beharretan gerta baledi: alde batetik ogia jan

behar, eta bestetik ogi hori beste bati ebatsi behar, deusen jabegorik ez duenez gero. Ez luke nehondik, bere bekatutik ateratzeko biderik.

Argumentu honek ez du ordea balio: zeren eta, lehenik, Armagh-eko Richard eta Wicleff ez dira naturazko jabegoaz mintzo, jabego zibilaz baizik. Bigarrenetik ondorioa ukatzen ahal da, eta, ezinbestean bestenetik har daitekela oroitarazten. Hirugarrenetik delako gizonak urrikitan sartzea aski du korapiloa askatzeko. Beste argumentu bat behar dugu beraz aurkitu.

Lehenik: Bekatoreak ez baldin badu jabego zibilik -hartaz mintzo baitira gure aurkariak- ez du ere beraz naturazko jabegorik. Ondorioa ordea ez da zuzena. Beraz... Eta frogatzen dut ondorioa: Jainkoarengatik dator alabaina naturazko jabegoa, jabego zibila bezala; areago oraino, giza zuzenbidezkoa da-eta jabego zibila. Ondorioz bada Jainkoa laidostatu duelako bere jabego zibila gal baleza gizonak, naturazko jabegoa ere berdin galdu behar luke. Baina ez da hori gertatzen, zeren ez du gizonak galtzen bere ekintza propioen jabegoa, ez bere gorputzarena; bekatoreak badu alabaina bere burua zaintzeko eskubidea.

Bigarrenetik: Izkribu Sainduak Errege deitzen dituzte frankotan gizon gaizto eta bekatore batzuk, hala nola Salomon, Akab, eta beste asko. Ez da bada jabe ez dena Errege izaten ahal; eta beraz....

Hirugarrenetik: Aurkarien argumentua bihur dezaket honela: Jainkoaren eitean oinarritzen da jabegoa; gizona ordea, bere naturari esker da Jainkoaren eitedun, erran nahi da bere adimen ahalei esker, eta ez da beraz galtzen bekatu mortalarengatik.

Tipia frogatzen da De Trinitate-n (l.IX), San Agustinek eta beste Irakasleek erakasten duten bezala.

Laugarrenekorik: Bere Jauna eta Erregea deitzen zuen Dabidek Saul, hau haren ondotik zebilen memento berean (1 Er 16 eta beste pasarteak). Dabidi berari gertatu zitzaion gainera bekatutan erortzea, baina ez zuen horrengatik galdu erregegoa.

Bostgarrenekorik: Izkribu Sainduetan irakurtzen da hauxe: "Errege pordoina ez da Judaganik urrunduko ez buruzagigoa haren odoletik, etortzekoa den hura etorri arte" (Hs 49,10). Eta bizkitartean Errege gaizto asko izan zen.

Seigarrenekorik: Izpirituzko boterea ez du galarazten bekatu mortalak. Are gutiago botere zibila; zeren botere zibila ez baita botere izpirituala bezainbat graziarengain oinarritzen. Aurrekariaren froga badugu, Apez gaizto batek Eukaristia sagaratzen ahal baitu eta Apezpiku gaizto batek Apezak egiten baititu. Eta hori Wicleffek ukatzen baldin badu ere, Armaghekoak onartzen du.

Zazpigarrenekorik: Azkenekotz, agindua zaigu printzeei obeditzea: "Zaudete nagusien menpeko, eta ez onen bakarrik, baita egoskorren ere" (Er 13,1 eta 1P2,18); eta agindua zaigu ere "besteek ez hartzea". Ez du bada itxurarik Jainko Jaunak dudan utz dezan nor zein diren printze eta nagusi egiazkoak.

Orobat heresia nabaria da iritzi hori: eta nola Jainkoak bere eguzkia jeikarazten baitu onentzat eta gaiztoentzat, eta bere euria jautsarazten zuzenen eta okerren gainera, berdin berdina lurreko ontasunak ematen ohi dizkie jende onei eta gaiztoei. Ez gara eztabaidan sartu, zalantzatan geundelako, baina itxuragabeko huts soil horrengatik ikas genezan heretiko guzien bereizten.

2. INDIOAK FEDEGABE?

Ikusiko dugu orain, fedegabeziak galarazten ote duen jabegoa.

Iduri luke behin baietz, zeren eta heretikoek ez baitute jabegorik. Beste fedegabeek ere ez, ondorioz; haien baldintzak ez direnez gero hobeak. Aurrekaria hartzen dugu Sextusetik (De Haereticis, Cum secundum) hor errana baita heretikoen ontasunak legeztatu behar direla.

Hona bada zer ihardesten dudan, proposizio bidez:

Lehen proposizioa: Fedegabeziak ez dio nehoi kentzen egiazko jabegorik.

Hori da San Tomas-ek ateratzen duen ondorioa Summa Theologica-n (II-II, q.10, a.12).

Eta frogatzen du, erranez:

1. Izkribu Sainduak Errege deitzen dituzte fedegabeak diren gizon batzuk; hala nola Sennakerib, Faraon eta beste errege franko.

2. Fedegabekeria baino larriago da oraino Jainkoaren herra, eta bizkitartean herrak ere ez du eragozten egiazko jabegorik.

3. Jondoni Paulok (Er 13,1.5) eta Jondoni Petrik manatzen dute printzeen menpe egotea -alta orduko printze guziak fedegabeak ziren- eta esklabuei eskatzen diete nagusiei obeditzea.

4. Tobiasek agindu zuen bere jabe arrotzei bihur zezaten, haiek emana zuten pittika, ebatsia izana zitekeelako beldurrez (Tb 2,20-21). Ez zuen eginen horrelakorik arrotz fedegabeek ez balute jabegorik izan.

5. Josepek egin zituen Egyptiar guziak Faraonen zergaduru, altabada Faraon hori fedegabea zen (Hs 47,20).

6. San Tomasek dio ez duela fedegabeziak kentzen ez zuzenbide naturala ez giza zuzenbidea, eta nola jabego horiek zuzenbide naturalari edo giza zuzenbideari doazkionak baitira, ez ditu fedegabeziak galarazten.

Azkenean, aitzinekoa bezain okerra da nabamenki iritzi hau. Eta

ondorioz, ez da zilegi ez Sarrazinoei ez Juduei ez beste fedegabei, beren ontasunen kentzea, fedegabeak direlako aitzakiarekin. Hori lapurketa edo ohointza litzateke, Kristauei egiten balitz bezala-bezala.

Bigarren proposizioa datorkigu heresiaren arazo berezietarik: Jainkozko zuzenbidearen arabera, ez du heretikoak bere ontasunen jabegorik galtzen.

Hori, denen iritzia da, eta bestalde, gauza nabarmena. Zigor bezala hartu behar da alabaina ontasunen kentzea eta Jainko legeak ez du zigorrik batere aipatzen kasu horretan. Argi dago beraz, Jainkozko zuzenbidearen arabera ez duela heresiak ontasunen jabegorik galarazten.

Proposizio hau bestalde, aitzinekoaren ondorioa baizik ez da, zeren eta fedegabeziak ez baldin badu jabegorik kentzen, heresiak ere ez duke kenduko, Jainkozko zuzenbidean ez baita deus berezirik erraten heretikoen kasuaz.

Baina zer erran, giza zuzenbidez mintzo baldin bagara?

Egiaz iduri luke Conrad Summenharten arabera, De contractibus (1.I, q.7, c.2 & 3), heretikoak galtzen duela "ipso facto" bere ontasunen jabegoa eta beraz, bere kontzientziaren aurrean ez duela jabegorik; ondorioz ez luke bere ontasunen saltzeko eskubiderik, eta sal balitza, haren saltzapenak ez luke baliorik. Hartzen du lekuko Cum secundum leges kapitulua, horretan baitu Aita Sainduak adierazten, legez finkatu krimena batzuen egileek galtzen dutela "ipso facto" beren ontasunen jabegoa; eta hori bera gertatzen dela heresiaren kasuan, zehazten du Aita Sainduak.

Iritzi bereko dugu, dirudienez, Joanes Andres¹⁹ Cum secundum leges delakoaren iruzkinean.

Eta Justinianoren Codex-etik (De Haereticis 4. legea) ondorio

bera atera daiteke, heretikoei debekatzen baitzaie beren ontasunen saltzea, emaita eta haiekin edozein tratu egitea.

Bestalde San Tomasek bere Summa Theologica-n (I-II, q.96, a.4) erakasten du kontzientziaren aurrean behartzen gaituztela legeek²⁰.

Hirugarren proposizioa aitzinatu behar dugu bizkitartean arazoa argitzeko: Bere krimen egin duen egunetik, ontasunen galtzeko zigorraren menpean dago heretikoa.

Hori da Irakasle gehienek iritzia eta Directorium Inquisitorum ²¹ (l.III, tit.9) eta Batista Trovamala-ren Summa Casuum²² (Absolutio hitza,17.§) deitu bi liburuen erakaspena. Hori bera ere, iduriz, Cum secundum leges kapituluak eta Justiniano-ren Codex-ak (De Haereticis, 4.legea) diotena.

Laugarren proposizioa: Krimen nabarmena izanarren, ez zaio fiskoari zilegi heretikoaren ontasunez jabetzea, kondena iragarri aitzin.

Hau ororen aburua,da, eta ere aipatu dugun Cum secundum leges kapituluaren erabakia. Gainera, zuzenbide naturalaren eta Jainkozkoaren aurka joatea litzateke nornahi zigortzea, kondenatu baino lehen.

Hirugarren proposizioaren ondorioa da, norbait hil ondoan kondenatu baldin bada, haren ontasunen konfiskazioa atzera itzultzen dela, krimena egin den momenturaino, nornahi izanik ere oraiko jabea.

Ondorio hori ere irakasle guziek onartzen dute, eta bereziki Palermoko apezpikuak²³, De Haereticis-en azken kapituluan.

Beste ondorio bat hauxe da: krimenaren egunetik landa heretikoak egin dituen bere ontasunen saltze, emaita eta beste erabiltze guziak, baliogabeak direla.

Horra zergatik kondenaren ondotik fiskoak oro deuseztatzen dituen eta erosiak zituztenei, deus ordaindu gabe, ontasunak bahitzen.

Hori ere guziek onartzen dute, Palermoko apezpikuak bereziki, erran den bezala.

Eta hori bera agertzen da Codex-ean (De Haereticis, 4. legea).

Bostgarren proposizioa: Kondenatua izan aitzin ordea, heretikoa bere ontasunen jabe da kontzientziaren aurrean.

Proposizio hau, dirudienez, Conrad Summenharten, Directorium Inquisitorum delakoaren eta Joanes Andresen erranen aurka doa. Baina horren alde daukagu Silbestro Prieriokoa²⁴ bere Summa-n (Haeresis hitza, I, §8).

Adrian VI.ak ²⁵ ere hori bera dio eta luzaki frogatzen du Quodlibet-n (6. q.2).

Eta Kaietanok iritzi berdina duela iduri du, bere Summula-n (Poena hitzean).

Hona zenbait froga :

1. Gauza hori bera hots, zure kontzientziaren aurrean zurea den zerbaiten galtzea, zigorra da. Ez zaio beraz neholaz nehorri horrelakorik egin behar kondenatu baino lehen. Ez dakit ongi bestalde giza zuzenbideak zuzenesten duenentz horrelakorik.

2. Horrela dira ere ontasunak konfiskatzen, "ipso facto", intzestuzko ezkontzaren kasuan, Cum secundum leges delako kapituluak argi erakusten duenaren arabera.

3. Eta berdin da, emazte lokabea, bahitua izanik, bere bahitzalearekin ezkontzen baldin bada.

Are gehiago, ohizko zergak ordaindu gabe erosketak sartu dituenari bere ontasunak konfiskatuko zaizkio "ipso facto".

4. Berdin egiten zaio, haizu ez diren gauzak, armak eta burdina adibidez, Sarrazinoei saldu dizkienari. Horiek oro garbiki agertzen dira, Cum secundum leges delako kapituluak eta ere Codex-ean (De Incestis Nuptiis, Cum ancillis legea; De Raptu Virginum, lege bakarra), Decretalia-etan (De Judaeis, Ita quorumdam) eta Digesta-etan (De Vectigalibus, azken legea).

Aita Sainduak gainera, Cum secundum leges delako kapituluak, hitzez hitz erraten du nahi duela, beste kasuetan bezala egin dadin konfiskazioa heretikoaren kasuan.

Ez du bada nehork ukatzen, intzestu egilea, emaztea bahitu duena, Sarrazinoei armak saldu dituen eta zergak ordaindu ez dituen, kontzientziaz, beren ontasunen egiazko jabe gelditzen direnik. Zergatik beraz ez litzateke berdin izan behar heretikoarentzat? Conrad ere berdin mintzo zaigu kasu horiez eta heretikoarenaz. Eta zinez garrantzegi litzateke, bere heresiatik gibelera itzulia den gizon bat, bere ontasunak fiskoaren eskutan uztera behartzea.

Eta ondorioak hauek dira:

1. Heretikoa haizu da bere ontasunak baliatuz bizitzera.

2. Haizu da ere bere ontasunak beste baten esku urririk uztera, hots norbaiti haien emaitera.

3. Ez da haizu ordea ontasunen dirutan uztera, hots haien saltzera edo dotean ematera, auzitara deitzen ahal baldin badute; zeren eta orduan, jakina, saltzailea kondenatua baldin bada, eroslea enganatzen baitu, eta bai ontasunak bai saria galtzeko arriskuan ezartzen.

4. Demagun azkenean konfiskazio arriskurik ez dela batere: zilegi litzaioke orduan heretikoari bere ontasunen dirutan uztea ere nornahiri. Hala nola Alemanian balitz, zilegi litzaioke katoliko bati, heretikoaren alorra erostea. Jasanezina litzateke alabaina, Luteroren herrian, katolikoa ez balitz haizu, heretikoari bere alorra saltzera, edo harena erostera. Hori behar genuke bizkitartean baitezpada aitortu, heretikoa ez balitz egiazki kontzientziaz, bere ontasunen jabe.

Ondorio guzien erakaspena hau da: ez beren fedegabeziarengatik, ez beren beste bekatu mortalengatik, ez dutela barbaroek galtzen beren ontasun pribatu ala publikoen egiazko jabe izateko

eskubidea. Ez dute ere beraz Kristauek horretaz aitzakiarik haien ontasun edo lurren eskuratzeko, Kaietanok luzaz eta ederki erakutsi duen bezala Summa Theologica-ren iruzkinean (II-II, q.66, a.8).

Ikusi behar dugu oraino barbaroek ez ote duten beren jabegoa galtzen, eroak edo mentsak direlaketz.

3. INDIOAK MENTS EDO ERO?

Jakin dezagun lehenik, adimen dun izan behar ote den, jabe izateko.

Conrad Summenhart-ek onartzen du, egia erran, De Contractibus-en (I.1, q.6), eta adimengabeko izakiak, sendikor izan ala ez, eskubide hori ukan dezakeela frogatzen du honela:

Gauza bat nork beretzat erabiltzeko eskubidea besterik ez da jabegoa. Abereek ordea badute belarren eta landareen erabiltzeko eskubidea: "Hona non eman dizkizuedan lurraren gainean hazitzen diren belar guziak eta beren hazia berekin dakarten zuhamu guziak, zuen eta lurreko bizidun guzien hazkurri izan daitezen" (Hs 1,29-30).

Eta berdin izarrek badute argitzeko eskubidea: "Jainkoak ezarri zituen zeruko ortzean, argi zezaten eta egunaren eta gauaren buru izan zitezen" (Hs 1,17-18).

Lehoinak ere badu nagusitasuna, badabiltzan animalia guzien gainean; horra zergatik deitzen den "Animalien Erregea".

Eta arranoa da txorien buruzagia; hortakotz salmuak dio: "Arranoaren egoitza da denetarik gorena" (103,17).

Iritzi bera agertzen du Silbestro Prieriokoak, bere Summa-n (Dominium hitzaren hastapenean), elementuek badutela, batzuek besteengan botere, erraten baitu.

Hona bada nik proposatzen ditudan erantzunak:

Hau da lehen proposamena: Adimengabeko izakiek ez dute jabegorik izaten ahal.

Jabegoa alabaina eskubide bat da, Conradek berak aitortzen duenez eta nola adimengabeko izakiek ez baitute eskubiderik, ez dute ere jabegorik izaten ahal.

Tipia frogatzen da, ez baitute delako izakiek bidegaberik jasaten ahal, ez eta beraz eskubiderik ere izaten ahal. Onartua frogatzen da, ez baitzaie bidegaberik egiten ez otsoari ez lehoinari, beren harrapakina kentzen zaielarik; ez eta ere idiari, bere bazka hartzen zaiolarik. Eta horrela, leihoa hersten duenak, ez dadin sar eguzkirik, ez dio bidegaberik egiten eguzkiari.

Anitz gisetara finka dezakegu gure proposizioa:

1. Abereek jabegorik baldin balute, oreinari belarra ken liezaiokeenak, lapurketa bat egin lezake, besteen ontasuna hartu duenez gero jabearen baimenik gabe.

2. Abere basek ez dute beren buruen jabegorik; are gutiago dute beraz besteen ontasunen. Onartua frogatzen da, zeren zilegi baita haien erhaitea, berdin nahitara, zigortua izan gabe. Horra zergatik Aristotelek dioten bere Politika-n (I.I) abereen ehizatzea zuzen dela eta legezko.

3. Abere basak eta adimengabeko izaki guziak gizonaren menpe dira, esklabuak baino askoz gehiago. Esklabuek bada ezin dute deus berenik izan; are gutiago beraz adimengabeko izakiek.

4. Hor ditugu ere berme San Tomasen idazkiak Summa Theologica-n (I-II, q.1, a.1&2; q.6, a.2) eta Contra Gentes-n (I.III, c.110). Adimendua baduen izakia baizik ez da izaten ahal bere ekintzen jabe, zeren eta, berak dioten bezala Summa Theologica-n (I, q.82, a.1, ad 3), "norbera bere ekintzen jabe da, hau edo hura egitea hautatzen ahal duen heinean". Horra zergatik dioten pasarte berean, ez garela gure lehiaren jabe gure azken helburuari buruz. Beren ekintzen jabe ez baldin badira beraz abereak, ez dira ere beste gauzen jabe izaten ahal.

Iduri luke menturaz, hiztegi solas baizik ez dela eztabaida hau; baina gisa oroz ez da batere egoki horrela hitzegitea, eta ohizko mintza

moldearen aurka joanez, izaki adimengabeen kondu ezartzea jabegoa. Ezen ez dugu erraten norbait zerbaiten jabe dela, zerbait hura haren eskutan baldin bada bakarrik. Honela mintzo gara alabaina, jabeak ez garelarik: "Ezin dut; ez dut ahal". Abereak ordean ez dira berak ibiltzen; baina izatekotz, besteek darabiltzate, San Tomasek dioen bezala (lehenago aipatu liburuan, I-II); horra zergatik ez duten ere jabegorik.

Eta ez du deus balio Silbestro Prioriokoaren argumentuak, baizik eta jabegoak ez duela batzuetan eskubidea adiarazten, baina ahal soila; eta horrela uraren jabe dela ura. Orduan, ahal soila aski baldin bada jabe izateko, gaiztaginak erailtzeko eskubidea izanen du, egiten ahal baitu; eta ohoinak ere, dirua hartzeko ahala badu. Eta erraten delarik "izarrek agintzen dutela", "lehoina errege dela", iduriz eta itxuraz mintzo gara, jakina.

Baina beste galde bat gogora heldu zaigu, ea haur bat adimendura heldu aitzin, egiazko jabe izaten ahal ote den. Ezen iduri luke adimengabeko izaki bat besterik ez dela haur hori. Apostoluak erraten baitigu: "Oinordekoa, haur deno, ez da esklabuaganik batere bereizten" (Ga 4,1). Esklabua bada, ez da jabe izaten ahal; haurra ere beraz ez, eta abar....

Bigarren proposamena dator orain: Adimendura heldu aitzin, haurrak jabe izaten ahal dira.

1. Nabarmen da, zeren haurrek bidegabea jasaten ahal baitute; eta beraz esku zerbait badute gauzen gainean; ondorioz jabego zerbait ere, eskubide bat baizik ez baita jabegoa.

2. Umezurtzen ontasunen jabeak ez dira haien tutoreak. Badituz

te ontasun horiek beren jabeak, eta ez dira ezezagunak; umezurtzak berak baizik.

3. Haurrak oinordeko gertatzen dira. Oinordekoa bada, hilaren eskubideak izaten dituen eta ondoriotasunaren jabe dena da, idatzia den bezala: ikus Digesta (De Diversis Temporalibus Praescriptionibus, Cum haeres, legea) eta Institutes (De Heredum Qualitate et Differentia, § azkena).

4. Erran dugunaren arabera, Jainkoaren eitea da jabego eskubidearen oinarria. Eite hori ordea, haurren baitan ere aurkitzen da. Eta Apostoluak pasarte berean dio: "Oinordekoa, haurra deno, ez da batere esklabuaganik bereizten, nahiz ontasun guzien jabea den"(Ga,4,1). Adimengabeko izakientzat aldiz ez da berdina; haurra ez baita beste batentzat; beretzat baizik.

Zer erranen dugu bada eroez? Eromen iraunkorrez gara mintzo; zentzua galdurik, berreskuratzeko menturarik ez dutenez.

Hirugarren proposamena izanen da: Eroak ere jabe izaten ahal dira.

Zeren bidegabea jasaten ahal baitute haiek ere, eta beraz eskubideak badituzte. Legelarien gain uzten dut zehaztea jabego zibilik izaten ahal ote duten ala ez.

Dena dela... Hona laugarren proposamena: Ez, alde horretatik ere Indio barbaroek ez dute jabe egiazko izateko eragozpenik.

Zeren eta, gauzak diren bezala ikusi-eta, ez dira eroak, baina beren gisako adimendua badute. Hona frogak:

1. Beren gauzetan ordena zerbait ematen dute; beren hiriak badituztenez gero, ordena horren arabera eraikiak. Ezkontza zer den badakite; epaileak, buruzagiak, legeak, artelanak, negozioak badituzte eta horiek oro ez ote dira adimenduaren adierazgarri?

2. Badute ere halako erlisione molde bat.

3. Beste gizon guzientzat argi diren gauzetan ez dira galtzen; adimendua ageri baita horretan.

4. Edozein izaki motako talde handi bati ez dio baitezpadakoetan hutsegiten ez Jainkoak ez naturak; gizonen baitan ordea, adimendua da beharrena, eta deus ez du balio gauzatzen ez den ahalmenak.

5. Salbamendutik bazter utziak izanen ziren, hainbeste mila urtez, beren hobenik batere gabe, bekatuan jaiorik eta bataiorik gabe egonik, salbamenduak eskatzen dituen beharrezko gauzen bilatzeko, adimendurik ere ez dutela ukan, onartu behar bagenu. Hain mentsak eta lausoak iduritzen baldin bazaizkigu, uste dut hori heldu zaiela gaizki eta basaki heziak izatetik bereziki: gutartean ere ikus ditzakegu baserritar franko, abereenganik nekez bereizten ditugunak.

ONDORIOAK

Erran guzietarik datorkigu batere dudarik gabe, Indio barbaroek bazutela, Kristauek bezala, beren ontasunen egiazko jabego bai pribatua bai publikoa, eta neholaz ere ez dizkiote beren ontasunak kendu ahal izan, ez hango Printzei ez hango Herritarrei, egiazko jabeak ez zirelako aitzakiarekin. Izigarri handi litzateke, egundaino kalterik egin ez diguten jende batzuei ukatzea, beti kristau erlisionearen etsai izan diren Sarrazinoei eta Juduei onartzen diegun hura bera. Onartzen dugu alabaina beren ontasunen egiazko jabeak direla horiek oro, non ez diren Kristauen lurretan bestalde sartu.

Behar dugu oraino kontrako argumentu batzuei ihardetsi, barbaroak sortzetik esklabuak direla erraten baitzizaigun, baizik eta ez direla aski argiak beren buruen gobernatzeko.

Argumentu horri ihardesten diot, Aristotelek ez duela eiki adierazi

nahi, biziki argiak ez diren gizonak, besteen menpeko direla zuzenbide naturalez, eta ez dutela ez beren buruen ez kanpoko ontasunen jabegorik. Esklabutza zibilaz mintzo da; esklabugo hori legezkoa da eta ez du nehor zuzenbide naturalez esklabu egiten. Gizaki batzuk baldin badira sortzez hain argiak ez direnak, ez du Aristotelek erran nahi, haizu dela haien ontasunez eta haien ondoriotasunaz jabetzea, haiek berak esklabutzat hartzea eta haiek berdin salgai ezartzea. Baina nahi du irakatsi, jende horiek behar dituztela nahitaez eta beren jitez beste batzuek gobernatu eta gidatu: berek on baitute besteen menpe egotea, haurrak haur direno burasoen meneko egon behar diren bezala, eta emaztea ere senarraren menean.

Argi dago hori dela Aristoteleren xedea, zeren erraten baitu bestalde molde berean, gizaki batzu badirela zuzenbide naturalez jaunak direnak, hots beren argiaz distiratzen dutenak. Ez du erran nahi, jakina, berak zuhurrenak direlako badutela horrelako jendek besteen gobernua hartzeko eskubidea, baina bai soil-soilik badutela jitez besteen manatzeko eta gidatzeko dohaina.

Eta beraz, delako barbaro haiek, erraten duten bezain zoro eta lauso direla onarturik ere, ez zaie horrengatik egiazko jabegoa ukatu behar, eta ez dira ere legezko esklabutzat hartzen ahal. Eta haien menperatzeko zerbait estakuru hortik atera baledi, puntu hori argituko dugu urrunago.

Orain bada ondorio hau agertzen da argi eta garbi: **ESPAINOLAK ETORRI AITZIN, INDIOEK BAZUTEN EGIAZKO JABEGOA, BAI PRIBATUA, BAI PUBLIKOA.**

BIGARREN ZATIA

Mundu Berriko Barbaroak Espainolen menpera biltzeko erabili ziren bidegabeko arrazoiak

Barbaroak beren ontasunen egiazko jabeak zirenez gero, ikusi behar da oraino zer esku zuten Espainolek haien menperatzeko edo haien lurraldeaz jabetzeko.

Ikertuko ditut lehenik aurkeztu ahal izan dituzten arrazoi batzuk, ez direnak ordea ez egokiak ez zuzenak. Gero ekarriko ditut barbaroen eskuratzeko Espainolek erabili ahal izan dituzten arrazoi zuzenak. Zazpi arrazoi badira aitzinatu izan direnak, baina egokiak ez direnak; eta beste zazpi edo zortzi, legezkoak eta zuzenak.

LEHEN ARRAZOIA litzateke Enperadorea dela mundu osoaren jabea.

Bai lehenago izan zen hor menturaz zerbait makur, baina geroztik, gure Zesar hain Enperadore giristinoa dugunez gero, makur hori zuzendu da. Egiazko jabeak Indioak direla onarturik ere, jabe horiek izaten ahal dituzte goragoko jaunak, behereko Printzeek Erregea baduten bezala eta Errege batzuek berriz Enperadorea; zeren zenbait pertsonak izaten ahal baitute eskua ontasun beraren gain; horra zergatik legelariak egiten dituzten hiru bereizketa hauek: Jabego goikoa eta beherekoa, zuzena eta erabilgarria, soila eta mistoa.

Jakin behar da beraz delako barbaroek ba ote zuten goragoko jaberik. Eta nola jabe hori ez baita izaten ahal Enperadorea edo Aita Saindua baizik, bi horiez izanen da solas.

Iduri luke behin mundu osoaren jabea dela Enperadorea eta beraz hura dela barbaroen jabea ere.

1. Ikus bedi nola erraiten zaion Enperadoreari: "Maximiliano Jainkoazkoari", edo, "Karlos beti Goresgarriari, munduaren Jabeari"²⁶.
2. "Egun haietan -dio San Lukasek- mundu guziaren izenak hartzeko agindua atera zen Zesar Augustorengandik" (Lk 2,1). Eta Enperadore kristauen eskubideak ez ahal dira gutiago. Beraz...
3. Jesus Jaunak onartzen zuen, dirudienez, Zesar zela Juduen nagusi egiazkoa, erran baitzuen: "Emaiozue bada Zesarri Zesarrena" (Lk 20,25). Zesarrek ordea ez zezakeen izan eskubide hori, Enperadore zelako baizik, eta beraz... Bartolok²⁷ erraten du horretaz garbiki Enrike VII. aren Ad Reprimendum konstituzioaren iruzkinean Enperadorea dela zuzenez mundu osoaren jabea. Hori bera dio (Qui filii sint legitimi) Per Venerabilem kapituluaren Glosak. Iritzi berdina azaltzen du luzaki (De Electione) Venerabilem kapituluaren Glosak. Eta lekuko hartzen dira: Lehenik Decreta (C.VII,q.1, c. In Apibus) non San Jeronimok erraten baitu erleek Erregina bakar bat duten bezala, mundu osoak ere Enperadore bakarra duela. Bigarrenik Digesta (De lege Rhodia, Deprecatio legea) non Antonino Enperadoreak erraten baitu: Bai ni naiz munduaren jabea. Eta azkenik Codex (De Quadriennii Praescriptione, Bene a Zenone legea) non erraten baita: Denak Printzearenak direla uste izateko da.
4. Frogatzen ahal liteke oraino, dirudienez, Adam lehenik eta Noe ondotik munduaren jabe izan zirelako: "Gizona egin dezagun gure iduriko eta gure eiteko, eta izan bedi itsasoko arrainen, zeruko xorien eta lur guziaren nagusi" eta abar, idatzia baita (Hs 1,26). Eta urruntxeago: "Ugari zaitezte, bete lurra eta menpera ezazue" (Hs 1,28). Gauza bera erran izan zaio, hitzez hitz, Noeri (Hs 8,17). Adamek eta Noek ordea, ondokoak izan dituzte, eta beraz...
5. Ezin da asmatu Jainkoak ez duela munduan ezarri gobernurik hoberena: "Zuhurtziarekin egin dituzu guziak", dio Salmogileak (103,24). Gobernurik hoberena ordea monarkia da, San Tomasek ederki

dioen bezala De Regimine Principum (1.I,c.2) liburuan eta iduri luke iritzi bera duela Aristotelek bere Politika-n (1.III). Onar dezakegu beraz Jainkoaren nahiaren arabera, Enperadore bakarra behar dela izan mundu osoan.

6. Naturalak ez diren gauzek natura imitatu behar dute azkenean. Naturazkoetan, ordea badugu beti buruzagi bakarra, hala nola gorputzean bihotza eta ariman adimena. Eta nola Jainkoa bakarra den, munduan ere jabe bakarra izan behar da.

Baina iritzi horrek ez du nehongo oinarri sendorik. Horra zergatik LEHEN PROPOSIZIOA honela den: Enperadorea ez da mundu osoaren jabea.

Ezen ez da jabegorik izaten ahal edo zuzenbide naturalez, edo Jainkozko zuzenbidez edo giza zuzenbidez baizik. Baina erakutsiko dugu horietarik bihi batek ez duela Enperadorea munduaren jabe egiten. Eta beraz...

1. Tipia frogatzen da lehenik zuzenbide naturalaren arabera:

1. San Tomasek alabaina zuzen dio bere Summa Theologica-n (I,q. 92, a.1, ad 2; q.96, a.4), zuzenbide naturalez, gizonak libro direla, aiten eta senarren eskubideetarik landa, zeren eta zuzenbide naturalez aitzak baitu eskua bere haurren gainean eta senarrak bere emaztearen gainean. Nehork beraz ez du eskurik mundu osoaren gainean zuzenbide naturalez .

2. Liburu berean (II-II, q.10, a.10), San Tomasek dio ere, giza zuzenbideak dituela boterea eta nagusigoa sortzen eta ez direla beraz natura zuzenbidezkoak. Ondorioz ez dute zergatik botere hori Alemanek eskura, Frantsesek baino lehen.

3. Azkenik Aristotelek erraten du Politika -n (1.I) bi botere badirela: bata etxekoa, hots, aitzak haurren gainean duena eta senarrak emaztearen gainean eta bestea herrikoa. Lehena naturala da. Bigarrena ere naturaleztatik

dator eta horrela erran dezakegu natura zuzenbidezkoa dela, zeren San Tomasek De Regimine Principum (1.I,c.1) liburuan dioen bezala, abere herrikoia edo zibila baita gizona. Bizkitartean ez du naturak zehazten, legeak baizik, botere hori.

2. Gero Jainkozko zuzenbidearen arabera:

Kristo gure Salbatzailea etorri aitzin, Enperadoreak munduaren jabe izan direlakorik ez dugu irakurtzen Liburu Sainduetan.

Bartolok, egia erran, Ad Reprimendum konstituzioaren iruzkinean iritzi hori onartzen du, Nabukodonosorreatik, idatzia baita: "Zu zara Erregeen Errege, zuri eman dizu Erregetza Zeruko Jainkoak, bai eta indarra, loria, agintea eta giza seme-alabek betetzen dituzten bazter guzien jabegoa"(Dn 2,37-38). Bizkitartean ikusi behar da ez diola Jainkoak agintea eman Nabukodonosorri molde berezi batez, beste Printze guziei bezala baizik, ezen Jondoni Paulok erraten du, "Ez dela botererik Jainko Jaunarenganik baizik" (Er 13,1). Eta Erran Zaharretan aurkitzen dugu haxe: "Niregatik dira Erregeak errege eta niregatik dute zuzenbidea markatzen Legelariak" (EZ 8,15). Bestalde, zuzenez, Nabukodonosorrek ez zuen izan mundu osoaren jabegorik, Bartolok uste duen bezala, zeren Juduak ez baitziren zuzenbidez haren menpe izan.

Jainkozko zuzenbidez ere nehor ez dela izan mundu osoaren jabe, hori argi da, zeren Judu herria, edozein jabe arrotzetarik aske baitzen. Bere legeak berak debekatzen zion edozein jabe arrotzen onartzea: "Ez duzu beste herri batetako Errege arrotzik hartuko" (Dt 17,15). San Tomasek, egia erran, De Regimine Principum-ean (I.III,c.4&5) dio, itxuraz, Jainkoak Erromatarrei Inperioa eman ziela beren zuzentasunarengatik, herriarenganako maitasunarengatik eta egin zituzten lege paregabeengatik.

Baina ez du horrek erran nahi Inperioa bazeukatela Jainkoaren emaitza berezi batengatik edo Haren eskutik. San Agustinek dioten bezala De Civitate Dei (1.XVIII) liburuan, ikusi behar da, Jainkoaren Probidentziak egin zuela mundu osoaren jabegoa eskura zezaten Erromatarrek, baina beste bide berezi batez, gerla zuzen baten bidez edo beste molde batez, eta ez Saul eta Dabidek beren erregetza Jainkoarenganik izan zuten legez. Eta hori normahik ikus dezake errazki, inperioak eta erreinuak gure menderarte nola iragan diren munduan ikertuz gero.

Beude bazter uholdea baino lehen gertatuak.

Ez da dudarik, Noeren ondotik, probintziak eta erresumak zatitua izan zela mundu osoa. Noek berak agindu zuen zatiketa hori, 350 urte bizi izan omen baitzen uholdearen ondotik (Hs 9,28), eta Berosio Babiloniakoak ederki erakusten duen bezala, bazter anitzetan koloniak jarri baitzituen.

Edo bestela -itxura denez- jendek elkar aditu zuten horrelako familiak horrelako probintzietan jar zitezen. Abrahamek erran zion horrela Lot-i: "Lurralde guzia aitzinean duzu. Ezker baldin bazoaz, ni eskuin; eskuin baldin bazoaz, ni ezker" (Hs 13,9). Horra zergatik Hasera-k dioten (Hs 100) Noeren ilobasoek zituztela bereizi erresumak eta eskualdeak.

Tiranoekin hasi ziren eskualde batzuetan, hala nola, izan zen, dirudienez, Nemroden kasua; hura lehen gizon puxanta izan zela lurraren gainean, erraten baitigu Hasera-k (Hs10,8).

Edo oraino gizon batzuk elkarretaratu ziren erresuma bakar bat sortzeko eta elkar aditu zuten Printze beraren hautatzeko.

Dena den, ez da dudarik, honela edo horrelatsu sortu zirela erreinuak eta inperioak munduan. Ondotik ondoriotasun zuzenbidez edo gerla zuzenbidez edo beste moldez heldu izan dira gutaraino, Salbatzailea etorri arte bederen.

Argi ageri da beraz, Jesus etorri arte, nehork ez duela izan, Jainkozko zuzenbidez, munduaren jabegorik. Horra zergatik ez duen Enperadoreak arrazoi hori erabiltzen ahal, ez mundu osoaz jabetzeko, ez eta ere beraz barbaroez.

Baina Jesus Jauna etorri ondoan, norbaitek erran dezake, ez dela Enperadore bakar bat baizik munduan Kristoren ordezkatzeko. Kristo munduaren jabea izan baita bere gizatasunaren arabera, Berak dioenez gero Ebanjelioan; "Aginpide oso-osoa emana izan zait niri" (Mt 28,18). Eta San Agustinen eta San Jeronimoren iritziz Haren gizatasunaren arabera entzun behar da erranaldi hori.

Jondoni Paulok ere erraten du: "Guziak haren oinazpian ezarri dituela Jainkoak" (1Kor15,27). Ondorioz, ondoko bakarra utzi baitu lurrian Jesusek zeregin izpiritualendako, ondoko bakarra utzi du ere halaber zeregin tenporalendako, eta hura Enperadorea da.

Sortzetik beretik, dio San Tomasek, De Regimine Principum-en (1.III,c.13) mundu osoaren Erregea eta egiazko Jabea, Kristo zen; eta Augusto Enperadoreak Hura zuen jakingabea ordezkatzeko. Argi dago bada ez zuela zeregin izpiritualentzat ordezkatzeko, baina bai zeregin tenporalentzat. Kristok bestalde, erreinu tenporalik izan baldin badu, lur osoa hartu behar zuen Haren Erreinuak; Augusto ere beraz mundu osoaren

jabea zen eta zuzenez haren ondokoak berdin.

Baina ez da nehondik ere horrela mintzatzen ahal:

1. Lehenbizikorik jakin behar da egiazki Kristo izan denentz, bere gizatasunaren arabera, mundu osoaren jabe tenporala. Eta badirudi, ezetz ihardetsi behar dela. Jaunak berak gainera ez ote digu hori bera adierazi, erran duelarik: "Ene erregetza ez da mundu honetakoa" (Jn 18,36). Horra zergatik, dio San Tomasek pasarte berean, Kristoren boterea itzulia den, zuzenean, arimen salbamenari eta ontasun izpiritualei buruz. Ez da bizkitartean ontasun tenporaletarik osoki bazter utzia, hauek ontasun izpiritualei nolazpait lotuak diren heinean bederen. Argi dago beraz, San Tomasen arabera, ez direla parean eman behar, Kristoren Erregetza eta erregetza zibila edo tenporala.

Ikusten da alderantziz, gure Erospenari buruz, Kristok botere osoa badaukala ontasun tenporaletan ere. Horretarik landa ordea, ez du botere tenporalik batere.

Demagun bestalde botere tenporal zerbait izan duela Jesus Jaunak. Gero botere hori Enperadoreari utzi diola erratea, ametsetan ibiltzea da, ezen Liburu Sainduek ez dute nehon neholaz ere horrelakorik aipatzen.

San Tomasek bestalde, De Regimine Principum-en erraten du Kristo ordezkatzan zuela Augusto-k, baina Summa Theologica-ren Hirugarrenean (III, q.59) Kristoren botereaz diharduelarik ex professo, ez du orduan Haren botere tenporalik aipatzen ere.

2. Bigarrenekorik San Tomasek erran nahi du, Augustok Kristo ordezkatzan zuela, botere tenporala botere izpiritualaren zerbitzuko eta haren menpe dagoen neurrian²⁸.

Erregeak adibidez apezpikuen zerbitzuko dira, arotzen ofizioa

zaldunen eta gerlarien ofizioen zerbitzuko den bezala: soldadua edo buruzagia ez da arotza, jakina; baina hark dio manatzen arotzari armak egin diezazkion.

Jondoni Joaniren iruzkinean (Jn 18, 36) San Tomasek erraten du, argi eta garbi, Kristoren erreinua ez dela erreinu tenporala, ez eta ere Pilatosek asmatzen zuena bezalakoa, baina bai erreinu izpirituzkoa; Jesus Jaunak berak erran baitu honela "Zeuk diozun bezala errege naiz; horretarako naiz jaio eta horretarako bakarrik naiz mundu honetara etorri; egiaren lekuko izateko" (Jn 18,37). Horrela beraz, Kristoren izenean, mundu osoaren jabe eta enperadore bakar bat baizik ez dela erratea, amets hutsa besterik ez da.

Baditugu bestalde egia horren berme ageriak:

1. Jainkozko zuzenbidez Enperadorea balitz mundu osoaren jabea, nola bada zatitu ahal izan da Inperioa bi zatitan, Ekialdeko Inperioa eta Mendebalekoa, Konstantinoren semeen artean, eta geroago berriz Estebe Aita Sainduak eman duelarik Germaniarren eskutan Mendebaleko Inperioa, Per Venerabilem aipatu kapituluan errana den bezala?²⁹ Zeren, zorokeria da eta gezurra, Glosak³⁰ horretaz dioena, baizik eta Grekoek ez zutela orduz geroz Enperadorerik izan, eta Enperadore Germaniarrak ez zirela egundaino aitzakia horrengatik Greziaz jabetu nahi izan. Florentziako Kontzilioan aitzitik onartu egin zen Konstantinopoliseko Enperadore legezkoa Joanes Paleologo bera zela.

2. Legelari guziek -Bartolo bera barne- onartzen dute Elizaren ondarea ez dela Enperadorearen esku.

Gauza guziak Jainkozko zuzenbidez Enperadorearen esku balira,

ez Enperadoreen emaitza batek, ez beste deusek, ez luke zerbait kentzen ahal Enperadorearen eskumenetik; ezen Aita Sainduak berak ere ez diezaioke deus ken Aita Sainduaren eskumenari.

3. Espainiako Erreinua ez dago Enperadorearen menpe. Ez eta Frantziakoa ere; Per Venerabilem delako kapituluan aitortzen den bezala; nahiz Glosak eransten duen, bere burutarik, ez dela hori horrela gertatzen zuzenbidez, egitatez baizik.

4. Irakasleek aitortzen dute, badirela herriak, lehen Inperioaren menpe izanik, ohituraren izenean Inperiotik itzuri zirenak. Ez zen bada horrelakorik gertaturen haien menpekotasuna Jainko zuzenbidezkoa izan balitz.

3. Giza zuzenbidez ere argi dago Enperadorea ez dela mundu osoaren jabea.

Horrela balitz alabaina, lege bidez litzateke. Ez dugu ordea horrelako legerik ezagutzen. Eta balitz ere, ez luke lege horrek indarrik. Edozein legek behar du alabaina eskumen zerbait oinarri. Legea egin aitzin beraz, Enperadoreak ez baldin badu mundu osoaren gainean eskumenik, ez da izanen legerik, menpeko ez direnak behartzen ahalko dituenik.

Argi dago bestalde Enperadoreak ez duela izan horrelako eskumenik ez ondoriotasun zuzenez, ez ukantzaz, ez trukadaz, ez erospenez, ez gerla zuzenez, ez hautespenez, ez beste edozein bide zuzenez, eta ez dela beraz Enperadorea, egundaino mundu osoaren jabea izan.

Eta hona BIGARREN PROPOSIZIOA: Onartzen balitz ere mundu osoaren jabe dela Enperadorea, ez luke horrengatik eskubiderik ez barbaroen lurraldeez jabetzeko, ez buruzagi berrien ezartzeko, ez zaharren kentzeko, ez eta ere zergen altxatzeko.

Honela frogatzen da:

Enperadorea mundu osoaren jabea dela dioten Irakasleek berek ez dute erraten, munduko ontasun guzien jabe bakarra dela, denetan

esku duela baizik, baina eskumen hori ez da heltzen herrialde guziak bere probetxu propiotan erabiltzera, ez eta ere hirizainduak edo berdin lurraldeak nolanahi barreiatzera. Eta ondorioz, argi dago ez dutela Espainolek, arrazoi honengatik Indioen lurraldeez jabetzeko eskubiderik.

BIGARREN ARRAZOA aitzinatzen dena eta bortizki argudiatzen, hauxe da: Lurralde haiez jabetzeko eskua, Aita Sainduari dagokio.

Erraten da orduan, Aita Saindua dela mundu osoaren erregea, tenporalean ere; eta beraz barbaro haien eta haien lurraldeen buru Espainiako Erregeen ezartzeko eskubidea bazuela. Eta hain zuzen hori egin duela.

Dena den, legelari batzuen iritzia da Aita Sainduak baduela zeregin tenporaletan ere eskumen osoa mundu guzian.

Gehiago oraino, uste dute munduko printze guziek harenganik daukatela beren boterea:

Horrela dira mintzo, Ostiako apezpikua³¹, Decretalia-ren iruzkinean (De Voto izenburuaren Quod super his capituluan), San Antonino³², bere Summa Theologica-n (III-22, c.5, §8), eta Agustin Ankonakoa³³.

Gisa berean, bere Summa liburuan, Silbestro Prieriokoak (ikus Infidelitas, §7; Papa, §7,10,11,14; Legitimus, §4 hitzak) botere hori ematen dio Aita Sainduari, eta biziki errazkiago eta nasaikiago oraino.

Harrigarriak erraten ditu pasarte horietan: adibidez enperadoreak eta beste printze guziek, beren boterea Aita Sainduaren meneko ordezkari bezala ukana dutela eta Aita Sainduaren bitartez izan dutela Jainkoarenganik. Haien botere guzia Aita Sainduaren gomendio dagoela.

Konstantinok bere lurren emaitza egin ziola Aita Sainduari, haren jabego tenporala onartzen zuela adierazteko; baina Aita Sainduak Inperioa eman ziola Konstantinori, gozamenetan eta laguntza sari. Konstantinok, egia erran, ez omen du deus eman, baina itzuli bakarrik, jabeari lapurtua ziona. Eta Aita Sainduak ez baldin badu ere bere eskumen tenporala erabiltzen Elizaren ondare-mugen haraindian, ez da ez ahalmen eskasez, Juduei ez dakien gaitzi baizik, eta bakearen amorez. Beste horrelako ele alfer eta ments baino mentsagoko franko erraten ditu oraino.

Hona nola argudiatzen duten gure legelariak: "Jaunarenak dira, lurra eta hartan direnak oro", dio salmugileak (24,1). Eta Jesusek erran du: "Aginte osoa emana izan zait Niri, zeru-lurretan" (Mt 28,18). Eta idatzia da ere: "Kristok apaldu zuen bere burua, hiltzeraino ezarri menpeko" eta abar... (Fil 2,8). Aita Saindua ez ote da bada Jainkoaren eta Kristoren ordezkoa?

Iritzi berdina du, dirudienez, Bartolok, Ad reprimendum Konstituzioari egin dion iruzkinean: alde baitu, bere ustez San Tomas, Sententiarum bigarren liburukiaren iruzkinean erraten duelarik (liburuaren azkenean den laugarren argumentuari erantzuteko azken hitzetan), Aita Saindua bi botereen, botere izpiritualaren eta botere tenporalaren gailurrean aurkitzen dela.

Eta aburu bera agertzen du, De Potestate Ecclesiae liburuan, Hervé Nedellecekoak³⁵.

Oinarri horiek ezarri-eta gero, honela diote:

1. Aita Sainduak, mundu guziko buruzagi goiena delako, bere nahitara eman ahal izan ditu Espainiako errege erreginak barbaroen Printze kargutan.
2. Demagun ez duela ahal Aita Sainduak, eta barbaroek ez dutela

onartu nahi haren nagusitasun tenporala, badugu hor aski haiei gerla egiteko eta gure Printzeen onartarazteko.

Bi gauza hauek gertatu dira: Lehenik Aita Sainduak eman dizkie lurralde haiek Espainiako errege-erreginei. Gero jakinarazi zaie barbaroei eta adiarazi Aita Saindua dela Jainkoaren ordezkoa eta Haren ordaina lurrean, Onar bezate beraz Aita Sainduaren nagusitasuna! Ez badute nahi, jakin bezate, gerla izanen dutela eta lurak galduko dituztela, zuzen den bezala. Horra zer dioten garbiki Ostiako apezpikuak, gorago aipatu dugun liburuan eta Summa Angelica-k.

Nola mintzatu naizen luzaki Aita Sainduaren botere tenporalaz De Potestate Ecclesiastica deitzen den irakaspenean, hemen proposamen labur zenbait emanen ditut orain.

LEHEN PROPOSIZIOA: Aita Saindua ez da mundu osoaren jabe zibila edo tenporala, jabego eta botere zibilaz, zentzu hertsian mintzo baldin bagara bederen.

Hau da Torquemadaren³⁶ iritzia (2.liburuan, 113.kapituluan), eta Joanes Andresena eta Hugucciorena³⁷ ere Grazianoren Decretum-en iruzkinean (69.dist., c.Cum ad verum).

Inozentzio III.³⁸ Aita Saindu hain jakintsuak berak aitortzen du Per Venerabilem delako kapituluan ez duela botere tenporalik Frantziako erreinuaren gainean. Eta itxuraz aburu berdina agertzen du San Bernatek³⁹, Eugenio Aita Sainduari bidali zion De Consideratione gutunean (2. liburuan).

Beste iritzia aldiz kontrajartzen zaio Jaunaren agindu honi: "Badakizue herrietako buruzagiek beren menpe hartzen dituztela beren herriak... Ez bedi horrela izan zuen artean" (Mt 20,25-26 & Lk 22,25-26). Bai eta Jondoni Petri apostoluaren honi ere: "Alha zazue Jaunaren artal-

dea, zuen esku dena, ez jauntxoek bezala, baina artaldearen irakaskari bilakatuz" (1P5,3).

Jesusek bada ez zuen itxuraz botere tenporalik izan, jadanik erran dugunaren arabera, eta San Tomasi deritzon bezala. Are gutiago izanen du ondorioz Aita Sainduak, Kristoren ordezkaria besterik ez baita. Aita Sainduari gure aurkariak eman nahi diote ordea berak bere buruari behin ere eman ez dion boterea. Aita Sainduak berak gainera aurkako iritzia agertzen du anitz idazkitan, beste irakaspen batean erran dudan bezala⁴⁰. Enperadorearen kasuan egin den bezala froga daiteke, zeren Aita Sainduak ere ez du boteririk izaten ahal edo zuzenbide naturalez edo Jainkozko zuzenbidez edo giza zuzenbidez baizik. Neholaz ere ez da izanen ez zuzenbide naturalez ez giza zuzenbidez. Jainkozko zuzenbidez datekeela ere ez dugu nehon frogarik. Erraten da beraz, nolanahika, eta funtsik gabe batere.

Hor dugu bestalde Jesusek Petriri erran ziona: "Bazka itzazu ene ardiak" (Jn 21,17), ikusteko aski garbiki, botere izpiritualaz diharduela eta ez tenporalaz.

Argi dago Aita Saindua ez dela mundu osoaren jabea, zeren Jesus Jaunak erran baitu munduaren azkenean "artalde bakar bat izanen dela eta artzain bakar bat" (Jn 10,16), eta beraz anartean ez dira ardi guziak artalde berean izanen.

Eta oraino argi dago botere tenporalik izan baldin badu ere, Jesus Jaunak ez diola bederen Aita Sainduari utzi. Ezen Aita Saindua Kristoren ordezkaria da zeregin izpiritualentzat, tenporalentzat bezainbatean. Baina gure aurkariak aitortzen dutenez eta Jondoni Paulok idatzi duenez gero: "Niri ote dagokit kanpokoan epaitzea?" (1Kor 5,12), ez du Aita Sainduak eskumen izpiritualik fedegabeen gainean; ez eta ere beraz eskumen tenporalik.

Beste argumentu honek ordea ez du deus balio: Jesusek izan zuen mundu osoan botere tenporala, eta beraz, Aita Sainduak ere ba-

dauka orai botere bera. Ezen ez da dudarik botere izpirituala izan zuela Jesusek mundu guzian, fededunen gainean bezala fedegabeen; eta ondorioz, mundu osoarentzat egin ditu lege berriak, hala nola Bataioaren legea eta Fedezko artikulua. Bizkitartean Aita Sainduak ez du botere bera fedegabeen gainean: ez ditu haiek eskumikatzen ahal, ez eta ere Jainkozko zuzenbideak zilegi dauzkan mailetan haien ezkontzak eragozten ahal. Beraz...

Azkenean, Irakasleen arabera, Jesus Jaunak ez die Apostoluei bere "bikaintasun" ahalmena⁴¹ ere utzi. Ez du beraz itxurarik erratea: Jesusek botere tenporala bazuen gero, Aita Sainduak ere izan behar du.

BIGARREN PROPOSIZIOA: Mundu osoaren nagusi tenporala balitz ere Aita Saindua, ez luke bere boterea munduko printzei ematen ahal.

Botere hori alabaina Aita Saindu karguari lotua litzateke eta ez lioke Aita Saindu batek bere karguari kentzen ahal ezta ere bere ondokoari edekitzen; zeren ez baita ondoko Aita Saindua aitzinekoa baino gutiago eta beraz, batek egin baleza horrelako botere emaitzarik, edo emaitzak ez luke deus balio, edo ondokoak deuseztatzen ahal luke.

HIRUGARREN PROPOSIZIOA: Aita Sainduak badu, zeregin izpiritualei buruz ordenaturikako botere tenporal doa; erran nahi da, zeregin izpiritualez arduratzeak eskatzen dion doi hura.

Hori da Torquemadaren (I.II,c.114) eta beste Irakasle guzien aburua.

Ezen Aristotele-n arabera, Etika-n (l. I), goiko helburuei itzulia den ekintzak agintzen ditu eta zuzentzen menpeko helburuetara doazen urratsak. Botere izpiritualaren helburua bada, haraindiko zoriona da; botere zibilaren helburua berriz gizartearen zoriona. Eta ondorioz, botere tenporala, izpiritualaren menpe dago.

Argumentu bera darabil Inozentzio III. Aita Sainduak, Solitae izeneko kapitulan (De Majoritate et Obedientia).

Bestalde gure erantzuna finkatzen dugu honela: kargu baten ardura norbaiti eskaintzen zaiolarik, karguaren zuzen betetzeko behar dituen guziak eman ohi zaizkiola, onartzen da (De Officio Delegati, c.1), Aita Saindua ordea artzain izpirituala da, Kristoren mandatuz, baina botere zibila oztopo edo poxelu izan dezake kargu horretan; Jainkoak bada, eta naturalezak, ez dute hutsegiten ezinbestean. Argi dago beraz, Aita Sainduari eman izan zaiola botere tenporal doia, ontasun izpiritualen gobernatzeko behar den neurrian.

Horra zergatik Aita Sainduak deusezten ahal dituen bekatu-bide diren lege zibilak; deuseztu ditu adibidez, fede txarreko preskripzioari buruzko legeak (ikus Decretalia-ren De Praescriptionibus azken kapitulua).

Gisa berean, Printze batzuk gatazkatzaren direlarik, printzerri baten gainetik, eta gerlaren amildegian sartzen, Aita Sainduari zilegi zaio, Epailearena egitea, bi aldeek argumentuak haztatzea, eta epaia ematea. Delako Printzeek eginbide dute epaia onartzea, printze giristinoen arteko gerlak nahitaez dakartzan kalte izpiritualak itzurtzeagatik. Eta Aita Sainduak ez baldin badu hori egiten -edo bakan bakarrik- ez da, ez, ez zaiolako zi-

legi, baina bai, Durand Saint-Pourçainekoak⁴² dioen bezala, eskandalu egin beldurrez; ez dezaten Printzeek uste izan botere gosez diharduela; edo ez daitezen Printzeak jazar haren aurka.

Bide beretik Aita Sainduak kentzen ahal ditu batzuetan Erregeak beren aulkitik eta ere berriak ezartzen, batzuetan gertatu den bezala. Eta zinez, egiazko kristau bihi batek ez lioke botere hori ukatu behar Aita Sainduari. Hori bera diote Piarres La Palukoak⁴³, Durand Saint-Pourçainekoak (De Potestate Ecclesiastica) eta Enrike Gandekoak⁴⁴ (Quodlibet 6,a. 23). Eta zentzu berean hartu behar dira Aita Sainduak bi ezpata badituela dioten hainbeste lege⁴⁵.

Azkeneko, berdin mintzo zaizkigu aspaldiko Irakasleak eta San Tomas ere delako Sententiarum bigarren liburuaren iruzkinean.

Ez da dudarik gainera, Aita Sainduak munduaren gainean duen boterearen arabera botere tenporala badutela apezpikuek beren diosesietan. Horra zergatik gaizki mintzo diren eta gaizki egiten duten Printzeek ala Magistratuek apezpikuei debekatzen dietelarik fededunen zigortzea beren bekatuengatik edo isun batzuekin edo erbestearekin edo beste gaztigu tenporal zerbaitekin. Ezen gaztigu horiek ez dute apezpikuen eskumena gainditzeko, ontasun izpiritualen beharrez eta haien onetan, ez ordea bakarraren abantailez, edo diru gosez egiten diren heinean.

Erran dugunetik, lehen proposizioaren aldeko argumentu hau atera genezake oraino: Aita Saindua alabaina mundu osoaren jabea balitz, apezpikua ere bere diosesiaren jabe tenporala litzateke; hau ere

Kristoren Ordezkarria baita bere diosesian; gure aurkariak ordea ez dute onartzen horrelakorik.

LAUGARREN ONDORIOA: Aita Sainduak ez du botere tenporalik batere, ez Indio barbaroen ez beste fedegabeen gainean.

Lehen eta hirugarren proposizioei darraie garbiki laugarrena, ezen Aita Sainduak ez du botere tenporalik, zeregin izpiritualei buruzkorik baizik. Eta nola eskumen izpiritualik ez baitu fedegabeen gainean, Jondoni Paulok dioenaren arabera (ikus 1. Kor. 5,12), are gutiago tenporalik.

Gainerakoa: Barbaroek ez baldin badute nahi onartu Aita Sainduaren boterea, ez dugu zeren haiei gerlarik egin, ez haien ontasunez jabetu, ez baitu Aita Sainduak deus horrelako eskurik haien gainean.

Badugu horren froga garbirik :

1. Urrunago erranen dugun eta gure aurkariak onartu behar duten bezala, barbaroek ez baldin badute Kristo Jauntzat hartu nahi, ez dugu horrengatik eskubiderik haiei gerla edo beste zerbait kalte egiteko. Gure aurkariak diotenak ezen, ez du itxurarik: ez baititugu alabaina Kristoren Ordezkarria onartzera behartzen ahal, gerlaz erasoak izateko, edo ontasun guziak eta bizia ere galtzeko mehatxupear, Kristo Jaunari Berari onarpena ukatzen ahal diotenez gero batere zigortuak izan gabe.

2. Bestalde gure aurkakoen arabera, zergatik ez ditugun barbaroak indarrez behartzen ahal, ez baldin badute nahi onartu ez Kristo bera ez kristau sinestea, hau da arrazoia: fedea ez zaiela frogatzen ahal arrazoi natural soilen bitartez. Are nekezago diegu frogaturen Aita Sainduaren eskubidea. Eta ondorioz, ez ditugu ere behartzen ahal haren boterea onartzera.

Nahiz biziki botere handiak emaiten dizkion Aita Sainduari Silbestrok, Enrike Susokoaren aurka finkatzen du garbiki bere Summa-n (Infidelis hitza, §7), ez dela zilegi gerla-bidez fedegabeen botere hori

onartzera behartzea, ez eta ere, arrazoi berarengatik, haien ontasunez jabetzea.

Aburu bera agertzen du Inozentzio IV. ak⁴⁶, aipatu dugun kapituluaren iruzkinean (De Voto, c.Quod super his.). Bai eta ere, dudarik gabe, San Tomasek Summa Theologica-n (II-II,q.66,a.8,ad 2) eta, guziz argi, Kaietanok pasarte horretaz egiten duen iruzkinean: Ez zaizkie fedegabeei beren ontasunak kentzen ahal, dio San Tomasek, non ez dauden Printze tenporalen menpean, eta orduan beste menpekoei gertatzen ahal zaien lege zuzenen arabera izanen da.

3. Eta bestalde, Kristauen erdian bizi izan diren Sarrazinoak ez dira behin ere bere ontasunez gabetuak izan, ez bestela kaltetuak, horrengatik. Alta hori aski dela haiei gerla egiteko erraten baldin bada, beren fedegabeziarengatik ontasunez gabetzen ere ahal dira: Badakigu alabaina fedegabe bihi batek ez duela Aita Sainduaren eskumena onartzen. Ez duzu ordea irakasle bakar bat aurkituren -ez gure aurkarietarik ere- aitortuko duenik, fedegabezia hutsarengatik zilegi dela fedegabeen desjabetzea.

Eta beraz Irakasle batzuek diotelarik fedegabeek onartzen baldin badute Aita Sainduaren eskumena ez dela zilegi haiei gerlarik egitea, baina onartzen ez baldin badute zuzen dela egitea, ez du horrek kanorerik; ez baita fedegabe bihirik, Aita Saindua onartzen duenik.

Hortik garbi ageri da, barbaroen kasuan argumentu hau ere ez dela bali; kristauak ez dute zuzenez haiei gerla egiteko eskubiderik, baizik eta Aita Sainduak goiko jabe bezala haien probintziak eman dizkiela,

edo bestela Aita Sainduaren jabegoa onartzen ez dutela. Hori da Kaietanok Summa Theologica-ren iruzkinean (II-II, q.66, a.8) luzaki zehazten duen iritzia.

Aurkako aburua aitzinatzen duten Kanonisten erranek ez gaituzte behar biziki durduzatu, zeren, errana dugun bezala, Jainkozko zuzenbidearen alorrean gabiltza hemen.

Ez dira bestalde iritzi bereko haietarik gehienak eta ezagunenak; Joanes Andres bera adibidez. Kanonista haiek gainera, ez dute nehongo lekukotasunik beren alde. Eta Florentzia-ko San Antoninoren autoritate handia azkenean ez da hainbat kontutan hartzekoa; Agustin Ankonakoari jarraiki baitzaio honetan, beste aldietan Kanonisten iritziei jarraiki ohi zaien bezala.

Hortik dator argi eta garbi, Espainolek, lehorreratu zirelarik lehen aldiko Indio barbaroen lurretan, ez zutela nehongo eskubiderik ekartzen berekin, haien probintziez jabetzeko.

HIRUGARREN ARRAZOA aipa daiteke beraz, hots, Aurkikuntza Eskubidea.

Ez zen hastapenean besterik aipatzen eta horren izenean zuen itsasbidea hartu lehen aldian Kolon Genoakoak. Eta badirudi arrazoi hori baliagarri dela, zeren herri zuzenbidearen eta natura zuzenbidearen arabera, okupatzen dituenarenak baitira bazter utziak diren gauzak (Institutes, De Rerum Divisione, §Ferae Bestiae). Eta nola Espainolek baitzituzten lehenik aurkitu eta okupatu probintzia haiek, horrengatik haienak dira zuzenez, ordurarte nehor bizi izan ez zen mortu batean aurkitu balira bezala.

Bizkitartean ez dugu argumentu horretaz luzaz hitzegiterik, zeren, erakutsi dugunaren arabera, barbaroek baitzuten egiazko jabetza bai pribatua bai publikoa.

Nahiz herri zuzenbidez, nehorena ez den gauza, atzematen duenarentzat den, aipatu dugun pasarteak (§ Ferae Bestiae) dioen bezala garbiki, ontasun horiek ez baitziren jaberik gabeak, ez dira kasu horretan sartzen. Eta beraz, argumentu hori, beste baten laguntzarekin, erranen dugun bezala, nolazpait baliagarri izan badaiteke ere, ez dugu erabiliko haiek gu aurkitu bagintuzte baino gehiago, gu haien lurrez jabetzeko aitzakiarekin.

LAUGARREN ARRAZOIA aitzinatzen da beraz: barbaroek ez omen dute Kristau fedea onartzen, nahiz aurkeztua izan zaien, eta artoski gonbidatuak izan baldin badira ere sinestera.

Eta badirudi arrazoi hori nahikoa dela, barbaroen lurrez jabetzea zilegi izan dakien Espainolei.

1. Barbaroek alabaina, eginbide dute Kristau fedea onartzea, zeren eta "sinesten duena eta bataiatzen dena salbatuko da; sinesten ez duena berriz galduko da" (Mk 16,16). Ez da bada nehor galtzen bekatu mortalarengatik baizik.

Apostoluen Eginetan erraten da bestalde: "Ez zaigu eman gizonoi beste izenik, salba gaitzakeenik" (AE 4,12). Eta nola Kristoren Ministroa Aita Saindua baita, zeregin izpiritualetan bederen, iduri luke barbaroak behartzen ahal direla Kristau fedearen onartzera, Aita Sainduaren aginduz bederen. Eta gonbidatuak izanik ere ez baldin balezate onart, gerlaz haiei jazartzea zuzen litzateke.

Gehiago dena, Printzeek ere hori bera egin dezakete beren aginpide propioaren izenean, Jainkoaren Ministro baitira jarriak, "Haren hasarrearen mendekatzeko, gaizkileen aurka" (Er 13,4). Barbaroak ordea gaizkile handiak dira ez baitute onartzen Kristau fedea. Printzeek beraz nolazpait behartzen ahal dituzte.

2. Frantsesek ere ez baldin badute beren Errege sinetsi nahi, zilegi zaio Espainiako Erregeari haien horretara behartzea. Eta beraz, barbaroek, egiazko Jaunen Jauna den Jainkoa sinetsi nahi ez baldin badute, Printze Kristauek Haren sinestera behartzen ahal dituzte. Ez da ezen Jainkoaren kausa gizonena baino maila apalagoan utzi behar.

Hor dugu berme Duns Eskoziakoaren⁴⁷ errana Sententiae liburuaren iruzkinean (I.IV, dist.4, q.9), fedegabeen haurren bataioaz mintzo delarik: Haren arabera goiko nagusiari behar baitzaio sinetsi beherekoari baino lehen. Eta beraz, beren printzei sinestera behartzen ahal baldin badira barbaroak, are behartzenago dira Kristori eta Jainkoari sinestera.

3. Barbaroek Kristo agerian laidosta balezate, Irakasleek onartzen dute eta egia da, zilegi litzatekeela haien ixiltzera behartzea gerla - bidez: Gerla egiten ahal genieke adibidez gurutzefikaz trufatzen balira, edo nolazpait kristau gauzak erdeina balitzate, Elizako Sakramentuen eskarnioa eginez, edo horrelatsu.

Hori ere argi da, zeren edozein irain egiten baldin badiote errege giristino bati, errege hori hila izanik ere, jasan duen irainaren mendekatzeko eskubidea bagenuke. Nolaz ez zaigu beraz zilegi izanen, are gehiago, giristinoen Jaun eta Errege den Kristori jazartzen baldin bazaizkio? Ez da horretan zalantzarik, ezen Kristo gutartean bizi balitz eta arrotzak jazar balitzaizkio, irain horren gerla-bidez zigortzeko eskubidea bagenuke dudarik batere gabe; eta beraz orai ere.

Fedegabezia ordea bekatu larriagoa da edozein arnegu baino; zeren San Tomasek erraten eta frogatzen duen bezala Summa Theologica-n (II-II, q.10, a.3), ekintza okerren artean gertatzen den bekaturik larriena, fedegabezia da, zuzenean kontrajartzen baitzaio fedeari. Arnegua aldiz ez zaio zuzenean kontrajartzen fedeari, fedearen aitormenari baizik. Fedegabeziak eragozten du Jainkoari buruzko abiapuntua bera, hots fedea; arneguak berriz ez. Horrengatik beraz, girstinoei zilegi baldin bazaie fedegabeen erasotzea gerla-bidez Kristori egin laidoarentzat, haizu izan behar zaie ere fedegabeziarentzat.

Eta arnegua ez dela fedegabezia bezain bekatu larria frogatzen dugu, zeren lege zibilek herio zigorra ematen baitiote kristauari fedegabeziarentzat bainan ez arneguarentzat.

Hona bada argumentu horri kontrajartzen dizkiogun erantzunak:

LEHEN PROPOSAMENA: Kristau fedeaz zerbait entzun baino lehen, ez zuten Indio barbaroek fedegabeziako bekaturik egiten, ez baitzuten Kristo baitan sinesten.

Hori bera da, hain zuzen San Tomasek erraten duena, Summa Theologica-n (II-II, q.10, a.1): "Fedegabezia, Kristori buruz deus entzun ez dutenen baitan ez da bekatutzat hartu behar; gaztigutzat baizik; Jainkozko gaien ezjakintasun hori lehen burasoen bekatuari baitarraio. Fedegabeak beraz kondenatuak dira, ez fedegabeziatzko bekatuarengatik, baina bai beste bekatu batzuegatik. Horra zergatik Jesusek dioen: "Ni ez banintz etorri eta hitzegin izan ez banie, ez zuketen bekaturik izanen" (Jn 15, 22).

San Agustinek pasarte horren iruzkinean dio Jesus hor mintzo dela Kristo baitan sinesten ez dutenen bekatuaz. Eta, dirudienez, gauza bera dio ere San Tomasek Summa Theologica-n (II-II, q.10, a.6 & q.34, a.2, ad 2).

Gure erantzuna ordea badoa anitz Irakasleen iritziaren aurka eta lehenik Gilen Auxerrekoaren⁴⁸ aburuaren aurka (III. zatiko Utrum fidei possit subesse falsum galdea). Hortxe erraten du alabaina, nehork ez duela ez Kristoren ez fedezko edozein artikuluren ezjakintasun garaitezunik izaten ahal. Zeren bere ahal guzia egiten duenak, Jainkoarenganik edo barneko edo kanpoko erakaspidez izaten baitu argia. Eta beraz, fedezko artikuluen kontrako zerbaiten sinestea bekatu mortala da beti: Bere Apezpikuak fedezko artikulua zerbaiten kontra predikatu dion atsoaren adibidea ematen du gero eta orokorki erraten: "Jainko legearen ez ezagutzeak ez dio nehoi aitzakiarik ematen ahal".

Iritzi bera zuen Gilen Pariskoak,⁴⁹ eta berdin argudiatzen: edo bakoitzak egiten du ahal duen guzia eta argia izaten du, edo ez du egiten eta orduan aitzakiarik ez du.

Ikuspegi berdina zuela Gersonen⁵⁰ ere badirudi, De Spirituali Vita Animae liburuan (4. irakaspena) idazten baitu: "Hauxe da Irakasle guzien iritzia, Jainko zuzenbidezko gaietan, jakingabezia ezingaraituarentzat ez dela lekurik, zeren Jainkoak beti laguntzen baitu ahal guzia egiten duen hura eta izpiritua argitzeko doia argi ematen baitio, hutsegitetik beira dadin eta salbamena izan dezan."

Hugo San Victorrekoak⁵¹ berriz dio (l. II, p.IX, c.5), bataiatua izateko manamenduarentzat ez dela nehongo ezjakintasunaren aitzakiarik,

zeren norberak bere faltaz ez baldin badio oztoporik jarri, bakoitzak hartaz zerbait entzun eta jakin baitu, Kornelioren etsenpluak erakusten duen bezala (AE 10)

Adriano VI. ak, egia erran, nabardura zerbait jartzen dio baieztapen edo ikuspegi horri, "Quodlibetica"-ren 4. galdean dioelarik: "Jainko zuzenbidezko gaiak bi gisatakoak dira: badira batzuk Jainkoak ez baititu gizon guziak behartzen haien ezagutzera, hala nola Jainko Legearen xehetasun zenbait edo Lege horren eta Liburu Sainduen eta Manamenduen gainetik agertzen diren arazoak; eta gai horiez norberak eginik ere bere ahal guzia, ezin garaituzko ezjakintasunean gerta daiteke. Baina badira ere beste gai batzuk Jainkoak haien ezagutzera behartzen baititu gizon guziak, hala nola Fedezko artikulua eta Legearen manu orokorrak; eta hauentzat, egia da, Irakasleek diotena,hots, nehork ezjakintasunaren aitzakiarik ez duela izaten ahal. Norberak bere ahala egiten baldin badu alabaina, Jainkoak hura argituko du barnetik edo kanpotik".

Gure proposizioa bizkitartean San Tomasen ildotik doa zuzenean, eta honela frogatzen dugu:

Behin ere deusik entzun ez dutenak ezjakintasun garaitezinean aurkitzen dira, beste bekatu batzuetan erori baldin badira ere bestalde; ezjakintasun hori beraz ez da bekatu. Gure errana finkatzen du Jondoni Pauloren pasarte honek:

"Nola sinets, ez bada entzuterik? Nola bada entzun hotsegilerik ez bada?" (Er 10,14). Eta ondorioz fedea ez baldin bazaie iragarri, garaitezinezko ezjakintasunean aurkitzen dira, ez baitute jakiten ahal.

Fedegabeak ez ditu Jondoni Paulok gaitzesten ez dutelako beren ahala egiten Jainko Jaunak argi ditzan, baina bai Berri Ona entzunagatik

ez baitute sinetsi. "Ez ote dute bada entzun? -galdatzen du- Mundu osoan ozen da bizkitartean Mezularien deia". Horrengatik ditu beraz kondenatzen, mundu osoan iragarri izan baita Ebanjelioa. Nahi bezainbat bekatu izanik ere bestela ez zituen kondenatuko.

Eta beraz Adriano VI.ak, ezjakintasunaren gai horretan, beste huts bat ere egiten du: Bere Quodlibetica-ren galde hartan berean erraten du, etikaren alorrean ere, norberak bere kar eta arta guziarekin jakin behar duena jakitera saiatu ondoan, ezjakintasunaren aitzakiarik ez duela izanen, ez baldin badio bestalde, bere bekaturen urrikiak, Jainkoaren argiari bihotza irekitzen. Hala nola, demagun norbaitek zalantzak badituela tratu baten gainetik; norbait hark kontseilu eskatzen die aditu batzuei eta berak bere aldetik ahalak oro egiten ditu egiaren jakiteko eta tratua zuzena dela iduritzen zaio. Sekula ez bada hala eta tratua egiten duena bekaturan baldin bada bestalde, aitzakiarik gabe aurkituren da, zeren ez baitu ahal guzia egin bere ezjakintasuna garaitzeko. Nahiz ez den argitzeaz seguru izaten graziari buruz irekitzen den ber, ez da batere dudarik, bekatuaren traba kentzen ez duena aitzakiarik gabe gelditzen dela. Demagun adibidez Piarresen eta Joanesen zalantzak badituztela kasu beraren edo tratu beraren gainetik. Biek ahalegin berak egin dituzte eta biek uste dute zuzenean direla, baina Piarres graziatan aurkitzen da; Joanes berriz bekaturan: Piarres orduan ezingaraituzko ezjakintasunean gertatzen da eta Joanes ezjakintasun argitubeharrean; eta biek egiten baldin badute tratua, Piarresen badu aitzakia, Joanesen aldiz ez.

Erran bezala, hutsean dabil Adriano VI. a, Ezjakintasunaz, Summa Theologica-ri (I-II) nihonek egin diodan iruzkinean, luzaz aipatu dudan puntu honetan. Handia litzateke alabaina erratea, Jainkozko zuzenbidearen gai bakar batean garaitezinezko ezjakintasunean ez dela gertatzen ahal edozein fedegabe edo berdin bekatu mortalean dagoen edozein fededun. Ondoriozta genezake gainera, Piarres, garaitezinezko ezjakintasunean legokeelarik lukurreriari edo simoniari buruz, graziatan deno, argitubeharreko ezjakintasunean gerta litekeela bekatu mortalean erori orduko; eta horrek ez du kanorerik.

Hona beraz ene ikuspegia zer den: Ezjakiteaz hobendun eta bekatore eta argitubeharra izateko, gaiari berari hutsegin behar zaio, hala nola Ebanjelioa entzun nahi ez delarik, edo entzuten dena ez nahi sinetsi. Eta alderantziz, ezjakintasun garaitezinean izateko, aski da egiaren jakiteko ahal guzia egitea; bekatu mortalean izanik ere bestalde. Ondorioz gai honetan epai bera zor zaio graziazko ala bekatuzko egoeran dagoenari; horrela da orain eta berdin zen Kristoren etortzearen edo pairatzearen ondotik.

Adriano VI. ak ez dezake bada uka, Jesusen heriotzearen ondotik, Indietan edo Espainian ziren Juduek ez zutela neholaz ere heriotze horren berririk, bekatu mortalean baldin baziren ere bestalde. Gainera onartzen du berak hori garbiki, De Observantia Legalium delakoan (q.1, ad 4).

Egia da ere Judu Herritik kanpo ziren Juduak, bekatutan izan zitezen ala ez, guziak kristau fedeaz edo bataioaz garaitezinezko ezjakintasunean aurkitzen zirela. Eta beraz orduan, garaitezinezko ezjakintasuna

onartu ahal izan baitzen haientzat, orain ere, hola hola, gertatzen da, bataioa iragarri izan ez zaieneztat.

Beste Irakasleen⁵³ hutsa izan da, uste izan baitute, kristau fedeari eta bataioari buruz garaitezinezko ezjakintasuna onartuz gero, kristau fedea eta bataioa gabe salba daitekeela. Baina ez da hori ezinbesteko ondorioa. Kristau fedea eta erlisionea oraino iragarri ez zaien barbaroak alabaina kondenatuak izanen dira, Summa Theologica-n (ikus gorago I-II) San Tomasek dioenaren arabera, ez fedegabeziarengatik, baina bai beren bekatu larrien eta beren idolatriarengatik. Beren eginahalak egin balitzate eta natura legearen arabera bizi balira, orduan Jesusen izenaz haien argitzeko arta har lezake Jainko Jaunak. Baina gaizki bizi baldin badira ez zaie bestalde bizkarreratuko kristau fedea eta bataioa ez ezagutzea edo ez sinestea.

BIGARREN PROPOSIZIOA: Barbaroak ez dira behartuak kristau fedearen lehen iragarpena bera sinestera.

Ez dute barbaroek bekatu mortalik egiten, erraten eta iragartzen zaielarik, baina mirakulurik edo beste argumenturik eta frogarik eman gabe, Kristau Erlisionea dela egiazkoa, eta Jesu Kristo dela Munduaren Eroslea eta Salbatzailea, haiek ez baldin badute sinesten.

Eta aitzineko proposiziotik dator bigarren hau, zeren Kristau Erlisioneaz deusere jakin baino lehen aitzakiarik ez baldin bazitzaien falta barbaroei, ez daitezke, aurkezpen eta iragarpen soilaren gainean, sinestera

behartuak izan, ez delako berez, iragarpen hori bera sinesteko argumentu dina.

Kaietanok gainera, Summa Theologica-ren iruzkinean (II-II, q.1, a. 4, ad 2; a. 5, ad 1), dioen bezala: "ez litzateke zuhurtzia, baina bai ausartzia, bereziki salbamenerakoetan, zerbaiten sinestea, aitzinetik ikusi gabe sinesgarritasunik baduenentz erraleak". Barbaroek bada, ez dute ikusten ahal, ez baitakite ez nor ez zer diren erlisione berriaren ekarleak.

Badugu berme San Tomasen ohar hau, Summa Theologica-n (II-II, q.1, a. 4, ad 2; a. 5, ad 1): "Sinesgarritasunaren aldetik, fedezko gauzak argiak dira eta ikusgarriak; fededunak ezen ez litzake sinets, ikus ez baleza sinetsi behar direla zeinu argi batzuentatik edo beste horrelako kausa zerbaitengatik." Eta beraz zeinu argirik eta argumentu sinesgarriarik ez baldin bazaie eskaintzen, barbaroak ez daude sinestera behartuak.

Hona oraino beste froga bat: Demagun Sarrazinoek ber denboran aurkezten dietela beren erlisione delako barbaroei, giristinoek egiten diegun bezala. Argi dago ez litezkeela haien sinestera behartuak. Ez dute ere beraz giristinoen sinesterik, hauek ez badiete eskaintzen beste argumenturik ez arrazoinik; zeren ez baldin badute erlisione baten edo bestearen alde froga hoberik, ez dute asma zein den egiazkoa, eta ez dute ez asmatzeko eginbiderik ezta ere ahalik. Errazegi sinestea litzateke alabaina eta hori bihotz arinaren marka omen da Liburu Sainduak dioenaren arabera (Si19,4). Eta berdin dio Jondoni Joanik: "Ez zuketen bekaturik, nik zeinuak haientzat egin ez banitu" (Jn 15,24); eta beraz mirakuilurik eta arrazoirik ez den tokian ez da ere bekaturik.

Hortik dator bada barbaroei fedea horrela iragarri baldin bazaie bakarrik, eta haiek ez badute onartu, Espainolek ez dutela horrengatik eskubiderik ez haien jaukitzeko gerla zuzenez, ez eta gerla zuzenbideez baliatzeko haien aurka. Ezen ez dute haiek horretan hobenik eta ez diete Espainolei kalterik egin.

Eta azken puntu horren alde badugu oraino San Tomasek dioena, Summa Theologica-n (II-II, q.40, a.1): "Zuzena izan dadin gerla, kausa zuzena behar da, hots, jaukitzen direnak, berek egin kalte zerbaitengatik eraso behar dira". Horra nola San Agustinek erraten duen, 83 Quaestiones liburuan: "Gerla zuzenak deitu ohi dira, bidegabekeria batzuen zigortzeko eginak direnak; herri bat edo hiri bat zigortu behar delarik, zeren bere herritarren gaiztakeriak ez baititu zigortu edo haiek egin lapurketak ez ordaindu".

Barbaroek ondorioz ez baldin badute aitzinetik deus kalterik egin, ez da izaten ahal haiei gerla egiteko aitzakia zuzenik. Hau da Irakasle guzien iritzia; ez bakarrik Teologoen, baina bai ere Ostiako apezpikuarena, Innozentzio IV arena eta beste Legelariena. Kaietanok garbi erakusten du Summa Theologica-ren (II-II, q. 66, a. 8) iruzkinean, eta ez dut nehor ezagutzen aurka doakionik. Indio barbaroen probintziak eskuratzeko, edo haien aitzineko jabeen desjabetzeko, ez da beraz arrazoi hori zuzena.

HIRUGARREN PROPOSIZIOA: Barbaroak deitzen eta aholkatzen ditugarik erlisioneko mezulari baketsuen entzutera, bekatu mortalean erortzen dira ez baldin badituzte nahi entzun.

Asma dezakegu alabaina Indioek onartzen dituztela batere froga egoki eta probagarririk ez duten iritzi guziz okerrak, eta beraz, gonbidatzen baditugu erlisionekeo gauzez dihardutenen entzutera eta eztabaidatzera, behartuak daitezke bederen entzutera eta behatzera.

Salbatuak izateko gainera, behartuak dira Kristo baitan sinestera, eta bataiatuak izatera: "Sinetsiko duena, etabar....." (Mk 16,16). Baina ez dezakete sinets, entzun ere gabe (Er 10,14); entzutera behartuak dira ondorioz. Bestela, hots, behartuak ez balira, salbamendutik kanpo ezarriak litezke, batere hobenik izan gabe.

LAUGARREN PROPOSIZIOA: Kristau fedea probagarriki aurkezten baldin bazaie Indio barbaroei, erran nahi da, argumentu probagarri eta arrazoizkoekin eta naturazko legea begiratzen duten mezulari zuzenen bitartez -hori baita egiaren berme hoberena- eta gainera aurkezpena egiten bazaie, ez behin eta nolanahika, bainan artarekin eta kartsuki, orduan bai behartuak daude barbaroak, bekatu mortalaren nekepean, kristau fedearen onartzera.

Hirugarren proposizioak dakar ondorio hau, zeren barbaroak behartuak baldin badira entzutera, behartuak ere daitezke entzun dutenaren sinestera, sinesgarri den ber.

Hori bera dator argi San Markoren hitz hauetarik: "Zoazte mundu guzira eta hotsegin Berri Ona gizaki guziei. Sinesten duena eta bataiatua izanen dena salbatuko da; sinesten ez duena berriz, galduko da" (Mk 16,15-16), eta ere beste pasarte honetarik: "Ez zaigu eman gizonoi eguzkipean beste izenik, gu salba gaitzakeenik" (AE 4,12).

BOSTGARREN PROPOSIZIOA: Niri ez zait orain arte argi iduritzen, Kristau fedea barbaroei aurkeztu izan zaiela eta iragarri, sinestera behartuak izateko moduan beste bekatu baten nekepean.

Hori erraten dut zeren, bigarren proposizioaren arabera, ez baitira barbaroak sinestera behartuak, non ez zaien aurkezten fedea doi bat froga probagarriekin. Ez dut bada entzun, mirakulurik izan dela ez zeinu bihirik ez fraile edo serora ereduzkorik; baina alderantziz eskandalu frankoren, gaiztakeria ankerren eta basakeria anitzen berri ozen da eskualde haietarik. Eta beraz, ez dut uste aski kar eta artarekin iragarri izan zaiela Kristau Erlisioea, haren onartzera behartuak izan daitezen. Iduri zukeen bada, anitz Frailek eta beste anitz Elizgizonek, beren bizimoldeaz, beren etsenpluez eta beren prediku nekaezinez emana ziotela sailari hartze zuen arta eta karra, beste arrenkurarik zuten batzuek ez balituzte haien urratsak trabatu.

SEIGARREN PROPOSIZIOA: Indio barbaroei behar bezain modu onargarrian iragarri baldin bazaie ere fedea, eta bizkitartean ez badute onartu, ez da horrengatik zilegi gerla egitea, eta haien ontasunez jabetzea.

Hori da San Tomasen irakaspen garbia, zeren Summa Theologica-n (II-II,q. 10, a. 8) erraten baitu behin ere fedea ukan ez duten fedegabeak, hala nola Juduak eta Paganoak, ez direla neholaz ere behartzen ahal fedearen onartzera.

Eta hori bera da Irakasle guzien irakaspena, Zuzenbide Kanonikoan ala Zibilean. Sinestea ezen nahimenaren egitekoa da, baina beldurrak, Aristotelek bere Etika-n (I. III) dioenez, biziki mendratzen du nahikundea. Eta bestalde, Kristoren sakramenduetara eta misterioetara hurbiltzea nagusiaren beldur hutsez, sakrilegioa da.

De Judaeis kapituluak (dist. 45)⁵⁴ gauza bera erakusten du: "Juduen gainetik, Sinodo Sainduak erabaki du, nehork engoitik ez duela bortxarik erabiliko haien sinestera erakartzeko, zeren nahi duenaz urrikaltzen baita Jainkoa, eta nahi duena baitu gogortzen". Ez da beraz dudarik, Toledoko Kontzilioak erabaki du, mehatxurik eta beldurrik ez erabiltzea, Juduen erakartzeko giristino federaino.

San Gregorio ere⁵⁵ berdin garbiki mintzo da (dist. 45, c. Qui sincera): "Kristau Erlisioea arrotz dutenak, zinez fede egiazkora erakarri nahi dituztenek, ez-titasunez behar dute jokatu, eta ez larderiaz; ezen bestela erauntsi direnek, eta estakuru horrekin beren ohizko urratsetarik urrundu nahi izan dituztenek, frogatzen dute beren interes propioa bilatzen dutela, Jainkoarena baino lehen".

Gure irakaspenaren berme badugu oraino Elizaren usaia eta ohitura, zeren Enperadore Giristinoak, halako Apezpiku saindu eta jakintsuek aholkatzen zituztenak, ez baitzaizkie egundaino fedegabei gerla - bidez jazarri, Kristau Erlisioea onartzen ez zutelako aitzakiarekin.

Azkenean, gerla ez da Kristau Fedearen nehongo argumentua izaten ahal: eta ez dira beraz gerla-bidez barbaroak sinestera erakartzen ahal, baina bai sinesten dutela, eta Kristau Fedea onartzen dutela, alegia egitera; eta hori izigarriko sakrilegioa da.

Bai, Duns Eskoziakoak bere Sententiae-ren iruzkinean (l.IV, dist.4, azken galdean) idazten du, Erlisioearentzat on litzatekeela, beldurrez eta mehatxuz fedegabeak sinestera behartzen balira, baina

badirudi bestalde Printze Giristinoen menpe diren fedegabeez ari dela, zeren gero ere haiez baita mintzo. Indio barbaroak ordea ez dira kasu horretan eta uste dut Eskoziarrak ez lezakeela haientzat horrelakorik erran.

Argi dago beraz arrazoi hori ez dela ez egokia ez zuzena Barbaroen Probintziak okupatzeko.

Beste arrazoi bat aitzinatzen zaigu, funtsezkoa dela: BOSTGARREN ARRAZOIA, hots Barbaroek berek egin bekatuak.

Aitortzen da alabaina, ez zaiela barbaroei gerlarik egin behar beren fedegabeziarengatik edo Kristau Fedea ez onartzeagatik, baina erraten da egiten ahal zaiela beren beste bekatu mortalengatik, hauek anitz omen baitira, eta biziki larriak.

Bereizketa bat egiten da ordea bekatu mortalen artean: ba omen dira batzuk natura-legearen aurka ez doazenak, baina bai Jainko-lege positiboaren aurka soilik; eta ez dira horiengatik barbaroak gerla-bidez jaukitzen ahal.

Beste bekatu batzuk aldiz natura-legearen aurka doaz, hala nola giza haragiaren jatea, amarekin, arrebeekin edo berdin gizonekin etzatea; eta bekatu horiengatik bai haizu dela barbaroei gerla egitea eta horietarik urruntzera haien behartzea.

Eta hona zergatik diren bi joera horiek: lege positiboaren kasuan ez zaie argi erakusten ahal gaizki egiten dutela; natura-legearen kasuan berriz erakusten ahal zaie Jainkoari gaitzitzen zaiola eta ondorioz behartzen ahal dira ez gehiago Hari jazartzera.

Behartzen ere ahal dira gainera, berek onartu duten legearen begiratzera; lege hori ordea natura-legea besterik ez da; eta beraz..... Hori da eta, Agustin Ankonakoaren ondotik, San Antoninoren aburua (p. III,

tit. 22, c. 5, § 8); bai eta Silbestrorena (Papa hitza, § 7) eta Inozentzio IV. arena, Quod super his (De Voto) kapituluaren iruzkinean, garbiki erraten duelarik: "Uste dut, natura legea baizik ezagutzen ez duten paganoek, lege horren aurka baldin badihardute, Aita Sainduak zigortzen ahalko dituela, zeren Haseran (Hs 19) errana baita Sodomatarrak zigortu zituela Jainko Jaunak. Eta nola Jainkoaren erabakiak guretzat eredu baitira, ez dut ikusten zergatik Aita Sainduak, Kristoren Ordezkariak, ez lezakeen egin berdin". Horra Inozentzio IV. aren hitzak. Eta bide beretik, Aita Sainduaren izenean, Printze Giristinoek ere zigortzen ahalko dituzte barbaroak.

Baina GURE IHARDESPENA hauxe da: Printze Giristinoek ez dute eskubiderik, ez Aita Sainduaren izenean ere, natura legearen aurkako bekatuetarik urruntzera barbaroen behartzeko, ez bekatu horiengatik haien zigortzeko.

1. Aipatu ditugun autoreek aitzinetik onartu dute alabaina Aita Sainduak baduela esku barbaroen baitan, baina errana dugun bezala ez da hori zuzena.

2. Autore horiek edo mintzo dira orokorki natura legearen aurka doazen bekatuez, hala nola ohointzaz, pailardizaz eta adulterioaz, edo ari dira bereziki San Tomasek Summa Theologica-n (II-II, q. 154, a. 11&12) aipatzen dituen naturaren aurkako bekatuez, argitzen duelarik, naturaren aurkako deitzen direla ez bakarrik natura legea jotzen dutelako, baina bai naturaren ordena iraultzen dutelako ere. Glosa-ren arabera, Jondoni Paulok (2 Ko 12,21) "lizunkeria" deitzen dituen bekatuak dira azken horiek, erran nahi baita, hurrekin etzatea, edo animaliekin, edo emazteak elkarrekin, hots, Erromatarrei aipatzen dizkienak (Er 1, 24-27).

Bigarren erran-nahia hartzen badugu soilik, argumentuari bihurtzen

ahal diogu: gizaerailketa bekatu horiek bezain nabaria eta larria baita, larriagoa ezpada, haiek mendekatzea zilegi baldin bada, ondorioz gizaerailketarentzat berdin izanen da. Arnegua ere bekatu nabaria eta larria da, eta beraz berdin....

Lehen erran-nahira itzuliz, hots natura legearen aurkako edozein hutsetara, ihardets dezakegu pailardizaren kasuan ez dela zilegi sartzea; ez eta ere beraz natura-legearen aurkako beste kasuetan. Argi ageri da hori Jondoni Pauloren erranetan: "Beste gutunean idatzi nizuen harremanik ez izateko andrekariekin...". Gero: "nor bait zuen haurridea dela eta, pailardizan baldin badabil edo idolatrian...". Eta azkenean: "Niri ote dagokit kanpokoan epaitzea?" (1Ko 5, 9-12). San Tomasek dio pasarte horretaz, "Fedearen menpe daudenen baitan baizik ez dute eskurik Elizgizonek". Biziki argi dago beraz Jondoni Paulok hemen aitortzen duela ez dagokiola hari fedegabeen, andrekarien edo idolatroen epaitzea.

3. Natura legearen aurkako bekatu guziak ez dira nabari agertarazten ahal; bederen jende guzien begietan.

4. Gisa horretan mintzatzea litzateke, beren fedegabeziarengatik barbaroei gerla egitea zilegi dela onartzea, zeren guziak idolatrak baitira.

5. Ez zaio zilegi Aita Sainduari Giristinoei gerla egitea, andrekariak, ohoinak edo ere sodomitak direlako estakuruarekin, eta ondorioz, ez ditu haien lurak ez eskuratzen ahal, ez beste Printze batzuei ematen ahal; ezen bestela, egun oroz nagusi aldaketa genuke, anitz bekatore baita Probintzia orotan. Eta argumentu hau finka dezakegu oroitzuz handiago direla Giristinoen bekatuak, haiek baitakite bekatuak direla,

ezenez eta barbaroenak, hauek ez baitakite.

6. Handia litzateke, Aita Sainduari zilegi balitzaio fedegabeen epaitzea eta zigortzea, ez duelarik haientzat legeak egiteko eskubiderik.

7. Ondoko argumentua, itxuraz, guziz froga ona da: Barbaroak alabaina edo behartuak dira beren bekatuengatik ukan zigorrak jasatera, edo ez. Bainan ez baldin badira behartuak, Aita Sainduak ere ez du haien zigortzeko eskubiderik. Behartuak baldin badira ordea, behartuak ere dira legegile eta nagusi bezala Aita Sainduaren onartzera; eta onartzen ez baldin badute, horren berarengatik gerla egiten ahal zaie. Baina, erran bezala, ez dute horrelakorik onartzen gure aurkariak. Eta, egia erran, handia litzateke barbaroek Aita Sainduaren agintea eta eskumena arbuiatzen ahal balute eta ber denboran haren epaiak onartzera behartuak balira.

8. Giristino ez direnek ez dute onartzen ahal Aita Sainduaren judizioa; ezen honek ez du haien kondenatzeko edo zigortzeko eskurik Kristoren ordezkari delako baizik. Gure aurkariak ordea, ala Innozentzio IV. ak, ala Agustin Ankonakoak, ala Antoninok, ala Silbestrok, aitortzen dute ez direla zigortzen ahal jende horiek, Kristo onartzen ez dutelako estakuruarekin. Are gutiago beraz Aita Sainduaren epaia onartzen ez dutelako aitzakiarekin, zeren honek eskatzen baitu hura, aitzinetik.

Eta orai erakutsiko dugu bostgarren arrazoi hori eta horren aitzinekoa, biak eskasak direla:

Testamentu Zaharrean, auziak arma bidez zuritzen ziren denboran ere, ez zen nehoiz Israelgo herria fedegabeen lurrez jabetu, baizik eta fedegabeak eta idolatrak zirelako, edo naturaren aurkako beste bekatuez hobendun zirelako aitzakiarekin, nahiz anitz bekatu egiten zuten, idolatrak

baitziren eta naturaren kontrako beste bekatuak bazituzten, hala nola beren seme-alabak debuen ohoretan erailtzen zituztelarik. Bainan fedegabeen funtsak beretzen zituen Israelek, edo Jainkoaren emaitza berezi zerbaiten ondorioz edo haiek bidea moztu ziotelako edo berak oldartu zitzaizkiolako.

Zer deitzen dute bestalde gure aurkakoei "natura legea onartzea"? Natura legea "ezagutzea" baldin bada soil soilik, ez dute ez barbaroek hura osoki ezagutzen. Baina "legearen begiratzeko nahia" adiarazten bada, orduan aitortu behar da, Jainko legea begiratu nahi dutela osoki haiek ere, zerengatik Kristau legea Jainkoarena dela, begiratu nahi bailukete. Ez dute beraz natura legea Jainko legea baino hobeki ezagutzen. Gisa oroz froga gehiago badugu erakusteko Kristau legea egiazkoa dela eta Jainkozkoa, ezenez eta pailardiza gaizki dela, edo natura-legeak debekatzen dituen beste huts zenbait baztertu behar direla frogatzeko. Ondorioz barbaroak behartzen ahal balira natura-legearen begiratzera, froga daitekeelako estakuruarekin, haizu litzateke ere haien behartzea ebanjelioko legearen begiratzera.

Aitzinatzin zaigu oraino beste ARRAZOIA, SEIGARRENA, hots: Norberaren Hautua. Barbaroengana heltzen direlarik alabaina Espainolak, adiarazten diete nola Espainiako Erregeak igorri dituen haien onerako; eta galdatzen diete ez dutenentz hura ezagutu nahi, eta Errege eta nagusitzat onartu. Haiek baietz gogotik ihardetsi omen zuten. Ez da bada deus bidezkoagorik, nagusiak nahi duelarik bere ontasuna beste norbaiten esku utzi, nagusiaren nahia ontzat hartzea baino (ikus Institutes, De Rerum Divisione, § Per traditionem).

Nik ordea ihardesten dut arrazoi hori ez dela egokia:

1. Ez litzateke behar hemen ez beldurrik ez jakitate eskasik, zeren gaitz horiek okertzen baitute hautu oro. Hautu eta onarpen honetan ordea biziki barna sartuak ditugu bi gaitz horiek, zeren barbaroek ez dakite zer ari diren; gainera menturaz ez dute ulertu ere Espainolek zer galdatu dieten. Gehiago dena, galdatzen zutenak ez ote ziren jende armatu batzuk, inguraturik zeuzkaten armarik gabeko jende beldurti batzuei mintzo? ⁵⁶

2. Barbaro horiek bazituzten, erran dugun bezala, beren egiazko nagusiak eta Printzeak. Ez ditu beraz herriak buruzagi berriak hartzen ahal, beste funtsik gabe, aitzinekoen kaltetan bailitzateke.

3. Buruzagiek berek aldiz ez dute Printze berririk hautatzen ahal, herriaren baimenik gabe.

Horrelako hautu eta onarpenetan hutsegiten dutenez gero legezko hautuek eskatzen dituzten baldintza guziek, guziz eskasa da arrazoi berri hau ere eta ez da ez egokia ez legezkoa, Probintzia haiez jabetzeko eta haien atxikitzeko.

Aitzinatzen ahal da ZAZPIGARREN ARRAZOIA: Jainkoaren emaitza berezia.

Erraten dute alabaina -nork zuzen ez nekike- Jainkoaren epai berezi batek hondamendira kondenatu dituela barbaro guziak, beren krimena izigarriengatik, eta Espainolen esku utzi dituela, lehen Kananearrak Juduen menpe ezarri zituen bezala.⁵⁷

Bainan ez dut luzaz eztabaidatu nahi argumentu honetaz, ez bailitzateke zuhurtzia, lege arruntaren eta Liburu Sainduetako arauen aurka doan edozein profetaren sinestea, non ez duten mirakuluek finkatzen haren irakaspena. Profeta hauek ordea ez dute agertzen nehongo mirakulurik.

Demagun bestalde egia dela, eta barbaroen suntsitzea erabaki duela Jainko Jaunak. Ez luke horrek erran nahi, hobetik ez lukeela haien suntsitzaleak. Babiloniako erregeak, adibidez, ez ziren hobetik gabe, beren armadak igortzen zituztelarik Jerusalem jaukitzera eta gero Israelgo seme-alabak preso eramaitera; nahiz horiek oro Jainkoaren Probidentzia berezitik heldu ziren, eta maiz Israeldarrei aitzinetik iragarriak izanak ziren.

Eta Jeroboamek ere, gaizki egin zuen Israelgo herria Roboam-en ganik urrundu zuelarik. Alta bada Jainkoaren aholkuz egin izan zuen eta Jainkoak berak iragarria zion Roboami bere profetaren bitartez.

Eta agian ez duzue Giristino batzuen bizimoldean aurkituko barbaroenean baino bekatu handiagorik! Fedegabekeriazko bekatua baztertuz geroz, jakina...

Liburu Sainduak diote: "Ez ezazue sinets edozein izpiritutan; bainan ikus ezazue Jainkoarenganik heldu direnentz" (1 Jn 4, 1). San Tomasek aldiz, Summa Theologica-n (I-II, q. 68), idazten du "bertuteen osagarri emanak direla Izpiritu Sainduaren dohainak, eta beraz, ez dela dohainen eskatzerik, fedeak, aginteak edo Probidentziak argitzen duelarik bidea".

ONDORIOAK

Badugu aski erranik Indio barbaroen Probintziez jabetzeko aitzinatzen diren arrazoi oker eta desegokiez.

Bainan ohartu behar da, nik hasteko, ez dudala gai horretaz, deus idatzirik aurkitu, ezta ere eztabaida batean edo biltzar batean partehartu behin ere.

Horra zergatik, nork edo nork, aipatu ditugun argumentuetan bilatuko dukeen, eta ez aitzakiarik gabe, Espainolen jokabidearen eta nagusi-

goaren oinarria eta arrazoia. Nik ordea ez dezaket, orainokoa, erran dena baizik gogoan har.

Eta beraz, iduritzen zait, aipatu ditugun arrazoiez besterik ez balitz, kezkatu behar gintezkeela gure Printzeen salbamenduaz, edo izateko, haien argitzeko eginbidea dutenez.⁵⁸ Besteek erakutsi bidea dute hartzen alabaina Printzeek. Berek ez baitituzte horiek oro aztertzen ahal. Jaunak erran du: "Zertarako du gizonak mundu guzia irabaziko, bere burua galtzen eta hondatzen baldin badu?" (Mt 16, 26; Mk 8, 36; Lk 9, 25).

HIRUGARREN ZATIA

Barbaroak Espainolen menpera biltzeko

baliatu ahal izan diren arrazoi legezkoez

BILDUMA

1. Nola Indio barbaroak Espainolen menpera bildu ahal izan diren naturazko gizartearen eta komunitatearen izenean.
2. Espainolek badute Indio barbaroen probintzietan ibiltzeko eta han bizitzeko eskubidea, haiei bizkitartean kalterik ez egitekotan, eta ez dituzte barbaroek eragozten ahal.
3. Zilegi zaie Espainolei salerospenak izatea Indioekin, kalterik ez egitekotan haien sorterriari: Eskas dituzten haiei gauzak salduz adibidez, eta urrea eta zilarra edo han nasaiki diren beste zerak handik erosiz. Eta haien printzei ez zaie zilegi Espainolekilako harremanak eragozte beren herritarrei.
4. Ez zaie zilegi barbaroei, beren lurraldeetan dauzkaten eta herritarrenak bezainbat atzerritarrenak diren ontasunetan partehartzetik Espainolen eragozte.
5. Buraso Espainolenganik Indietan sortu eta han bizi diren haurrak, hango hiritar izan nahi baldin badute, ez dira eragozten ahal hiritar izatetik edo beste hiritarren eskubide berak ukatetik.
6. Zer egin behar litzateke, barbaroek ez balituzte Espainolak utzi nahi harremanak izaten haiekin?
7. Espainolek, bakezko baliabide guziak erabili ondoan, ez baldin badute beste segurtasun biderik aurkitzen, Indio barbaroen hiriez jabetzea eta haien beraien menperatzea baizik, ea zilegi zaien horren egitea, hots haien hirien eskuratzea eta haien beraien menperatzea?
8. Noiz eta zein kasutan Espainolek barbaroak zigortzen ahal dituzten etsai maltzur gisa, gerla bideak erabiliz, haiek desjabetuz, haien aitzineko buruzagiak kenduz eta berriak ezarriz?
9. Haizu ote litzatekeen barbaroak Espainolen menpera biltzea, kristau erlisionearen hedatzeagatik, eta girstinoek badutela barbaroen probintzietan predikatzeke eta ebanjelioa iragartzeko eskubidea.
10. Aita Sainduak, Espainol soilen gain utzi ahal izan du Indio barbaro guzien konbertitzeko eginbidea, eta beste kristau guziei debekatu ez bakarrik haiei predikatzea, baina ere bai haiekin salerospenik izatea, kristau erlisionearen hedapenak hori eskatzen baldin bazuen.
11. Barbaroak ez dira behar ez gerlabidez menperatu ez beren ontasunez gabetu, Espainolak uzten baldin badituzte libreki eta eragozpenik gabe, ebanjelioaren predikatza, barbaroek berek onets dezaten edo ez kristau fedea.
12. Barbaroek ordea, hauen buruzagiek edo herriak berak debekatzen baldin badute Ebanjelioaren aldarrikapena, nola Espainolek bortxatzen ahal dituzten -eskandalurik eman gabe jakina-? Eta zer erran, predikatza utzi ondoan, Kristori buruz itzultzen direnak zigortuz edo erhaitez edo izituz, nehor konbertitzera uzten ez delarik?

13. Barbaroak Espainolen menpera bildu ahal izan ote dira, hauek zaindu eta begiratu dituztelako, konbertitu eta giristino bilakatu direlarik, beren printzeek nahi baitzituzten, indarrez edo beldurrez, beren idolatriara erakarri?

14. Espainolen menpera bildu ahal izan dira barbaroak, zeren haietarik alde ederra giristino bihurtu delarik, Aita Sainduak, zuzen den bezala, eman baitie, berek eskaturik edo eskatu gabetarik, Espainiako Erregea bezalako printze giristino bat, beste aitzineko printze fedegabeak baztertzuz.

15. Barbaroak ez ote dira Espainolen menpera bildu, edo beren aitzineko buruzagien tiraniarengatik, edo hobengabeak zapaltzen zituzten haien lege gaitzengatik?

16. Indio barbaroak Espainolen menpera bildu dira beharbada, beren baitarik eta egiaz, hautu hori egin dutelako.

17. Barbaroak beharbada, Espainolen menpera bildu dira, gizartearen eta adixkidantzaren izenean.

18. Espainolek menperatu ahal izan ote dituzte barbaroak, hauek eroak direla argi eta garbi frogatuz gero?

LEHEN ARRAZOIA deitzen ahal dugu komunikatzeko eta gizarteko eskubide naturala. Mintzatuko natzaizue orain Espainolek barbaroen menperatzeko erabili dituzten arrazoi legezko eta egokiez.

Lehen ondorioa hortik dator: Espainolek badute probintzia haietan ibiltzeko eta bizitzeko eskubidea, barbaroei bizkitartean kalterik ez egitekotan; eta haiek ez dituzte eragozten ahal.

Frogatzen da honela:

1. Herri zuzenbidetik dator, hura baita edo naturazko zuzenbidea bera, edo bederen naturazko zuzenbidearen eratorkina, zeren "Herri

zuzenbidea deitzen da herri guzien artean arrazoi naturalak ezartzen duen legea" (Institutes, De Jure Naturali et Gentium) ⁵⁹. Nazio guzietan alabaina, arrazoi berezirik gabe, arrotzak eta bidaiariak gaizki hartzea ez da gizontasuna; arrotzei ongi etorri egitea aldiz, jendetasuna eta zuzentasuna bezala ikusia da, non ez duten zerbait kalte egin atzerrira etortzen diren bidaiariek.

2. Munduaren hastapenean, denak denenak zirelarik, bakoitza haizu zen noranahi joatera eta ibiltzera. Baina ez du iduri, ontasunen banaketarengatik eskubide hori galdu dugula, zeren ez baitute nazioek behin ere, banaketa horrengatik eragotzi nahi izan gizarteko harremanik. Eta Noeren denboretan basakeria zatekeen horren egitea.

3. Debekatuak ez diren guziak haizu dira, non ez diren bestalde norbaiten laidotan edo kaltetan. Demagun bada, Espainolen ibilaldiak ez diela laidorik ez kalterik egin barbaroei, ondorioz zilegi izan behar da.

4. Ez lukete Frantsesek eskubiderik debekatzeko Espainolei Frantzian gaindi ibil daitezen edo berdin han bizi daitezen -eta alderantziz berdin- non ez dien horrek Frantsesei makur ekartzen eta non ez duten Espainolek zerbait kalte egiten. Eta beraz barbaroek ere....

5. Zigor garratzen artean handienetarik bat da erbesteratzea. Ez da beraz zilegi arrotzei lurrak galaraztea, batere hobenik gabe.

6. Etsai dauzkagun jendeak herri edo hiri batetarik bazter edukitzea edo han direlarik haien kanporatzea, gerla jokoa da. Eta beraz,

Espainolek hobenik ez baldin badute, ez diete barbaroek, zuzenez, gerlarik egin behar; eta ondorioz, ez dituzte ere Espainol horiek beren herritik kanporatzen ahal.

7. Argumentu hau eskaintzen digu Poetak:⁶⁰ "Zer da jende mota hau? Zer da horrelako ohitura basak hazten dituen herria? -Leihorraren aterbea ukatzen baitigute!"

8. "Animalia orok maite du bere antzekoa", dio Liburu Sainduak (Si 13,15) eta beraz, gizakien arteko atxikimenduak zuzenbide naturalezkoa dela iduri du, eta naturaren kontra doala gizaki hobengabeenganik urruntzea.

9. "Arrotz nintzen eta ez ninduzuen etxean hartu" idatzia da (Mt 25,43). Zuzenbide naturalez ordea arrotzak etxean hartu behar dira, Kristoren hitza beraz gizon guzientzat da.

10. "Zuzenbide naturalez ur lasterrak eta itsasoa denentzat irekiak dira eta berdin ibaiak eta portuak; eta herri zuzenbidez itsasuntziak leihor guzietan leihorreratzen ahal dira" (Institutes, De Rerum Divisione), horra zergatik ontasun publikoak diren eta ez dizkien nehork nehorri eragozten ahal. Ondorioz barbaroek irain handia egin liezaiekete Espainolei, beren leihorra debeka baliezaiete.

11. Indioek berek onartzen dituzte beste barbaro guziak nondiknahi etor daitezen, Espainolak beraz ez balitzate onart, laido egin liezaiekete.

12. Espainolei ez balitzaie zilegi barbaroen eskualdean gaindi ibiltzea, edo naturazko edo Jainkozko edo gizonezko zuzenbideak debekaturik litzateke. Naturezak eta Jainkoak ordea, ez du eiki horrelakorik era

gozten. Giza zuzenbideak debeka baleza, naturazkotik eta Jainkozkoetik urrunduz aitzakiarik gabe, ez luke lege horrek ez gizatasunik ez arrazoirik, ezta ere, ondorioz, legearen indarrik.

13. Edo Indioen menpe dira Espainolak, edo ez dira haien menpe: Hala ez baldin badira, ez dituzte Indioek eragozten ahal; eta hala badira, ongi erabili behar dituzte.

14. Barbaroen lagun urkoak dira Espainolak, Samariar onaren Ebanjelioak erakusten duen bezala (Lk 10, 29-37). Barbaroek ordean maitatu behar dute beren hurkoa beren burua bezala (Mt 22, 39). Ez dituzte beraz Espainolak beren herritik baztertzen ahal arrazoinik gabe, San Agustinek idazten baitu (De Doctrina Christiana): "Zure lagun hurkoa maitatuko duzu, erraten delarik, argi dago edozein gizaki dela lagun hurkoa" (1. I, c. XXX, § 32).

Bigarren ondorioa: Zilegi zaie Espainolei salerospenak egitea barbaroekin, kalterik ez egitekotan haien herriari.

Hala nola, eramaiten ahal dizkiete eskas dituzten gauzak, eta ekar ditzakete handik urrea, zilarra edo nasaiki badituzten zerak. Ez dute eskubiderik haien Printzeek beren menpekoei Espainolekin harremanak debekatzeko, ez eta ere alderantziz Espainolen Printzeek Indioekilako harremanak eragozteko.

Aitzineko proposizioak frogatzen du:

1. Herritarrei kalterik egin gabe, arrotzak salerosketan aritzea ez ote da herri zuzenbidea?

2. Erran daiteke ere Jainko zuzenbidearen arabera zilegi dela; eta beraz, debeka lezakeen legeak ez luke arrazoirik.

3. Zuzenbide naturalez Indioen Printzeak behartuak dira Espainolen maitatzera. Ez zaie beraz zilegi, beren herritarrei makurrik ez egitekotan, haien bizipideak eragozteko arrazoirik gabe,

4. Iduri luke bestela Indioek erran zahar honen aurka dihardutela: "Ez egin nehor, nehork zuri egitea nahi ez duzunik". Hots, ez da dudarik ez dituztela barbaroek Espainolak gehiago salerosketan aritzetik debekatzen ahal, giristino batzuek beste giristino batzuk baino.

Espainolek ezen debeka baliezaiote Frantsesei, salerosketak egitea haiekin, ez Espainiaren onetan, Frantsesei kalte egitekotan baizik, argi dago lege hori zuzentasunaren eta karitatearen aurka loakeela. Bainan ez baldin bada lege zuzenez horrelako debekurik hartzen ahal, ezta ere egitez, zeren legea betetzeagatik baita makurra. Eta Digesta-k dio: "Naturalezak ahaidetasun zerbait jartzen du gizaki guzien artean" (De Justitia et Jure, Ut vim legea). Eta beraz, naturazko zuzenbidearen aurka doa, gizona gizonarengatik urruntzea, arrazoi funtsik gabe, zeren Ovidiok dioten bezala⁶¹: "Gizona ez da otsoa gizonarentzat, beste gizon bat baizik".

Hirugarren ondorioa: Ez zaie zilegi barbaroei, herritarrenak ala arrotzenak diren ontasunetan partehartzen eta gozatzen Espainolak ez uztea.

Hala nola, beste arrotzei zilegi baldin bazaie herri lurretan edo ibaietan urrea erauztea, edo itsasoan edo uhaitzean perlak arrantzatzea, ez diete barbaroek hori bera debekatzen ahal Espainolei. Bainan hauei haizu zaie beste guziei haizu zaien neurri berean, erran nahi da herritarrei eta lekukoei kalterik egiten ez dieten heinean.

Aitzineko bi proposamenen ondorioa da:

1. Espainolei zilegi baldin bazaie alabaina barbaroengana joatea eta haiekin harremanetan sartzea, zilegi izan behar zaie ere han dabiltzan guzien legeeaz eta erraztasunez gozatzea.

2. Herri zuzenbidearen arabera, nehorena ez den ontasuna, aurkitzen duenarena izaten da (Institutes, De Rerum Divisione, § Ferae bestiae). Ondorioz, lurreko urrea, itsasoko perlak edo ibaieko beste aberastasunak, nehorenak ez baldin badira, aurkitzen dituenarentzat izaten dira, herri zuzenbidez itsasoko arrainak diren bezala. Eta horrela anitz gauza herri zuzenbidearen menpe izan behar dira; eta naturaleztatik aski zuzenean baitator herri zuzenbidea, badu nahikoa indar eskubide emateko eta edonor behartzeko. Ez balitz ere beti naturalezari eratzikia, mundu guziko gehiengoaren hitzarmena aski litzateke, bereziki denen onetan delarik.

Munduaren hastapenetik beraz edo uholdearen ondoko berpizkundetik gizakien gehiengoak erabaki baldin badu mandatariak orotan hunkiezinak daitezkeela, itsasoa denena izanen dela, gerlako presoak esklabutzat hartuko direla, eta ez dela arrotzak ohiltzea zilegi, erabaki horrek legearen indarra baluke, beste batzuek ukaturik ere.

Laugarren ondorioa: Espainol batek han haurrak izaten baldin baditu -Indietan bizi diren burasoez naiz mintzo- eta hango hiritar nahi baldin badute izan haur horiek, ez dituzte hiri hartarik urruntzen ahal, ez beste hango hiritarren erraztasunetarik eragozten.

Frogatzen da honela:

Herri zuzenbidearen arabera alabaina, hiritar deitzen da, eta hiritarra da, hiri horretan jaioa dena (Digesta,⁶² De Appellationibus, Cives legea).

Eta hona bermea: "Animalia hiritarra" denez gero gizakia, hiri batean jaioa den gizona, ez da beste hiri batetako hiritarra izaten ahal. Eta beraz, sorterrri hartako hiritarra ez balitz, ez litzateke nehongo hiritarra, eta ondorioz, natura zuzenbidearen eta herri zuzenbidearen geriza ken geniezaioke.

Demagun gainera Espainol batek nahi duela barbaroen hiri batean bere egoitza egin, hala nola han ezkonduz edo beste arrotzek hango hiritartzeko egin ohi duten beste edozein moldez, ez diote beste baina gehiago eskubide hori ukatzen ahal Indioek, ezta ere ondorioz bestek dituzten hiritar erraztasunen gozamina eragozten, besteen karga berak jasaten dituen ber.

Oroit ere nola Jondoni Petrik ongi-etorria gomendatzen duen: "Ongi-etorri egizue elkarri !" (1Pe 4, 9), eta Jondoni Paulok dio apezpikuaz: "Begiraleak izan behar du ongi-etorri egile" (1Tm 3, 2). Horra zergatik gaizki den, berez, ibiltarien eta arrotzen ez ongi hartzea.

Bostgarren ondorioa: Indio barbaroek nahi badizkie Espainolei ukatu herri zuzenbideak, erran bezala, ematen dizkien eskubideak, hala nola salerosketak eta aipatu diren beste ekintzak, Espainolek behar dituzte behin, eskandaluak baztertuz eta zuhurki mintzatuz berenganatu, erakusten dutela gisa oroz, ez direla haiei kalte egitera etorriak, eta nehor makurtu gabe, nahi dutela onartuak izan, eta bakean bizi.

Eta ez dute bakarrik erranen, baina bai frogatuko ere, zeren errana baita:⁶³ "gizon zuhurrek lehenik elez probatzen dituztela gauza guziak". Baina barbaroek ez baldin badute deus entzun nahi eta bortizki jazartzen bazaizkie, Espainolek beren buruak zaintzen ahal dituzte eta behar diren guziak egiten horretarako, zeren zilegi baita indarrari indarrez ihardokitzea. Eta ez hori bakarrik, ez badezakete

ihardok bestela, haizu izanen zaie harresiak eta gotorlekuak eraikitzea eta irainak jasan badituzte, beren Printzearen baimenarekin gaizkileak zigor ditzakete eta beste gerla zuzenbideak balia.

Gerla zuzenaren arrazoia da alabaina, irainari ihardokitzea eta haren zigortzea, jadanik erran dugun bezala, San Tomasen arabera (Summa Theologica, II-II, q. 40). Barbaroek ordea izigarriko bidegabekeria egiten diete Espainolei, herri zuzenbidea haiei ukatuz. Espainolek beraz, beren zuzena ardiesteko gerla egin behar badute, zilegi zaie egitea.

Baina ohartu behar da barbaroak berenaz beldurtiak direla, eta bestalde gaizoak eta ertzoak. Eta Espainolek nahi izan baldin badute ere haien beldurra gainditu, eta beren bakezko xedea erakutsi, beldur ondar zerbait gelditzen ahal zaie oraino, zuzenez, jende horiei, ikusten dutelarik zein arrotzak diren, nola armatuak, eta berak baino biziki indartsuagoak etortzen zaizkien gizonak. Horra zergatik, gertatzen baldin bazitzaien, beldurrak harturik, Espainol batzuen ohiltzea eta erhaitea, Espainol horiei zilegi zitzaien -nola ez?- beren buruen zaintzea. Baina beharko dute hutsik gabeko geriza antolatu, gerlako beste haizukeriez baliatu gabe haien aurka: garaipena eta segurantz ardietsiz gero ez lukete eskubiderik, adibidez, nehor erailtzeko, nehor larrutzeko edo nehongo hiriez jabetzeko. Kasu horretan alabaina, onartu dugu hobenik ez zutela Indioek, eta zuzenez zirela izituak; Espainolek beraz beren burua zaindu behar dute, ahal bezainbatean, ahal bezain kalte guti eginez haiei, zeren norbera zaintzeko gerla baita.

Hor daukagu alde batetik eskubidea eta bestetik ezjakintasun garaitezina eta ez da beraz ezinezko gerla hori zuzena izatea bi aldetarik:

Hala nola, itxurazko ezjakintasun batengatik, Burgundia⁶⁴ atxikitzen dute Frantsesek, ustez berena duten, baina gure Enperadoreak eskualde horren gain jabe eskubide jakina baldin badu, gerla bidez berreskura dezake eta Frantsesek beren aldetik berena zaintzen ahal dute. Hori bera gerta dakiguke barbaroekin eta ez dugu neholaz ere ahortzi behar. Ez dira alabaina berdinak gerla zuzenbideak, egiazko gaiztagin eta hobendunentzat alde batetik, hobengabeen eta ezjakinentzat bestetik. Ez da ere eskandalua berdin baztertzen Farisauen kasuan edo herbal eta tipien kasuan.

Seigarren ondorioa: Espainolek ez baldin badezakete nehondik ere beren burua zain barbaroen erasoetarik, haien hiriez jabetuz eta haiek menperatuz baizik, zilegi zaie hori ere egitea.

Zeren San Agustinek dioen bezala, Bonifazio-ri (Ep. 189, § 6), "Bakea da eta segurantzak, gerlaren helburua". Baina Espainolei zilegi zaienez gero, erran bezala, gerla egitea eta ere, hala beharrez, gerla abiatzea, haizu izan behar zaie gerlaren helburuak, hots bakeak eta segurantzak, eskatzen dituen guzien egitea.

Zazpigarren ondorioa: Demagun bestalde Espainolek ahal guziak egin dituztela, hitzez eta egitez, barbaroei erakusteko, ez dutela haien bakearen nahasteko ez haiei kalterik egiteko xederik. Barbaroek bizkitartean beren malezian iraun balezate eta Espainolen galtzeari jarrai, hauek balukete, etsai maltzurrekin, eta ez hobengabe batzuekin, bezala jokatzeko eskubidea

Eta beraz zilegi zaie orduan gerla zuzenbide guziak baliatzea: etsaien desjabetzea, haien preso eramaitea, haien aitzineko buruzagiak kentzea eta berriak ezartzea, izarian egonez halere, gaiaren eta irainen neurrian.

Ondorio hau argi da, zeren Espainolei zilegi baldin bazaie gerlaren egitea, haizu zaie ere gerla zuzenbideak baliatzea. Frogatzen dugu fedegabe izateak ez baitio nehoi ematen abantail berezirik. Gerla zuzenaren kasuan girstinoen aurka sori diren guziak zilegi dira beraz, berdin, haien kontra.

Herri zuzenbidezko arau orokorra da bestalde, gerlan hartzen diren guziak garailearentzat direla: Ikus Digesta (De Captivis, Si quid in bello legea eta Hostes legea), Decreta (dist. 1, c. Jus Gentium), eta bereziki Institutes (De Rerum Divisione, § Item ea quae ab hostibus), hor erraten baita, etsaiari hartzen diogun guzia, herri zuzenbidearen arabera, berehala gurea dela eta beraz haren gizonak gure esklabu bilakatzen direla.

Eta gainera gerlaz mintzo direlarik, Irakasleek dioten bezala- gerla zuzena daraman Printzea, etsaien Epaile bihurtzen da zuzenbidez, eta haien zigortzeko eta beren gaizkien arabera kondenatzeko, eskubidea du.

Erran guzien bermatzeko hor dugu mandatarien kasua: hauek herri zuzenbidez hunkiezinak dira. Espainolak ordea girstinoen mandatariak dira; barbaroek ondorioz ongi entzun bederen behar dituzte eta ez ohildu...

Hau da beraz Indio barbaroen probintziez jabetzeko eta haien gobernuaren eskuratzeko, maleziarik eta jukutriarik gabe aritzekotan, eta gezurrezko gerla arrazoirik ez bilatzekotan, Espainolek erabili ahal izan duten LEHEN ARRAZOIA. Zeren barbaroek uzten

baldin bazituzten Espainolak, beren salerosketak egitera bakean haiekin, Espainolek ez zuten giristinoen ontasunez baino haienez jabetzeko, aitzakia zuzen gehiagorik izaten ahal.

BIGARREN ARRAZOIA izaten ahal da Kristau erlisionearen hedapena.

Lehen ondorioa da: giristinoek badutela barbaroen probintzietan Ebanjelioaren predikatzeko eta iragartzeko eskubidea.

1. Ondorioa argi dator Kristoren erranetik: "Hotsegizue Berri Ona izaki guziei!" (Mk 16, 15) . Eta Jondoni Pauloren hitzetarik: "Jainkoaren hitza ez da estekatua" (2 Tm 2, 9).

2. Nabari da ere aitzineko erranetarik: Espainolek alabaina baldin badute barbaroengana joateko eta haiekin salerosketak egiteko eskubidea, egia ere irakats dezakete entzun nahi dutenei, are gehiago betiereko zorionari eta salbamenari doakiolarik, ezen ez eta edozein giza jakintzari .

3. Bestenaz, giristinoak ez balira joaten ahal barbaroei Ebanjelioa iragartzera, hauek salbamenetik kanpo geldi litezke.

4. Maitasuna bezala, elkarrekilako zuzenketa, naturazko zuzenbideari dagokio. Barbaroak ordea ez dira bakarrik bekatutan bizi, baina salbamendutik urrun ere; giristinoei dagokie beraz haien bideratzea eta zuzentzea. Gehiago oraino eginbide dute.

5. Erran dugun bezala, gure "lagun hurkoa" dira barbaroak. Jainkoak ordea "ematen dizkio bakoitzari lagun hurkoaren alderako aginduak " (Si 17, 14). Giristinoei dagokie beraz haiei irakastea ezagutzen ez dituzten Jainkozko egiak.

Bigarren ondorioa: Nahiz ororentzat den, eta orori irekia zaien, Aita Sainduak eginkizun hau Espainolei gomendatu ahal izan die eta beste guziei debekatu.

Nahiz Aita Sainduak ez duen nagusitasun tenporalik, lehen erran dugun bezala, zeregin izpiritualei ordenaturikako botere tenporal zerbait badu halere. Hari dagokio bada bereziki, mundu osoan Ebanjelioaren iragartzeaz arduratzea, eta beraz, Ebanjelioaren iragarpena errazteko probintzia haietan, Espainiako Printzei gomendatzen ahal die eginkizuna eta beste guziei debekatzen.

Eta eragotzi ahal izan die ez bakarrik predikatzea, baina ere salerospenak egitea, Erlisionearen hedapenak eskatzen duelarik, zeregin tenporalak eginkizun izpiritualei menperatzen ahal dituelako. Hala beharrez, Aita Sainduaren aginteari eta botereari dagokie beraz erabakitzea. Eta zinez hala izan behar du, zeren beste giristinoak, edozein probintziatarik hara joaten ahal balira, elkar traba lezakete errazki, eta aharrak sor litezke. Ondorioz bazterrak nahas litezke eta fedearen aurrepenak eta barbaroen konbertitzeak atzera egin lezakete.

Bestalde, Printze Espainolen itzalean, eta haien gostuz, dira abiatu itzuliaren lehen urratsak, haiek dute izan Mundu Berria aurkitzeko zoriona eta beraz zuzen da, bestek han sartzeko baimenik ez izatea eta Espainolek bakarrik, berek aurkitu dutenaz gozatzea.

Bakea begiratzeko Printzeen artean eta Erlisionearen hedapena laguntzeko, Aita Sainduak banatu ahal izan zituen Sarrazinoen probintziak, Printze Giristinoen artean, bat bestearen eremuetan ez sartzeko gisan eta orai berdina, Erlisionearen onetan Printzeak izendatzen ahal lituzke, bereziki aitzinean Printze Giristinorik ez zen eskualdeetan.

Hirugarren ondorioa: Barbaroek uzten baldin badituzte Espainolak libreki eta oztoporik gabe, Ebanjelioa predikatzen, -berek Fedea onar dezaten ala ez- ez da hargatik eskubiderik haiei gerla egiteko ez haien lurak hartzeko

Lehenagotik frogatu dugu, laugarren arrazoiari erantzun diogularik. Eta bestalde argi dago San Tomasen arabera, bidegaberik izan ez denean, ez baita gerla zuzenik izaten ahal: ikus Summa Theologica (II-II, q. 40, a. 1).

Laugarren ondorioa: Barbaroen buruzagiek edo herriak berak, ez baldin badituzte uzten libreki Ebanjelioa predikatzera, Espainolek beren xedeak argitu ondoan, ez dadin gaitzik gerta, predikatzeko eta herriaren giristinotzeko eskubidea badute, barbaroek ez nahirik ere, eta horrengatik gerla egin edo eraman behar balute ere, Ebanjelioa bakean iragartzeko baimena barbaroenganik ardietsi arte.

Eta berdina litzateke, predikatzeko baimena emanagatik, barbaroek konbertitzea eragotz balezate, Kristorengana itzultzen direnak hilez edo bestela zigortuz eta besteak nolazpait izituz.

1. Argi dago alabaina barbaroek irain egiten dietela Espainolei, lehen erranek garbi erakusten duten bezala. Badute beraz hauek zergatik zuzenez gerla egin.

2. Barbaroek berek gal lezakete, beren Printzeek zuzenez kentzen ahal ez dieten zerbait abantail. Eta ondorioz, zapalduak diren eta iraina pairatzen duten barbaroen laguntzeko, gerlaren egitea zilegi zaie Espainolei, oroz gainerik auzi garrantzitsu horretan.

Gure erranetik garbi ageri da, Espainolek ez baldin badute beste biderik Erlisionearen hedatzeko, zilegi zaiela ere horrengatik barbaroen lurrez eta probintziez jabetzea, buruzagi berriak izendatzea, aitzinekoak kentzea eta gerla zuzenbidez beste gerla zuzenetan zilegi diren guzien egitea. Baina beti neurritz eta izariz ihardun beharko dute, zuzen den baino urrunago ez joateko. Eta haizu ez denari lotu baino lehen, hobeko da sori denari uko egitea, eta azkenean, orotan, barbaroen ona bilatuko da beti, ezen ez eta Espainolena.

Ez da halere aiantzi behar Jondoni Paulok dioena: "Dena zilegi zait, bainan ez da dena on" (1 Ko 6, 12). Zeren erran den guzia berez zuzena bada ere, gerta daiteke gerlek, erailteek, lapurketek, barbaroen konbertitzea gibelatzen dutela, aurreratzeko eta hedatzeko orde. Horra zergatik horiek oro behar diren ekidin, Ebanjelioari poxelurik ez jartzeko. Eta Berri Ona hedatzeko moldeak oztopo egiten badio Ebanjelioari,

bidez aldatu behar da, eta besterik bilatu. Guk beraz erakutsi dugu bakarrik zer den berez zilegi.

Espainolek armak eta indarra erabili behar izan dituztela han gaindi irauteko, badakit hori ontsa, baina zuzenbideak eta zilegitasunak nahiko zuten baino urrunago joan direla ere, badut beldurra.

Hau izan da beraz, Espainolek barbaroen menperatzeko erabili ahal izan duten BIGARREN ARRAZOI legezkoa.

Baina, oraintxe erran duguna, beti gogoan eduki behar da, berez zilegi dena ez dadin gertatzez gaizto bilaka, zeren Aristotelen (Etika, 1. III) eta Dionisioren arabera (De Divinis Nominibus, c. 4), osoki ona nahi du ongiak sorgia, baina gaizkiak alde txar soila aski du.

HIRUGARREN ARRAZOIA aitzinekotik datorrena, haxe izan daiteke: Kristorengana itzuli diren barbaro zenbait, beren Printzeek berriz idolatriara bildu nahi baldin badituzte, indarrez edo beldurrez, Espainolei horrengatik, ezinbestean zilegi zaie, gerla egitea, gaiztakeriari uko egitera barbaroen behartzea, gerla-legeak etsaien aurka erabiltzea, eta ondorioz, batzutan buruzagiak aldatzea, beste gerla zuzenetan egin ohi den bezala.

Eta horrela ezar daiteke HIRUGARREN ARRAZOIA, ez bakarrik Erlisionearen izenean, baina gizarteko elkartasunaren eta adiskidantzaren ohoretan ere bai. Zeren, Gristinoen Erlisionera etorri direnez gero zenbait barbaro, hauek Gristinoen adiskide eta lagun bilakatu dira, baina "guziei ongia egin behar badiegu, are gehiago fedeaz haurride ditugunei" (Ga 6, 10).

LAUGARREN ARRAZOIA, haxe dateke: Barbaroen alde handia, Kristorengana itzul baledi -zuzen edo makur, erran nahi da mehatxuz edo beldurrez edo behar diren arauak ez begiratzuz- orduan, egiazki giristino diren ber, Aita Sainduak arrazoi doia izan dezake, edo berek eskaturik edo eskatu gabetarik, Printze Giristino bat haiei emateko eta beste buruzagi fedegabeak baztertzeko.

Demagun alabaina, hori eskatzen duela Kristau Erlisioaren begiratzeak, zeren beldurtzeko baita beren buruzagi fedegabeengatik, Giristino haiek Erlisioa arnaga dezaten eta fedea gal, edo beren buruzagiek, aitzakia horrekin, zigor ditzaten. Eta beraz Aita Sainduak, buruzagi horiek aldatzen ahal ditu, fedearen faboretan.

Frogatzen ahal da oraino, Irakasleek eta bereziki San Tomasek Summa Theologica-n (II-II, q. 10, a. 10), erraten baitute zilegi litzaiokeela Elizari fedegabeen baitan diren esklabu Giristino guzien askatzea, legezko presoak balira ere. Hori bera dio, hitzez hitz, Inozentzio IV. ak delako kapituluaren iruzkinean (De Voto, c. Quod super his). Are gehiago zilegi litzaioke beraz Elizari beste Giristinoen askatzea, hauek ez direnez gero esklabuak bezainbat lotuak.

Emaztea ere bestalde lotua da bere senarrari, sehia bere nagusiari bezala, edo gehiago, lokarri lehena Jainko zuzenbidezkoa baita eta ez bigarrena. Fedearen laguntzeko ordea zilegi izaten zaio emazte kristauari bere senar fedegabearenganik bereiztea, honek nakaizten baldin badu bere erlisioarengatik: Argi dago Jondoni Pauloren erranetik (1 Ko 7, 15-16) eta Decretalia-etarik (De Divortiis, c. Quanto). Egia erran ohitura ere bada senar-emaztetarik bat fededun bilakatzen delarik, lagun

fedegabearenganik bereizten dela. Eta beraz Elizak fedearen faboratzeko eta arrisku guzien urruntzeko badu ahala buruzagi fedegabeen menetik Giristino guzien askatzeko, eskandalu oro baztertuz gero. Hori da beraz LAUGARREN ARRAZOI legezkoa.

BOSTGARREN ARRAZOIA izan daiteke⁶⁵ buruzagi barbaroen beren tirania edo hobengabeak zapaltzen dituzten lege basatiak, hala nola hobengabeak sakrifikatzen direlarik edo gaizkirik egin ez duten gizonak erailtzen, haien haragia jateko. Ezen daukat Espainolei zilegi zaiela, Aita Sainduaren baimenik gabe ere, barbaroen eragozte horrelako ohitura edo zeremonia izigarrietarik, zeren haizu baita hobengabeen begiratzea zuzenkontrako heriotzetik.

Frogatzen da, Jainko Jaunak bakoitzari eman baitizkio hurko lagunaren aldeko manamenduak. Barbaroak alabaina gure urko laguna dira. Nornahik beraz badu eskubide haien zaintzeko horrelako tiraniaren eta zapalkuntzaren aurka; eta Printzeen egitekoa izanen da hori oroz gainetik.

Frogatzen da oraino Liburu Sainduen erranetik: "Itzuraraz itzazu erailtzera daramatzatenak eta pairatzera herrestatzen dituztenak hortik atera" (E.Z. 24, 11). Ez da hori hartu behar bakarrik izatez heriotzera daramatzatenentzat, baina behartzen ahal dira ere barbaroak, horrelako zeremoniei uko egitera. Eta ez baldin badute nahi, haizu da horrengatik gerla egitea eta haien aurka gerla zuzenbideak baliatzea. Ohitura basa horiek ez baldin badira bestela kentzen ahal, orduan zilegi da haien buruzagien aldatzea eta gobernu berria ezartzea. Natura-

lezaren kontrako bekatuak zigortzen ahal direlako Inozentzio IV. aren eta San Antoninoren iritzia zuzena da kasu horretan.

Eta barbaro guziek delako ohiturak eta zeremoniak onartzen dituztela eta Espainolek gaitz horietarik begira ditzaten ez dutela nahi, ez da eragozpenik, zeren kasu horretan ez dute berek eskubiderik ez beren buruen ez beren haurren heriotzera eramateko.

Hori izan zitekeen BOSTGARREN ARRAZOI legezkoa.

SEIGARREN ARRAZOIA izan zitekeen egiazko hautua bera, hala nola Espainolen gobernuaren zuhurtzia eta gizatasuna ikusiz, barbaroek berek, buruzagiek ala bestek, beren baitarik hautatzen baldin bazuten Printzetako Espainiako Erregea.

Hori horrela balitz, natura legez ere legezko arrazoia izan zitekeen.

Edozein Erresumak alabaina, hautatzen ahal du bere jauna, eta ez da horrentzat beharrezko denen baimena, gehiengoaren nahia aski da, zeren bestalde erran dugunaren arabera, Herriaren onaz dihardugularik, gehiengoaren erabakia da lege⁶⁶, besteen erranagatik. Ez liteke deus egin bestenaz Erresumaren zerbitzuko; biziki neke baita herritar guziak aburu bereko izatea.

Ondorioz, hiri edo herrialde batean, Giristinoak gehiengoa balira, eta fedearen faboretan eta herriaren onetan Printze Giristinoa nahi

balute, badut uste hautatzen ahal luketela, besteak kontra izanagatik, eta beste buruzagi fedegabeak baztertu behar balira ere. Diot Printze hori hauta lezaketela ez bakarrik berentzat, baina Erresuma guziarentzat.

Horrela Frantsesek, Erresumaren onetan aldatu zuten beren Printzea eta Childeric-eri kendurik erregetza, Pipinori, Charlemagnen aitari eman zioten. Eta Zakarias Aita Sainduak aldaketa onetsi zuen⁶⁷. Eta hori izaten ahal da SEIGARREN ARRAZOIA.

ZAZPIGARREN ARRAZOIA elkartasunaren eta adiskidantzaren gainean finkatzen ahal da.

Barbaroek ezen, badituzte batzuetan beren artean gerla zuzenak, bidegabea jasan duenak gerla egiteko eskubidea baitu; eta honek Espainolak laguntzera deitzen ahal ditu eta hauek garaipeneko irabazietan partehar dezakete.

Tlaxkaltekek horrela egin zutela Mexikarren aurka erraten da; Espainolekin hitzartu omen baitziren, haiek lagunt zitzaten Mexikarren aurka gudukatzeko eta gero Espainolek ukan zezaten gerla zuzenbidez har zezaketen guzia⁶⁸.

Argi dago alabaina, gerlako kausa zuzena dela, adiskideen eta lagunuen aldeko laguntza, Kaietanok ere dioen bezala Summa Theologica-ren iruzkinean (II-II, q. 40, a. 1) . Zeren eta zuzen baita Erresuma batek arrotzen laguntza izan dezan etsaien garaitzeko, gaiztagin arrotzen kontra.

Frogatzen dugu oraino zeren Erromatarrek oroz gainetik horrela hedatu baitzuten beren Inperioa, beren adiskidei eta lagunei laguntza ekarriz: Aitzakia horrekin gerla zuzenak egiten zituzten eta gerla zuzen-

bidez Probintzia berriak beretzen. Eta bizkitartean ontzat hartzen dute Erromatarren Inperioa bai San Agustinek (De Civitate Dei, 1. III) bai San Tomasek (Opusculum 21); Silbestrok onartu zuen enperadoretzat Konstantino Handia eta Ambrosiok Teodosio. Alta bada ez zuketan Erromatarrek beste legezko arrazoirik mundu osoaren menperatzeko, gerla zuzenbidea baizik, hura baitzuten maizenik erabili beren lagunen zaintzeko eta mendekatzeko.

Gisa berean Abraham ere, Salemeko Erregearen eta harekin tratatu egin zuten beste Erregeen mendekatzeko, eskualde haietako lau Erregeen kontra gudukatu zen (Hs 14), berak kalterik ez jasanagatik haien aldetik.

Hori da itxuraz ZAZPIGARREN ETA AZKEN ARRAZOIA, Espainolek erabili edo erabiltzen duketena Indio barbaroak eta haien Probintziak beretzeko eta menperatzeko.

BESTE ARRAZOI BAT baliteke, ez eiki baliatzeko, baina eztabaidatzeko, batzuek legezko baitaukate. Nik horretaz ez dut deus aitzinatzen, baina ez naiz osoki gaitzestera menturatzen. Eta hona zer dioen:

Nahiz ez diren osoki eroak delako barbaroak, erran izan den bezala, ez dabilta halere eroetarik hain urrun, eta horrengatik ezin dute berek finkatu ez zuzendu legezko Gobernurik jendetasunaren eta gizatasunaren arabera.

Ondorioz ez dute barbaroek ez lege egokirik ez epaikiririk. Gehiago dena, ez dira on beren etxaldeak erabiltzeko ere. Horra zergatik ez duten ez literaturarik ez arte ederrik ez arte mekanikorik ere, ez lurgintza aberatsik ez arogorik ez bizitzeko baliagarri eta beharrezko den beste gauza anitzik. Erran genezake beraz, haien onetan Printze Espainolek hartzen ahal luketela hango ardura, haien hirietan ezarriz gobernadoreak eta prefetak, bai eta nagusi berriak ere, haien onerako izanen dela argi izanez gero.

Ene ustez, ekintza hori onartu behar liteke, zeren ez baita dudarik barbaro guziak ero balira, hori ez litekeela bakarrik haizu baina zinez egoki ere.

Gehiago dena, horren egitera behartuak litezke Printzeak, barbaro haiek haurrak balira bezala. Eta iduri luke berdina dela haien kasua eta eroena, ezen ez dira nehondik ere on -edo doi-doietarik- beren buruen gobernatzeko, eroak edo animaleak edo basabereak baino hobeki: haien hazkurria ez da basabereena baino hobe, eta doi doia jangeiagoa.

Eta beraz gizon zuhurragoen gobernuaren esku uzten ahal litezke.

Eta hori ene ustez froga daiteke, zeren eman dezagun Indioen arteko jende heldu guziak zortez hiltzen direla eta bizirik gelditzen direla bakarrik haurrak eta nerabeak, adimendu apur bat, egia erran, badutenak, baina haurtasunari eta nerabezaroari dagokiena soil soilik. Kasu horretan, Printzeek beren gain har litzakete eta horrela begira, hein berean direno.

Pundu hau onartuz gero ezin da ene ustez ukatu, gauza bera egin daitekeela buraso barbaroekin, hauen kamustura halakoa omen baita, haien artean ibili direnen arabera, non beste herrietako haurren eta eroen maila, errazki gainditzen duen.

Maitasunezko manamenduaren gainean finka genezake gure eginkizuna, zeren gure "lagun hurkoa" baitira barbaroak eta eginbide baitugu haien onari begi ematea. Pundu hori aitzina genezake, baina erran dugun bezala, gogor egin gabe eta beti gogoan edukiz, barbaroen onetan eta faboretan egiten dela eta ez bakarrik Espainolen abantailetan, zeren arimen salbamenaren arazo guzia sartzen baita horretan. Eta gainera oroitaraz daiteke ere, lehenago erran duguna, hots gizaki batzuk naturalezaz esklabu direla, eta hori dela menturaz barbaro guzien kasua; eta orduan, esklabuak bezala gobernatzen ahal litezke nolazpait.

ONDORIOAK

Eztabaida honen guziaren ondorioa hauxe da, ene ustez: arrazoi hauek guziak suntsi balitez, eta barbaroek ez balezate eman gerlaren egiteko arrazoi funtsezkorik, eta Espainiako Printzerik ez balute nahi onartu, eta abar.... orduan ibilbide honek guziak behar lukeela gelditu, bai eta salerosketak ere, Espainolen kalte handitan, eta Printzeen interesek makur izigarriak jasan litzaketela; baina hori onetsezina litzateke.

Hona zer dudan ihardesten:

1. Salerospenek ez lukete gelditzerik, zeren erran dugun bezala, badituzte barbaroek anitz gauza, Espainolek harremanez eskura ditzaketenak.

Badira ere beste anitz gauza barbaroek berek bazter utziak edo hartu nahi dituenarentzat dauzkatena. Portugesek ere salerospen handiak egiten dituzte barbaroen iduriko jendeekin, batere haiek menperatu gabe eta abantail handiekin.

2. Errege irabaziak ez litezke menturaz tipiagoak, zeren zerga apur bat ezartzen ahal liteke barbaroen herritik ekarri urre eta zilarrentzat, edo bostgarrena edo gehiago, nolakoa den lehengaia. Eta zuzen baizik ez litzateke, Printzeak baitzuen alabaina abiatu lehen itzulia eta hark baitu segurtatzen tratularien geriza.

3. Argi dago, barbaro andana handia konbertituz gero, ez litzatekeela ez egoki ez zuzen gure Printzeak osoki beregain utz dezan probintzia haien ardura.

Indioez, edo Barbaroen kontrako Espainolen gerla zuzenbidez, aita Francisco de Vitoriaren bigarren

irakaspena

BILDUMA

1. Zilegi zaie giristinoei soldadu izatea eta gerla egitea.
2. Noren esku dago gerlaren aldarrikatzea eta egitea?
3. Nornahik -pertsonek pribatu batek ere- baluke eskubidea, bere burua zaindu beharrean, gerlari lotzeko eta gerlaren egiteko.
4. Gaiztagin batek edo etsai batek jaukitzen duen gizonak ba ote luke erasotzaileari jazartzeko eskubiderik, iheseginez itzurtzen ahal balitzaio ere?
5. Edozein estatuk⁶⁹ badu gerlaren aldarrikatzeko eta egiteko ahalmena.
6. Printzeak badu, gerlaren aldarrikatzeko eta egiteko Estatuak duen ahalmen bera.
7. Zer da egiazki Estatu eta nor da zehazki delako Printzea?⁷⁰
8. Estatu batzuek edo Printze zenbaitek nagusi edo jaun bakar bera baldin badute, beren baitarik gerla has eta abia ote dezakete, nagusiaren baimenik gabe?
9. Estatu nagusien buru ez diren Printzeek edo manupekoek⁷¹, beste estatu baten partzuer direlarik, ez dute gerlarik ez hasten ez egiten ahal. Eta zer erran behar dugu Hiriez?⁷²
10. Zein izan daitezke gerla zuzen baten arrazoiak eta kausak? Eta frogatzen da erlisione ezberdintasuna ez dela gerla zuzenaren aitzakia izaten ahal.
11. Inperioaren hedapena ez da gerla zuzen baten kausa.
12. Printzearen beraren ospea ez da gerla zuzenaren kausa.
13. Zuzengabekeria bat bakarrik izan daiteke gerlaren kausa zuzena.
14. Edozein zuzengabekeria ez da aski gerlaren aldarrikatzeko.
15. Gerla zuzena denean, Herriaren ona zaintzeko behar diren guziak egitea zilegi da.
16. Gerla zuzena denean, galdu diren ontasunak oro edo haien ordaina berreskuratzea zilegi da.
17. Gerla zuzena denean, gerlan xahutuak eta etsaiak zuzengabeki egin kalteak, etsaiaren ontasunekin ordaintzea zilegi da.
18. Gerla zuzena den kasuan, bere ontasunak etsaiarenganik berreskuratu ondoan, zer egin dezake oraino Printzeak?
19. Gerla zuzena den kasuan, Printzeak gerla irabazi duelarik, bere ontasuna berreskuratu, bakea eta segurantz finkatu, eskubide du oraino etsaiek egin kaltea menderatzeko, etsaia bera zentzarazteko eta egin kalteen arabera zigorkatzeko.
20. Gerla zuzena izateko, ez da beti aski Printzeak uste izan dezan, bera zuzenean dabilela.
21. Gerla zuzena denentz, biziki hurbiletik eta arta handiarekin ikusi behar da.
22. Ea menpekoek eginbide duten ikertzea zer den gerlaren kausa? Eta argi ikusiz gero gerla ez dela zuzena, ez zaiola menpekoari zilegi gerlan partehartzea, Printzeak manaturik ere.
23. Menpekoek, gerla ez dela zuzena sinetsiz gero, ez dute haizu partehartzea, zuzen ala makur sinetsirik ere.
24. Senatoreek, gobernadoreek, eta orobat Erregearen edo estatuaren aholku kontseilura deituak edo onartuak diren guziek, eta beren baitarik heldu direnek ere, eginbide dute gerlaren kausa zuzena denentz ikustea.
25. Gerlaren kausak ikertzeko eginbiderik ez dutenei, zilegi zaie gerla egitea, beren aitzindariak sinesten dituztelako.
26. Zein kasutan ez lukete aitzakiarik gerlan ari direnek, beren gerla ez dela zuzena, ez jakiteko?

27. Zer egin, gerlaren zuzentasuna dudazkoa delarik? Eta nola, Printze bat bere ontasunaren legezko jabe baldin bada, ez dion beste Printze batek armaz eta gerlaz edekitzen ahal, dudatan deno.
28. Hiri baten edo probintzia baten kasuan, legezko jaberik ba ote den zalantzan delarik, eta bereziki bere legezko jabea hilik bazter utzia delarik, zer egin behar den?
29. Nahiz ontasun bat bakean gozatzen duen, dudarik jauzten baldin bazaio, norberak eginbide du artoski ikertzea jakiteko zuzen ea harena den ala beste batena.
30. Auzia zuritu ondoan, legezko jabea ez da behartua bere ontasunaren uztera, zilegi zaio atxikitzea, funtsezko dudak irauten dueno.
31. Zalantzak badiirelarik, menpekoei zilegi zaie beren erregeari jarraikitzea ez bakarrik ihardokitzeko bainan ere bai jazartzeko gerlabideetan.
32. Ea gerta daitekeen gerla zuzena izatea bi aldeetarik? Eta nola ez den gertatzen ahal horrelakorik, ezjakinaren gainean baizik.
33. Ez jakinaren gainean, printze batek edo menpeko batek, zuzena ez den gerla batean partehartu duelarik, ea eginbide duen hartu duenaren itzultzea, gerlaren bidegabekeriaz konturatu delarik?
34. Gerlan haizu ote den hobengabeen erailtzea?
35. Sekulan ez da berez zilegi hobengabeen nahitara erailtzea.
36. Turkoen aurkako gerla batean haizu ote den emazteen eta haurren erailtzea? Eta zer erran lurralde giristinoetako laborariek, zibilek, bidaiariek, arrotzek eta apezek?
37. Hobengabeen ustegabetarik erailtzea, eta berdin nahitara ere, batzuetan zilegi da, eta besteetan ez.
38. Geroan kalte egin dezaketen hobengabeen erailtzea haizu ote den?
39. Etsaiaren lurraldeetan haizu ote den hobeengabeen larrutzea? Eta zer den zilegi haiei hartzea?
40. Gerla ongi egin badaiteke laboraririk eta beste hobengaberik hunki gabe, ez dirudi haizu dela haiei ebastea. Eta zer erran etsaien artean dabiltzan bidaiariek eta arrotzek?
41. Zuzengabeki hartu dituzten ontasunak, ez badituzte itzuli nahi etsaiek, eta kaltea jasan duenak ez badu berea biltzeko beste biderik aurkitzen, nolanahi egin dezake hobendunenganik, eta berdin hobengabeenganik.
42. Haurrak eta hobengabeak ez baldin badira ere hil behar, ez ote dira bederen preso eta esklabu eramaiten ahal?
43. Etsaiak ez baldin badu hitzartua begiratzeko, eta hitza jaten badu, meniaren denboran edo gerlaren amaieran utzi dituen bahituriak erailtzea zilegi ote da?
44. Gerla batetako hobendun guziak erailtzea zilegi ote da?
45. Gerla batean gudukatzen diren guziak, hiri baten zaintzen edo erasotzen ari direnak, bereizkuntzarik gabe eta arriskuak irauten dueno, erailtzea zilegi da.
46. Garaitu ondoan, eta arriskua baztertuta delarik engoitik, hobendunen erailtzea zilegi da.
47. Laidoaren zigorkatzeko bakarrik ez da beti zilegi hobendun guzien erailtzea.
48. Batzuetan zilegi da, eta baitezpadako ere, hobendun guzien erailtzea, fedegabeen kontrako gerlan bereziki. Zer egin ordea giristinoen kontrako gerlan?
49. Hobendun direnez gero, presoak eta errendatu direnak erailtzea zilegi ote da?
50. Gerla zuzenean hartu direnak, hartu eta atxiki dituztenen ontasun bilakatzen ote diren? Eta nola gerla zuzenean hartuak, hartzaleen ontasun bilakatzen diren, hauek zuzenkontra galduak eta hauen gerlako gastuak ordaintzen dituzten neurrian.
51. Herri zuzenbidearen arabera, ontasun higigarri guziak hartzalearen ontasun bilakatzen direla, damuen izaria gainditurik ere.
52. Ea zilegi den soldaduen uztea hiri baten zakuratza? Eta nola ez den bakarrik haizu, bainan ere batzuetan beharrezko.

53. Ez zaie zilegi soldaduei, baimenik gabe harrapakinak hartzea edo su ematea, bestenaz ordaina zor lukete.
54. Etsaien lurrak, gotorlekuak eta hiriak hartzea eta atxikitzea zilegi da, jasan damuen ordainketak eskatzen duen neurrian.
55. Etsaien gotorleku bat edo hiri bat hartzea eta atxikitzea zilegi da, segurantzaren begiratzeko, arriskua urruntzeko, bere burua zaintzeko, kalterik egitera etsaien ez uzteko, eta horrela delarik.
56. Jasan laidoarengatik eta zigor gisa, hots, mendekatzeko bezala, zilegi da lur puska baten kentzea etsaiari. Eta zergatik berdin haizu den, neurri batean, gotorleku edo hirihetsi baten eskuratzea.
57. Ea zilegi den etsai garaituen zerga behartzea
58. Ea zilegi den Printze etsaien kargutik kentzea, ordainak hartzea eta ezartzea edo nork beretzat boterea eskuratzea. Eta nola ez den haizu, nolanahika horrelakorik egitea, zernahi izanik ere gerlaren kausa zuzena.
59. Noiz den zilegi Printze etsaien kargutik kentzea, irakasten da.
60. Gerlako legeak eta arauak zehazten dira.

SARRERA

Indioak deitzen diren barbaroen probintzien hartzeko eta atxikitzeko, azken buruan darabiltzaten arrazoiak, gerla zuzenbidetik datoz oroz gainetik. Horra zergatik, Espainolek beste probintzia batzuek jabetzeko aitzinatzen dituzten arrazoi zuzen ala okerrean lehen Irakaspenean eztabaidatu ondoan, iduritzen zaigun, aitzineko Irakaspenaren osatzeko, behar dugula laburzki eztabaidatu Gerla-zuzenbideaz.

Baina aizina eskasez ez dugu erraten ahaliko, gai honetaz erraten eta eztabaidatzen ahal litekeen guzia. Ez dugu beraz garatu ahal izan, gaiaren eta argudioaren hedadurak eta garrantziak hartze zuketaren izariko idazkia, baina gure denbora apurraren arabera egin dugu. Horra zergatik altxatuko ditudan bakarrik gai honetako proposizio nagusiak beren argumentu laburrekin, eta bazter utziko gure eztabaidan sar litezkeen anitz galde.

LEHEN ZATIA

Gerlako Baldintza Zuzenak

Lau galde⁷³ hauei ihardetsiko diet:⁵

- 1.-ik Giristinoek ba ote dute egiazki gerla egiteko eskubiderik?
- 2.-ik Nork ote du gerlaren aldarrikatzeko eta egiteko eskubidea?
- 3.-ik Zein dira zuzenez gerlaren egiteko izaten ahal eta behar diren kausak?
- 4.-ik Gerla zuzena delarik, zer da zilegi etsaien aurka egitea, eta noraino?

LEHEN GALDEA: Zilegi ote zaie giristinoei gerla egitea?

Iduri luke nehondik ere ez direla haizu giristinoak gerla egitera. Ezen dirudienez, debekatua zaie beren buruen zaintzea bera, errana izan baitzaie: "Ene maiteak, ez izan zuen buruen aspertzaile, utz bide Jaunaren haserreari!" (Er 12, 19). Eta Jaunak berak dio Ebanjelioan: "Norbaitek eskuineko mazelan joiten bazaitu, eskain iezaiozu bestea ere. Eta nik derratzuet berriz ez bihurtzeko gaiztoari" (Mt 5, 39). Eta oraino: "Ezpata darabilena, ezpataz hilen da" (Mt 26, 52).

Eta ez da aski ihardestea erranaldi horiek guziak aholkuak direla eta ez aginduak, zeren ez litzateke makur tipia, Giristinoen gerla guziak Jaunaren aholku baten aurka eginak balira.

Irakasle guzien iritzia eta Elizaren ohitura onartua, bestaldera badoa.⁷⁴

Arazoa apur bat argitzeko, ohar bat egin dezakegu: Nahiz Katolikoak aski bat datozen horretan, Luterok⁷⁵, deus ez uzteko kutsatu gabe, ukatzen du bizkitartean Giristinoek armak har ditzaketenik Turkoen kontra ere, berme dituela bai guhaurk oraintxe aipatu ditugun Liburu Sainduetako pasarteak, bai eta honelako argudio hau: Turkoek Giristinoak jaukitu baldin badituzte, Jainkoaren nahia izan da. Ez da ordea zilegi

Jainkoaren nahiari ihardokitzea.... Baina honetan ez ditu, beste ikasgaietan bezala, bereganatu Alemanak, hauek menturaz gerlarako jaioak direlako.

Tertuliano⁷⁶ ere ez dabil hain urrun ikuspegi beretik: Zinez soldadugoa ongi dagokienez Giristinoei galdatzen dio bere buruari, De Corona Militis liburuan. Eta azkenean iduri luke haren arabera soldadugoa debekatua zaiola Giristinoari: "auzitan sartzea bera debekatua zaionez gero".

Baina iritzi oker horiek bazter utzi-eta, hauxe izanen da gure ihardespen bakarra: Bai zilegi zaie Giristinoei soldadu izatea eta gerla egitea.

1. Hori da San Agustinen⁷⁷ irakaspena, pasarte anitzetan argi finkatzen duena, Contra Faustum-en, 83 Quaestionum-en, De Verbis Domini predikuan, Contra Manichaeos bigarren liburuan, De Puero Centurionis predikuan, eta Ad Bonifatium gutunean.

Eta San Agustinek berak bezala argudiatzen dugu, Jondoni Joanes Batistak soldaduei erranetarik: "Nehorekin ez erabil bortxarik! Irainik ez egin nehoi!" (Lk 3, 14). Kristau irakaspenak osoki kondena baleza gerla, dio San Agustinek, salbamendurako aholku eske heldu direnei, Ebanjelioak gomenda liezaieke berehala armak uztea, eta berak armadatik ilkitzea; Joanesek bada, erraten die: "Nehorekin ez zazue erabil bortxarik, eta zuen soldatarekin konforma zaitezte!".

2. San Tomasek berriz, Summa Theologica-n (II-II, q. 40, a. 1) argudiatzen du honela: Herriko gaiztaginen eta hiritar bihurrien aurka ezpata hartzea eta armak erabiltzea zilegi da Jondoni Pauloren arabera: "Ezen ez du buruzagiak alferrik ekartzen ezpata, Jainkoaren eskumakil baita Haren haserreari asper emateko gaizkilearen gainean" (Er 13, 4). Berdin zilegi da beraz kanpoko etsaien kontra ezpata eta armak erabiltzea. Horrengatik Printzei erraten zaien: "Noharroina aska ezazue eta beharra atera bekatorearen aztaparretik" (Sal 82, 4) .

3. Gerla zilegi zeukan natura legeak, Abrahamen kasuak erakusten duen bezala: Lau Erregeen aurka gudukatu baitzen (Hs 14, 14). Lege idatziak berdin egin zuen, Dabiden eta Makabearren kasuaren arabera. Ebanjelioak ordea ez du deus eragozten, natura-legeak zilegi utzi duenik, San Tomasek bere Summa Theologica-n (I-II, q. 107, a. 4), ederki erakutsi duen bezala. Horrengatik deitzen da eta "Askatasun Legea" (Jk 1, 25 & 2, 12). Ondorioz, zilegi zena natura-legez ala idazki-legez, berdin zilegi dateke Ebanjelio-legez⁷⁸. Eta ez da zalantzarik izan

behar bere burua zaintzeko egiten den gerlaz, zeren zilegi baita indarrez ihardokitzea indarrari (Digesta, De Justitia et Jure, Vim vi legea) ⁷⁹.

4. Froga daiteke ere erasotzeko gerlaren⁸⁰ kasuan, erran nahi baita, ez delarik bakarrik bere burua zaindu nahi, edo berdin bere ontasuna berreskuratu, baina ere jasan irainaren zigortzeko xedea delarik. Eta erran bezala, San Agustinen arabera frogatzen dut (83 Quaestionum), pasarte bera hartzen baitu Grazianoren Decreta-k (C. XXIII, q. 2, c. Dominus): "Irain baten zigortzeko egiten direnak deitu ohi dira gerla zuzenak; hala nola edozein nazio ala herri zigortu behar delarik, ahantzi zaiolako edo bere herritarrek egin kalteak mendeatzea edo hauek zuzengabeki hartuak itzultzea".

5. Hona beste froga bat erasotzeko gerlaren alde: Ez da erraz ongi defenditzea ere, edozein irain egin edo egin nahi ukan duten etsaiak ez baldin badira zentzarazten ahal. Zeren zigorraren beldurak ez balitza gaizkitik urrunt, delako etsaiak ausartago litezke ondoko erasoaldian.

6. De Verbis Domini predikuan⁸¹ eta Ad Bonifatium gutunean⁸², San Agustinek dioenaren arabera, bakea eta Erresumaren segurantzak dira gerlaren helburuak, baina ez da Erresumaren segurantzarik izaten ahal, gerlaren beldurak ez baldin baditu bidegabekeriatik urruntzen etsaiak. Eta zinez, gerlaren baldintzak ezinago okerrak litezke, etsaiak zuzenkontra sartu direlarik Erresuman, ez balitz zilegi etsaien urruntzea eta barnago joan gabe haien geldiaraztea baizik .

7. Mundu osoaren onari eta xedeari⁸³ doakio zazpigarren argumentua: Zeren, ez luke zorionean irautea ahal Munduak, eta okerrenean leudezke gauza guztiak, tiranoek, gaiztaginek eta ohoinek, zigorraren beldurrik gabe, beren kalteak egin balitzate, eta jende onak eta hobengabeak

lehertzen balituzte; eta ordainez ez balitzaie haizu hobengabeei, hobendunen zigortzea.

8. Argumentu indartsua ematen digute azkenik moralak gaitan, gizon zuzenen eta sainduen ereduak eta itzalak. Haietarik anitzek alabaina, ez zituzten bakarrik zaindu beren sorterrak eta beren ondasunak, gerlan ihardokiz, baina etsaiek egin edo egin nahi ukan zituzten kalteak menderatu zituzten ere, gerlan jazarriz. Hala nola Jonathanek eta Simun-ek, Jambri-ren semeen aurka, beren anaia Joanesen heriotza menderatu zuten (1 Mk 9, 32-42).

Eta Eliza giristinoaren historian badugu, Konstantino Handiaren kasua edo Teodosio Handiarena, eta beste hainbeste enperadore hain giristino eta hain argien kasuak, gerla asko egin baitute, bai ihardokiz bai jazarriz, apezpiku sainduenak eta jakintsuenak aholkulari zituztelarik.

BIGARREN GALDEA: Noren esku dago gerlaren aldarrikatzea eta egitea?

Hona lehen ihardespena: Nornahiren, berdin pertsona pribatu baten esku dago, bere burua zaintzeko, gerlaren abiatzea eta eramatea.

Hori argi dago, Digesta-ren arabera (ikus aitzinekoan errana) haizu baita indarrez indarrari ihardokitzea. Horra zergatik, nehoren baimenik gabe, nornahik horrelako gerlaren bat egin dezakeen, ez bakarrik bere buruaren zaintzeko baina bai ere bere ondasun idorren begiratzeko.

Ondorio horrek ordea sortzen digu berehalako galde hau: Etsai batek edo ohoin batek jaukitu duen gizonari zilegi ote zaio bere erasotzalea joitea, ihesi joanez itzurtzen ahal lekioketarik?

San Antoninok ihardesten du ezetz, ez delako hori aitzakiarik gabeko moldez nork bere burua zaintzea. Bakoitzak alabaina bere burua zaindu behar du, ahal bezain kalte guti eginenez bere jaukitzaleari. Eta beraz, ihardokitzeak behartzen bazaitu erasotzalearen hiltzera edo handizki zaurtzera, itzurtzen ahal zintzaizkiolarik ihesi eginenez, ihesi joatea eginbide duzula, badirudi .

Nikolas Palermokoak bereizketa bat egiten du bizkitartean Decretalia-ren iruzkinean (De Restitutione Spoliatorum, c. Olim): Ihesa alabaina desohore handia baldin bazaio jaukituari, ez da hau ihesegitera behartua eta zilegi zaio ukaldika ihardokitzea erasotzaleari. Desohore edo errankizun arriskurik aldiz ez balitz, hala nola jaun handi eta puxant batek jauki baleza edozein fraile edozein baserritar, eginbide luke honek ihesari ematea.

Bartolok aldiz dauka, Digesta-ren iruzkinean (De Poenis, 1. legea De Sicariis, Furem legea), bereizketarik gabe haizu dela ihardokitzea eta ihesegiteko eginbiderik ez dela, zeren eta ihesa, berez, kaltegarri baita (Digesta, De Injuriis, Item apud Labeonem legea). Zilegi da alabaina, nork bere ontasunen zaintzeko armaz ihardokitzea (ikus Olim delako kapitulua, eta Sexta, De Sententia Excommunicationum, c. Dilecto); are gehiago beraz gorputzeko zauri baten baztertzeko, beste edozein kalte materiale baino kaltegarriago baita zauri bat (Digesta, De Poenis, In Servorum legea).

Azken aburu hori, seguraski eta batere dudarik gabe, onartzen ahal da, bereziki lege zibilek jokamolde hori onesten dutelarik, hala nola Furem delako legeak, Ez du alabaina nehork hutsegiten legeari jarraikiz, legeek ematen baitiote kontzientziari eskubidearen bermea. Horra zergatik, natura-legeak ez baliezagu erailtzeko eskubiderik eman gure ontasunen zaintzeagatik, zuzenbide zibilak eman liezaguke,

eta egiaz, ez bakarrik laikoei, baina apezai eta fraileei ere bai, eskandalua baztertuz gero.

Bigarren ihardespena: Edozein Estatuk⁸⁴ badu gerlaren aldarrikatzeko eta egiteko ahalmena.

Horren frogatzeko, ikusi behar da ez direla horretan berdinak pertsona pribatua eta Estatua.

Pertsona pribatu batek badu bere burua eta bere ontasunak zaintzeko eskubidea, erran den bezala, baina jasan kaltea mendekatzeko baimenik, ez du; ezta ere ontasun galduen, denboraren buruan, berreskuratzeko ahalmenik.

Legelarien arabera ordea, arriskua hor delarik, hots, "orduan bertan" behar da zaindu, eta horrengatik gerla baimena galdua da, defentsa beharrunea iragana den unetik. Bizkitartean, ene iduriko, zuzengabeki joa izan denari zilegi litzaioke berehala ihardokitzea, erasotzalea ez baledi ere urrunago joan: eta adibidez, mazelako bat ukan duenak, berehala ezpataz ihardets dezake, ez ordea mendekatzeari; desohorea eta ahalkea gainditzeagatik baizik.

Estatuak berriz badu ahalmena, ez bakarrik bere burua zaintzeko, baina ere bai bere burua eta bere hiritarrak mendekatzeko, eta jasan irainen zigortzeko. Estatuak alabaina,

Aristotelek⁸⁵ Politika-n (l. III) dioten bezala, "berez egin behar du". Eta ez luke aski ongi zaintzen ahal ez herriaren ona ez bere egoera propioa, ez balitu ez irainak mendekatzen, ez etsaiak zigortzen ahal. Erran dugun bezala, gaiztaginak erneago eta ausartago litezke beren kalteak egiteko, gaztigu beldurrik gabe egin ahal balizate.

Baitezpadako da beraz, gizartea zuzen itzulikatzekotan, ahalmen hori ukan dezan Estatuak.

Hirugarren ihardespena: Alor honetan Estatuak duen ahalmen bera badu Printzeak.

Hau da San Agustinek agertzen duen aburua, Contra Faustum delakoan dioelarik:

"Bakea faboratzen duen naturaren legeak eskatzen du gerlaren abiatzeko ahala eta erabakia Printzeen eskutan izan dadin"⁸⁶. Ezen ez da Printzerik Estatuak hautaturik baizik, eta beraz, Printzeak du Estatua ordezkatzeko, eta haren boterea erabiltzen. Gehiago oraino, Estatuak badituelarik legezko Printzeak, hauen esku dago aginte osoa eta hauek gabe ez da egiten ahal ekintza politiko bihirik, ez gerlarik ez bakerik.

Baina ez da erraz jakitea, zer den Estatua eta nor den, zentzu hertsian, Printzea. Ihardets dezagun laburzki, Estatua deitzen dugula zentzu hertsian, "komunitate betegina". Baina zer ote da "komunitate betegina"? Hori da galdea.

Erran dezagun "betegina" eta "osoa" berdindirela, zeren zerbait eskas duena ez da betegina, eta deus eskas ez duena berriz, hura betegina da. Eta ondorioz betegina da berez osoa den Estatua edo komunitatea, erran nahi baita, beste Estatu baten zatia ez dena, eta bere legeak, bere biltzarra, bere buruzagi propioak badituena; hala nola, Gaztela eta Aragoiko Erreinua, Veneziako Printzerria eta beste horrelako Estatuak. Ez da ezen arazorik zenbait Printzerri edo Estatu betegin, Printze beraren esku gerta daitezen. Horra zergatik gerlaren alda-

rrikatzeko eskubidea Estatu beteginari edo haren Printzeari dagokion, eta hari bakarrik. Baina ondorioz, norbaitek galda dezake zuzenki, zenbait Estatu edo zenbait Printze horrelako, Jaun edo Printze Nagusi beraren menpe daudelarik, goiko Jaun horren baimenik gabe, gerlarik aldarrikatzen ahal dutenentz beren baitarik.

Ihardesten dugu baietz, batere dudarik gabe. Hala nola Enperadorearen menpe diren erregeak guduka daitezke elkarren artean, haren baimenik izan gabe; ezen, erran bezala, Estatuak "bereaz egin behar du" eta eskubide hori ez balu, ez lezake "bereaz egin".

Argi dago orduan, Estatu betegin baten buru ez diren, baina beste Estatu baten parte dauden beste Printze eta manupekoek ez dutela gerlaren abiatzeko ez egiteko eskubiderik; hala nola Albako dukeak edo Beneventoko kondeak ez dute Estatu beteginik egiten, Gaztelako Erreinuan sartzen baitira.

Bizkitartean kasu horiek gizalegetik edo herri-legetik datozelako, neurri handi batean, ohiturak berak eman diezaieke Printze horiei ere, gerlaren egiteko ahala eta eskubidea. Eta beraz, herri batek edo beste Printze batek balu aspaldiko ohituraz, bere baitarik gerlaren aldarrikatzeko eskubidea, ez litzaioke ukatu behar, ez balitz ere bestalde Estatu betegina.

Ezinbestek ere berdin zuzenets dezake baimen eta eskubide bera: zeren erreinu beraren barnean hiri bat jazar balekio beste bati edo duke bat beste bati, eta egin diren kalteak zigortzeaz ez baldin bada arduratzen, edo ez ausartzen, Erregea, orduan kalteturik izan den

hiriari edo dukeari zilegi litzaioke ez bakarrik bere burua zaintzea, baina ere bai gerlaren egitea, etsaien zentzaraztea eta berdin gaiztaginen erailtzea.

Ezen bestela ez luke egiazki bere burua zaintzen ahal, etsaiak ez bailitezke kalte egitetik geldi, berena zaintzea baizik ez balezate egin, kalteak jasaten dituztenek. Eta berdin horrengatik pertsona pribatuari zilegi zaio bere erasotzaleari jazartzea, beste biderik ez baldin badu buru egiteko bidegabeari. Aski horrela.

HIRUGARREN GALDEA: Zein dateke gerla zuzenaren arrazoia eta kausa?

Galde hori guziz garrantzitsua da daramagun barbaroen gaiari eta eztabaidari dagokiola.

Lehen ihardespena: Erlisioez ezberdina ez da gerlaren kausa zuzena.

Luzaki erakutsi dugu, gure Lehen Irakaspenean, barbaroen lurrez jabetzeko erabili ohi den laugarren argumentua, hots, kristau fedearen ukapena, baztertu dugularik. Hori bera da San Tomasen aburua Summa Theologica-n (II-II, q. 66, a. 8) eta Irakasle guziena; eta ez dut nehor ezagutzen beste iritzirik duenik

Bigarren ihardespena: Inperioaren zabalkundea ez da gerlaren kausa zuzena.

Argiegi da, froga beharretan izateko. Bestela ezen, gerlako bi alderdiek arrazoi zuzena berdin balukete eta biak hobetik gabe litezke.

Ez litzateke beraz zilegi nehor erailtzea, eta kontraesan bat balitzateke: gerla zuzena balitz eta bertan gerlarien erailtzea ez sori.

Hirugarren ihardespena: Printzearen ospe propioa edo beste edozein interes ez da gerlaren kausa zuzena.

Berdin argi dago: Printzeak ezen, bakea ala gerla bideratu behar du Estatuaren onari buruz, eta ez zaio sori diru publikoaren erabiltzea, eta are gutiago bere menpekoen arriskutan ezartzea, bere ospe propioaren edo bere interesen faboretan. Honek ditu alabaina errege legezkoa eta tiranoa bereizten: tiranoak bere abantail eta interes pribatueta bideratzen baitu boterea eta erregeak berriz, Aristotelek dioen bezala Politika-n (l. IV, c. 10), on publikora.

Estatuarengatik dauka Printzeak bere agintea, eta beraz, Estatuaren onetan behar du baliatu.

Legeak egin behar direla ez bakarren onetan, baina hiritar guzien abantailetan idatzia da Decreta liburuan (dist. IV, c. Erit autem lex, San Isidrorenetik), eta ondorioz, gerlako legeak ere egin behar dira hiritar guzien onetan eta ez Printzearen interes berezien faboretan.

Aristotelek erraten du Politika-n (l. I, c. 3 & 4) herritar askeak esklabuetarik bereizten direla, zeren nagusiek erabiltzen baitituzte esklabuak, beren abantail propioetan, eta ez esklabuen onetan. Herritar askeak ordea ez dira besterentzat; berentzat baizik.

Horrengatik beraz, menpekoak bortxatzen baldin badituzte Printzeek, gudukatzera edo gerlako zergak ordaintzera, ez herriaren onetan, baina beren abantail propioetan, esklabutzat hartzen dituzte herritar horiek.

Laugarren ihardespena: Jasan den iraina da gerlaren kausa zuzen bakarra.

Frogatzen da behin San Agustinen 83 Quaestionum-en erranetarik: "Ohizko irakaspenen arabera, gerla zuzenak eta abar..." (ikus lehenagokoak)⁸⁷.

Iritzi berdina dute San Tomasek, bere Summa Theologica-n (II-II, q. 40, a. 1) eta beste Irakasle guziek.

Erran dugu bestalde, erasotzeko gerla egiten dela, bidegabekeriaren zigortzeko eta etsaien zentzarazteko xedearekin, baina hutsik edo bidegabekeri ez den tokian ez daiteke izan gaztigurik.

Printzeak azkeneko, ez dezake izan arrotzen gainean bere herritarren gainean baino eskumen handiagorik eta nola bere menpekoen aurka ez baitu ezpata hartzeko eskubiderik, non ez duten makur zerbait egin, are gutiago duke besteen aurka izan.

Hor dugu berme aipatu dugun Jondoni Pauloren hitza, Printzeaz mintzo delarik:

"Ez du ez debalde hartzen ezpata; gaizkilearen zigortzeko eta zentzarazteko, Jainkoaren tresna baita" (Er 13, 4). Hortik dator garbiki ez dela zilegi ezpataren erabiltzea, makurrik egin ez digutenen aurka, natura-legeak eragozten baitigu hobetik gabeak erailte.

Bazter uzten dut orai, Jainkoak eman liezagukeen ordena berezia, zeren Hura baita biziaren eta herioaren nagusia, eta bere baitarik beste erabakirik har baitezake.

Bostgarren ihardespena: Edozein bidegabekeria ez da aski gerlaren hasteko.

Honela frogatzen da: zeren ez baita zilegi edozein hutsengatik hiritar edo herritarren itsuski zigortzea, hala nola herioaz, erbesteaz, edo ontasunen konfiskatzeaz. Eta gerlan gertatzen diren guziak, erailketak, suteak eta desmasiak, izigarri gogorak eta basak baitira, ez da haizu

huskeria batzuegatik gaizkileak gerlaz zigortzea; zigorraren neurriak alabaina hutsaren izarikoa izan behar du (Dt 25,2).

LAUGARREN GALDEA: Gerla zuzenbideari buruz, zer da zilegi egitea, eta zertan behar da gelditu gerla zuzenean?

Lehen proposamena: On publikoaren zaintzeko behar diren guziak egitea, zilegi da gerlan.

Hori argi dago, Erresumaren zaintzea eta atxikitzea baita gerlaren xedea.

Gainera, hori bera zilegi zaio, frogatu dugun bezala, nornahiri, bere burua zaintzen duen norberak. Are gehiago beraz Estatuari eta Printzeari.

Bigarren proposamena: Galdu diren ontasun guziak, edo haien ordainak, berreskuratzea, zilegi da.

Hori ere guziz argi da eta ez da frogatze beharrik, xede horretan baita gerlan hasten eta eraunsten.

Hirugarren proposamena: Etsaien ontasunetarik ordaintzea gerlako gastuak eta etsaiek zuzenkontra egin damu guziak, zilegi da.

Horiek oro alabaina, kalte egin duten etsaientzat eginbide dira, eta ondorioz, oro eskatzen eta oro edekitzen ahal dizkie gerlaz Printzeak.

Errana dugu gainera, nornahiri zilegi zaiola, hartze dion guzia, bere zordunari hartzea, ezin badu egin bestela.

Eta azkenean, gerlako bi alderdiek onar balezate legezko epaile bat, honek kondena litzake gaizkile eta erasotzale hobendunak, ez bakarrik lapurtu dituztenak itzultzera, baina ere bai, gerlako gastuak jasatera eta damu guziak ordaintzera. Gerla zuzenki daraman Printzea orde, berehala erranen dugunaren arabera, gerlaren auzi horretako epailea bezala da,

eta zilegi zaio beraz horien guzien etsaiei edekitzea.

Laugarren proposamena: Ez dira bakarrik horiek guziak zilegi, baina urrunago ere joan daiteke Printzea, gerla zuzenaren kasuan, etsaien aldetik bakea eta segurantz finkatzeko behar den neurrian. Hala nola, haien arriskua baztertzeko behar baldin bada, zilegi zaio etsaien gotorlekuak suntsitzea, eta ere etsaien lurretan harresiak eraikitzea.

Erran dugu alabaina, bakea eta segurantz delako gerlaren helburua, eta beraz, bakearen eta segurantzaren ardiesteko behar diren guziak zilegi zaizkio, gerla zuzena abiatu duenari.

Bakea eta lasaitasuna dira bestalde gizaki guzien ontasunak. Horra zergatik ontasun handienek ere, segurantzarik gabe, ez duten zorion iraunkorrik betetzen. Estatuaren lasaitasuna inarrosten eta hondatzen baldin badute etsaiek, zilegi da ondorioz, bitarteko egokiak hartzea, haren zaintzeko.

Horien guzien egitea haizu da azkeneko, barneko etsaien, hots, hiritar gaiztoen aurka; bai eta ere beraz atzerritar etsaien: Erresuma barneko nornahik makur zerbait egin badio beste herritar bati, epaileak ez du bakarrik gaizkilea behartuko kaltetuaren ordaintzera, bainan ere, gaizkilearen beldurrez baldin badago bestea, aginduko dio bermeak eman ditzan edo herritik urrunt dadin, arrisku guziak baztertzeko.

Eta era berean, garaipena irabazi-eta, ontasunak berreskuratu ondoan, zilegi izanen da etsaiei edekitzea bermeak, itsasuntziak, armak eta beste horrelako gauzak, beharrezko direnak, iruzur eta maltzurkeriarik gabe etsaien begiratzeko beren eginbidean, eta haien arriskua baztertzeko.

Bostgarren proposamena: Ez da bakarrik hori, baina garaipena irabazi-eta, ontasunak berreskuratu-eta, bakea eta segurantzaz finkatu ondoan, zilegi da oraino etsaiek egin iraina menderatzea, etsaien zentzaraztea eta egin kalteengatik haien zigortzea.

Horren frogatzeko, ikusi behar da Printzeek badutela esku arrotzen gain ere, eta ez bakarrik menpeko herritarren, kaltegitetik begira daitezen, eta hori herri-zuzenbidez eta mundu osoaren agintez⁸⁸. Gehiago oraino, iduri luke zuzenbide naturalari dagokiola: bestenaz, nehork ez balu ez ahalmenik ez eskubiderik gaiztaginen baztertzeko eta jende onei eta hobengabeei kaltegitetik begiratzeko, ez lezake zutik iraun munduak.

Zuzenbide naturalezko da alabaina munduaren gerizak eta gidaritzak behar duena; eta horrengatik badu hain zuzen Estatuak, zuzenbide naturalez, bere menpeko herritarren zigortzeko eta gaztigura bidaltzeko eskua, zerbait laido egin diotelarik.

Estatuak ordea eskubide hori baldin badu bere menpekoei buruz, Munduak ere izan behar du, dudarik gabe, gizatar kaltegarri guzien gain; eta Printzeen bitartez baizik ez dezake balia; Printzeek beraz zilegi zaie, jakina, Estatuari kaltegin dioten etsaien zigortzea. Eta gerla egin delarik justiziaren eta zuzentasunaren arabera, etsaiak menperatu behar zaizkio Printzeak osoki, beren epaile propioari bezala.

Finkatzen da honela: Ez da zinez gerlaren helburua den bakerik eta

lasaitasunik ardiesten ahal, berriz hastetik begiratuko dituzten gaztiguak eta zigorrak etsaiei emanez baizik.

Eta hori bera erakusten dute, eta frogatzen, gizon zuzenen erranek eta ekintzek; ezen, aipatu bezala, Makabear anaiek gerla egin zuten jasan irainen mendekatzeko eta ez bakarrik beren ontasunen berreskuratzeko. Eta berdin egin zuten Printze Giristinoek eta Enperadore kartsuek.

Erresumaren desohorea eta ahalkea azkenean garbitzen dira, etsaiak gogorki zigortuz eta zentzaraziz, eta ez garaituz soil-soilik; Printzeari dagokio bada Estatuaren ohorea eta larderia, ez beste ontasunak bakarrik, zaintzea eta atxikitzea.

BIGARREN ZATIA

Gerla Zuzenak Sortu Galdeak

Erran guzietarik badatoz anitz galde.

LEHEN GALDEA gerlaren zuzentasunari dagokio: Gerla zuzena izateko, aski ote da, Printzeak uste izatea bera zuzenean dela?

Lehen proposamena hauxe da: Ez da beti hori aski.

Badakigu ezen, beste zeregin xeheagoentzat, ez dela aski Printzeak edo nornahik, norbera zuzen dabilela uste izatea. Gertatzen da alabaina gaindi genezakeen hutsegite bat izatea eta hartaz hobendun ginatke. Ekintza edozein zuzena izan dadin, ez da aski bakoitza bere iritziazen arabera aritzea, baina Aristotelek Etika-n (1. II), erakutsi duen bezala, gizon zuhurraren aburuaren arabera egina behar du izan.

Bestela balitz gainera, gerla franko zuzenak litezke bi aldetarik, zeren Printzeak ez ohi dira fede gaiztoz gerlan sartzen, zuzenaren alde gudukatzen direla uste baitute.

Ondorioz gerlari guziak errugabeak litezke eta ez litzateke zilegi gerlan haien erailteza.

Eta bestela balitz ere oraino, Giristinoen aurka Turkoek eta Sarrazinoek daramatzaten gerlak zuzenak litezke, zeren haiek uste baitute Jainkoaren alde ari direla.

Bigarren proposamena: Gerla zuzena izan dadin, arta handirekin ikertu behar dira gerlaren zuzentasuna eta haren kausak, eta ere etsaien arrazoiak entzun, zuhurki eta gizonki eztabaidatu nahi baldin badute bederen.

Terentiok⁸⁹ dio alabaina, "armak eskutan hartu baino lehen, elhez probatzen dituela gizon zuhurrak, gauza guziak". Gizon zuzen eta zuhurrekin, hasarrerik, herrarik eta goserik gabe, lasaiki mintzatzen dakitenekin, behar da mintzatu. Ezen Salustiok⁹⁰ dioen bezala, "ez da erraz egiaren bereiztea, sukar horiek oro jauzten direlarik".

Argi dago, ezen etika gaietan ez da erraz, egiaren eta zuzenaren aurkitzea; aise hutsegiten da, gauzak axolarik gabe hartzen baldin badira. Eta ez da hutsegitea barkakizun izanen, halako gai garrantzitsuan, eta gure burua bezala maitatu behar ditugun hainbeste lagun hurkoen arriskuaz eta oinazeez dihardugularik.

BIGARREN GALDEA: Menpekoak behartuak ote dira gerlaren kausa ikertzera, ala zilegi zaie, besterik gabe, gerlan partehartzea, epaikariaren manua, besterik gabe, aizkorazainek⁹¹ betetzen duten bezala?

Galde honi lehen ihardespena hauxe da: Argi eta garbi ikusten

baldin badu gerla ez dela zuzena, ez zaio zilegi menpekoari partehartzea, Printzeak manaturik ere.

Ezen ez da haizu, hobetik gabearen hiltzea, nornahik agindurik ere. Eta kasu honetan hobetik ez dute etsaiek; ez da beraz zilegi haien erailtzea.

Gainera Printzea hobendun izanen da gerla egiten badu kasu horretan; baina Jondoni Pauloren arabera, "ez dute bakarrik gaizkileek heriotzea merezi, baina bai gaizkileak ongi hartzen dituztenek ere" (Er 1, 32). Ez dute beraz, aitzakiarik soldaduek ere, fede txarrez gudukatzen direlarik.

Azkenik, ez da zilegi Printzearen manuz hiritar errugabeak erailtzea. Ezta ere beraz, arrotzak.

Ondorioa: Menpekoek ikusi baldin badute ez dela gerla zuzena, ongi ala gaizki ikusirik ere, ez dute gerlan partehartzerik, zeren "sinestearen arabera egin ez den guzia bekatu da" (Er 14, 23).

Bigarren ihardespena: Senatoreak, manupekoak eta orobat Estatuaren edo Printzearen aholkularitzan onartuak edo deituak edo berdin beren baitarik horra direnak, behartuak dira gerla zuzena denentz ikertzera.

Nork ere alabaina baztertzen ahal baititu bere urko laguna zematzen duten arriskuak eta kalteak, behar ditu baztertu, bereziki heriotz arriskua eta gerlan bezalako kalte izigarriak direlarik. Jende horiek bada gerlaren kausak ikertzen dituztelarik, beren aholkuez eta beren larderiaz, bazter dezakete delako gerla, zuzena ez bada; eta beraz eginbide dute baztertzea.

Bestalde haien nagikeriarengatik gerla oker bat has baledi, haiek onartu dutela iduri luke, zeren eragotzi behar eta ahal zenuenaz hobendun baitzara, eragotzi ez baldin baduzu.

Azkenean, ez da aski Erregek berak bakarrik gerlaren kausak iker ditzan, bera oker ibiltzea gerta baitaiteke. Eta huts horrek anitz lagunen kaltea eta galtzea dakarke. Ez da beraz gerlarik hasi behar, Erregeren beraren edo lagun bakar batzuen iritziarengatik, baina hiritar zuzen eta zuhur anitzen aburua bildu ondoan.

Hirugarren ihardespena: Beste menpekoak, Printzearen edo Estatuaren aholkuetan onartuak ez direnak, ez entzunak, haiek ez dira behartuak gerlaren kausak ikertzera, eta zilegi zaie gerlan partehartzea, beren buruzagiak sinetsiz.

Ez da alabaina ez ahal, ez beharrezko, Estatuaren arazo guziak agertzea herri xehe guziari.

Bestalde, gerla ez dela zuzena oharturik ere, peko mailetan direnek ez dute eragozten ahal, haien errana ez baita entzuten, alferretan litzakete beraz gerlaren kausak haiek aztertzea.

Azkenean, gerlaren aldeko aski argumentu ona da, beste deus aurkakorik garbi agertu ezean, horrelako jendearentzat kontseilu eta botere publikoak dutela hartu erabakia. Ez da beraz arazoa berrikuste beharrik.

Laugarren ihardespena: Bizkitartean ez dela gerla zuzena erakusteko hain argumentu eta zeinu argiak gerta daitezke non ez bailtzaie zilegi, ezjakinaren aitzakiaz, partehartzea.

Argi dago: Zeren lehenik, ezjakite hori izan daiteke nahizkoa eta etsaiaren aurkako herrak jauzarazia.

Bestela balitz, gainera, fedegabeak barkakizun litezke, beren Printzei jarraitzen zaizkielarik Giristinoen aurkako gerlan, eta orduan ez litzateke zilegi haien erailtzea, argi baitago beren ustez zuzen dabiltzala gerlan partehartzean.

Hortaz gero, Pilatoren manuari jarraikiz, Kristo gurutzefikatu duten soldaduek balukete ezjakinaren aitzakia.

Judu herriak ere, azkenean, ez luke aitzakiarik falta, zeren bere buruzagiek bildurik baitzuen oihu egin: "Ken, ken, gurutzean ezar ezazue!" (Jn 19, 15).

HIRUGARREN GALDEA: Gerlaren zuzentasuna dudazkoa delarik, eta arrazoi sinesgarriak eta nabariak bi aldetarik badaudelarik, orduan zer egin?

Printzeen kasuan, zer egin?

Lehen proposamena: Nornahi berearen jabe delarik legez, ez dio berea nehork armaz edo gerlaz edekitzen ahal, dudarik badagoeno. Frantziako Erregeak, adibidez⁹², Burgundiaren jabe legezkoa baldin bada, haren jabegoa dudazkoa izanik ere, ez dio iduriz, Enperadoreak edekitzen ahalko arma bidez.

Eta alderantziz, Frantziako Erregeak ere ez du Napoli edo Milano eskatzen ahal, norenak diren zalantzan deno. "Dudazkoetan alabaina, errana den bezala, nagusi da, jabe denaren aldea". Eta beraz, dudazko kasuan, ez da zilegi jabeari kentzea.

Auzia bestalde eraman baledi legezko epailearen aitzinera, honek ez liezaioke sekulan, dudazko kasuan, deusik ken bere jabeari; zeren bere zuzenaren galdegile den Printzeak, epaile balitz kasu horretan, zuzena bera dudazkoa deno, ez luke eskubiderik deuseren kentzeko bere jabeari.

Gainera, zeregin pribatuetan ez da sekulan zilegi legezko jabeari deusik kentzea, dudazkoa baldin bada haren kasua. Eta beraz Printzeen arazoetan ere ez, haiek berek egin baitituzte lege horiek. Giza-legeen arabera ez baldin bada zilegi dudazko kasuan legezko jabeari deusik kentzea, zuzen da Printze horiei erran diezaiegun: " Zuk egin duzun legeari jarraik arren! Norberak beretzat erabili behar du, besteentzat finkatu duen zuzenbidea."

Bestela gerta baledi azkenean, gerla, zuzena litzateke, bi aldetarik batean eta ez luke konpontzerik. Zeren eta dudazko kasuan bati haizu balitzaio armak hartzea eta beraz besteari ihardokitzea, lehenak berea eskuratu orduko bigarrenak bere aldian edekitzen ahal lioke, eta horrela ez luke sekulan gerlak atertzerik, herrien zorigaitzaren eta hondamendiarengatik.

Bigarren proposamena: Demagun dudazkoa den kasuan ez duela hiriak edo probintziak legezko jaberik. Haren legezko jabea hil delarik adibidez, bazter utzia izan da eta nehork ez dezake zuzen jakin Frantziako Erregea den oinordekoa ala Espainiakoa. Batek nahi baldin badu konponbide bat aurkitu, ondoriotasuna zatitu edo edukitzaren ordainez zerbait eman, iduri du, zuzenez, besteak behar duela onartu, indarrez nagusi izanik ere. Eta bere armekin dena hartzen ahal balu ere, ez luke zuzenez gerla egiteko eskubiderik.

Honela frogatzen da: Eskubide berdina duenak ez du makurrik egiten, parte berdina eskatuz.

Auzi pribatuetan ere, ez litzateke zilegi, dudazko kasuetan, auzitan den funtsaz jabetzea bere osotasunean.

Eta gisa berean, epaikari zuzen batek ez liezaioke ontasun osoa utz edo eman bietarik bakar bati.

Hirugarren proposamena: Bere eskubideaz dudatan dabilenak, jabegoaz gozatzerak bakean utz balezate ere, eginbide du auzia artarekin aztertzea eta aurkakoaren arrazoiak geldiki entzutea, ala haren ala bestearen alde argitasunik egin daitekeen ikusteko. Frogatzen da zeren ez baitu fede onik, dudatan dabilelarik, argitasunik bilatzen ez duenak.

Ezkontza gaietan bestalde, legezko senarrak berak, daukan emaztea berea duen ala beste batena, dudan baldin badago, eginbide du argitasunik egitea. Eta berdin da beste auzietan, arrazoi berengatik.

Printzeak, azkenean, berak dira beren auzi propioen epaile, nehor ez baitute beraiek baino gorago dagoenik. Baina nornahik ihardok diezaiola legezko jabeari, eta epailea behartua da arazoaren aztertzea. Dudazko kasuetan, beraz, Printzeak ere behartuak dira arazoaren argitzera.

Laugarren proposamena: Arazoa aztertzen delarik, legezko jabea ez da behartua bere jabegoa uztera funtsezko duda zerbaitek diraueno: berea gordetzea zilegi zaio.

Hori argi dago, zeren epaileak ez baitio zuzenez kentzen ahal. Ez du beraz berak, bere baitarik, berea, osorik edo zatika, uzteko eginbiderik.

Ezkontza arazoetan ere, nehor ez da behartua, dudazko kasuetan, bereari uko egitera, Decretalia liburuaren arabera (De Sententia Excommunicationis, c. Inquisitioni; De Secundis Nuptiis, c. Dominus). Eta beraz, beste kasuetan ere ez.

Adriano VI. ak argi eta garbi erraten du (Q. 2., Quodlibet. 2.), dudazko kasuetan, norberak berea atxikitzea, zuzen dela.

Horiek guziak Printzeen kasuan, baina... Menpekoen kasuan, zer egin?

Adriano VI. ak, ihardesten du, gerla zuzenaren gaiaz diharduelarik (Q. 2., Quodlibet. 2. ad 1. argudio nagusiari), menpeko batek, gerlaren zuzentasunaz zalantzan dagoelarik, hots eman diren arrazoiak aski direla sinesten ez duelarik, edo oro har, gerlaren egiteko arrazoirik aski badela ikusten ez duelarik, orduan ez du hark gerla horretan partehartzen ahal, buruzagiek agindurik ere. Bekatu larrian erortzeko arriskua har lezake bestela.

Bestalde, "fedez onez egiten ez den guzia, bekatu da" (Er 14, 23). Irakasleen arabera ordea, eta egia da, bekatu dela, ez bakarrik kontzientzia argiaren edo kontzientzia aburuzkoaren aurka joatea, baina ere dudazko kontzientziari jazartzea.

Eta iduri luke Silbestrok ere gauza bera erraten duela bere Summa-n, Bellum, hitzean (I. § 9).

Hona bada bostgarren proposamena: Bere burua zaintzeko gerla delarik, zilegi zaie jakina, menpekoei, dudazko kasuan, beren Printzeari gerlara jarraitzea, ez da hor zalantzarik. Are gehiago, eginbide dute jarraitzea. Eta berdin, etsaiari jazartzeko gerla balitz ere.

Erran dugu alabaina, ez duela beti Printzeak menpekoei jakinarazten ahal zer diren gerlaren kausak, eta ez duela egiterik ere. Menpeko horiek ez baldin badute partehartzen ahal, gerla zuzena dela jakinaren gainean baizik, biziki arrisku handian eror liteke Estatua, eta etsaiaren kalteak jasan behar lituzke.

Dudazko kasuetan bestalde, segurenarik behar da jo. Menpekoek ordea, dudazko kasuan ez baldin bazaizkio gerlara jarraitzen beren Printzeari, etsaiaren eskuetan erresumaren erortzera uzteko arriskuan jartzen dira. Eta hau, gerlaren zuzentasunaz dudak izanagatik, etsaiari ihardokitzea baino biziki gaiztoago da. Behartuago dira beraz gerlan partehartzera.

Argi da, gainera, epaikariaren epaia betetzea eginbide duela borreroak, seguru ez izanagatik zuzena dela epaia. Arrisku izigarria bailitzateke bestela.

Badirudi azkenean San Agustinek Decretalia liburuan (C. XXIII, q. 1, c. Quid culpatur) errepikatzen den pasarte batean (Contra Faustum, 1. XXII, c. 75), argumentu bera darabilela: "Gizon zuzen bati gerta balekio Errege makur baten agindupean gerla egitea, zilegi zaio haren aginduen betetzea, argi ikusiz gero agindu horiek ez doazela Jainkoaren manuen aurka, edo bederen horren segurtamenik ez dela."

Eta hona zer adiarazten duen zuzen San Agustinek, dioelarik: "Ez baldin bada segurtamenik": Erran nahi du, dudatan baldin bada delako agindu haiek Jainkoaren manuen aurka direla, orduan zilegi zaiola menpekoari gerlan partehartzea. Adriano VI. ak beraz, ez dakioke, nahirik ere, San Agustinen argumentu horri ihesegin. Eta, ez da dudarik: gure irakaspena, San Agustinen bera da.

Ez da erraten ahal bestalde, menpekoak behar dituela bere duda-mudak garbitu eta gerlaren zuzentasunaz bere kontzientzia argitu, zeren etikaren aldetik, argi baitago ez duela horrelakorik egiten ahal, beste kasuetan bezala.

Hau da, agian Adriano VI. aren makurra: uste izatea, dudan nagolako, ea Printzeak egiten duen gerla zuzena den, edo gerla horren kausa zuzena ote den, ondorioz, gerla horretan partehartzea zilegi zaidan ala ez, ordu berean dudan jartzen dukedala.

Aitortzen dut alabaina ez dela nehoiz zilegi, dudatan den kontzientziaren aurka joatea. Eta dudan baldin banago, ez jakinez haizu dudan ala ez, zerbait egitea edo ez, bekatu egiten dut, zer hura eginez. Baina ez dator batere hortik beste ondorio hau: Dudan nago gerla honen kausa zuzena ote den ez jakinez; dudan nago beraz ea gerla honetan partehartzea eta gudukatzea zilegi zaidan ala ez. Aitzitik gertatzen zai-

gu, zeren gerla zuzena ote den dudatan baldin banago, zilegi baitzait ene Printzearen agindupean gerla horretan partehartzea.

Gisa berean, ondorio okerra da erratea: "Borreroa dudan dago epaikariaren epaia zuzena ote den, dudan dagoke beraz zilegi ote zaion epai horren betetzea". Ondorio zuzena da alderantziz, eginbide duela epaia betetzea.

Eta berdin da beste kasu honetan: Dudan nago, honelako emaztea, ene emaztea ote den, ala ez: Eta beraz, ene eginbidea betetzea zor diot emazte horri .

LAUGARREN GALDEA: Bi aldetarik betan gerla zuzena izan ote daiteke?

Lehen erantzuna: Ez da horrelakorik gertatzen ahal, ezjakitez baizik.

Zuzentasuna eta eskubidea nabariak baldin badira bi eskualdetarik alabaina, ez da zilegi etsaiaren gudukatzea, ez haren erasotzeko ez zure burua defendatzeko.

Bigarren erantzuna: Demagun ezjakintasuna gertatuari buruz edo zuzenbideari buruz itxurazkoa dela, zuzena daiteke gerla, berez, egiazko zuzenbidea dagoen aldetik. baina zuzena gerta daiteke ere beste aldetik, fede onaren aitzakiagatik.

Ezjakintasun garaitezinak alabaina aitzakia osoa ematen du. Menpekoen kasuan bederen, maiz gerta daiteke horrelakorik. Zeren gerla makurra daraman Printzeak, berak makur dabilela jakinik ere, menpekoak -erran den bezala- hari jarraitzen ahal dira fede onean eta beraz, menpekoei zilegi zaie gudukatzea bi eskualdetarik.

BOSTGARREN GALDEA dator hortik: Jakingabe gerla makurrean partehartu duen Printzeak, edo horren menpekoak, eginbide ote du hartu duenaren ordaintzea, ondotik ikusi baldin badu garbiki gerla hura ez zela zuzena?

Lehen erantzuna: Gerla zuzena zela uste baldin bazuen, izatez makurra dela ohartzen delarik, oraino irentsi ez dituen ontasunen itzultzea eginbide du, erran nahi dut bera aberastu duten ontasunen, baina ez irentsiak dituenen.

Zuzenbidearen arabera, alabaina, hutsik egin ez duenak ez du zigorrik jasan behar. Hala nola, ohoin baten bazkari naharoan partehartu duenak fede onean, eta hor gauza ebatsiak jan baldin baditu ere, ez du haien ordaintzeko eginbiderik, non ez dituen aments, bere etxean jan. Nahiz Silbestrok dioenaz (Bellum hitzean, I, § 9) gerlaren zuzentasunaz dudaz zegoenak, Printzearen aginduari jarraiki baldin bazaio, eginbide du denon ordaintzea, fede gaiztoz iharduki duelako.

Bigarren erantzuna aitzineko erranari jarraitzen zaio: Ez da beraz azken hau ere behartua irentsi dituenen ordaintzera, zeren, erran dugunez, zuzenki eta fede onean iharduki baitu.

Zinez dudatan izan balitz halere gerlan partehartzea haizu zenentz, orduan Silbestrearen iritzia zuzena zatekeen, bere kontzientziaren aurka joko baitzuen kasu horretan.

Baina oroz gainetik ohartu behar da, gerla bat izan daitekeela berez zuzena eta legezkoa, baina gertatzez zuzengabekoa; argi baita, hiri bat edo probintzia bat hartzeko eskubidea izaten ahal dela eta bizkitartean horren egitea ez litzatekeela zilegi, nehondik ere, eskandaluarengatik; erran den bezala, herriaren onetan baizik ez baita haizu gerlarik egitea.

Demagun bada, hiri bakar baten hartzeak berak kalte handiagoak dakartzala Estatuari, hala nola hiri anitzen suntsiketa, gizon askoren he-

riotzea, Printzeen haserrea, beste gerla batzuen piztea Elizaren kaltetan, edo fedegabeei ematen diela Giristinoen lurretan sartzeko eta haien hartzeko parada, orduan Printzeak, bere eskubidearen uztea eta gerlari uko egitea eginbide du, batere dudarik gabe⁹³.

Frantziako Erregeak adibidez, Milanoko eskualdearen berreskuratzeko eskubidea baldin badu, baina gerla horrek izigarriko kalteak eta suntsiketa ezinjasanak ekartzen baldin badizkie, Frantziako Erreinuari, eta Milanoko probintziari, ez zaio zilegi izanen Erregeari, delako hiriaren hartzea, zeren Frantziaren edo Milanoren onetan baizik ez baitezake egin gerlarik.

Gerlak aldiz kalte handiak ekartzen dizkielarik bi eskualdeei, ez da hor gerla zuzenik.

HIRUGARREN ZATIA

Gerla Egiteak Sortu Galdeak

Beste anitz galde sor daitezke arazo soil honen gainetik: gerla zuzena den ber, noraino joaitea den zilegi.

LEHEN GALDEA: Errugabeen hiltzea zilegi ote da?

Behin iduri du baietz, zeren Israeldarrek haurrak hiltzen zituzten, hala nola Josuek egin zuen Jerikon (Jos 6, 17. 21. 27) eta Saulek Amaleken aurkako gerlan (1 S 15, 2. 3. 8). Bat ala bestea Jainkoaren izenean eta Haren manuz erauntsi ziren. Jondoni Paulok bada erraten digu, "idatziak oro, gure irakaspenerako idatziak izan direla" (Er 15, 4), eta beraz orai ere, gerla zuzena baldin bada, zilegi daiteke hobenik ez dutenen hiltzea.

Lehen proposamena: Berez ez da nehoiz zilegi nahitara, hobengabearen hiltzea.

1. Liburu Sainduak alabaina dio honela: "Hobengabea eta gizon zuzena ez hil!" (Hs 23, 7) .
2. Gerla zuzenaren oinarria, erakutsi dugunaren arabera, iraina da. Iraina ordea, ez datorke errugabeenganik. Ez da beraz zilegi haien aurka gerlarik egitea.
3. Erresumaren barnean ere ez da zilegi, gaiztaginen gaiztakeriengatik, hobengabeen zigortzea. Ez da ere haizuko, etsaien lurretan, gaiztoen tzarkeriengatik hobengabeen zigortzea.

4. Besterik gerta baledi, gerla zuzena litzateke bi eskualdetarik, eta hori ez jakinezarengatik. Baina erakutsi dugu ez dela izaten ahal horrelakorik, eta ondorioz, argi dago hobengabeek badutela eskubidea, haiek hil nahi dituen nornahiri jazartzeko.

Horien ororen berme hor daukagu Deuteronomo-an idatzia (Dt 20, 10-14) Israeldar semeei agintzen diena, hiri batez jabetezen direlarik indarrean, han bizi diren gizonen erailtzea, baina emazteen eta haurren gupidestea.

Ondorioz, Turkoen aurkako gerla batean, debekatua da haurren hiltzea, hobengabeak baitira. Eta berdin emazteen erailtzea ere, gerla horretan hobenik gabekotzat ematen baitira, non ez den nolazpait argi ageri haietarik bat hobendun dela.

Giristinoen artean berdin gertatzen da, baserritar prestuekin eta beste jende baketsuekin, guziak hobenik gabekotzat emanak baitira eta ez egiazko etsaitzat.

Horren berarengatik, ez da haizu ere elizgizonen eta fraileen hiltzea, hobenik gabekotzat ematen baitira gerlaren kasuan, non ez

den alderantzizkoa agertzen, hala nola izatez berak gerlan ari direlarik.

Bigarren proposamena: Gerta daiteke, ustegabeen, errugabeak nahitara erailtzea zilegi izatea, hala nola hiri bati edo gotorleku bati zuzenez behar zatzaizkiolarik oldartu eta, jakinagatik badagoela hor errugabe anitz, ez dezakezularik neholaz ere gerlako tresnarik erabil, ez jaurtikairik egotz, ez eraikinik erre, hobendunekin batean, hobengabeak hunki gabe. Bestela balitz alabaina, ez liteke hobendunen zigortzeko gerlarik egiten ahal eta gerlarien eskubideak ez lezake berea ardiets.

Eta berdin, alderantziz, zuzenkontrako eraso baten aurka hiri bat zuzenki zaindu behar duzularik, zilegi zaizu gerlako tresnen eta jaurtikaien igortzea setiatzaileen eta haien gerla-zelaiei gainera, haurrak edo errugabeak izanik ere haien artean.

Bizkitartean, lehenago erran denaz oroitu behar da: hots, kontu har bedi, gerla batek baztertzen dituen gaitzak baino handiagoak ez ditzan sort gerlak berak!

Eta beraz etsai zenbait eta hobengabe anitz aterbetzen dituen hiri edo gotorleku baten eskuratzeak ez baldin badio laguntza handirik ekartzen gerlako azken garaipenari, ez du iduri zilegi dela hobendun taldexka baten garaitzeko, hobengabe saldo handi baten hiltzea, su emanez, gerlako tresnak erabiliz, edo hobendunak eta hobengabeak berdin joiten dituzten jokamoldeak erabiliz.

Azkenean ez da sekulan haizu izan behar hobengabeen hiltzea, nahigabeen eta ustegabetarik ere, non ez den beste biderik gerla zuzen baten egiteko eta haren irabazteko, Jondoni Mateok erraten baitu: "Bego iraka haztera; ez dadila gerta, hura biltzean garia ere ateratzea." (Mt 13, 29).

Hemen dator beste galde bat: Zilegi ote da errugabeen hiltzea, arrisku zerbait ekar dezaketelako geroan?

Hala nola, Sarrazinoen haurrak, hobengabeak dira, baina beldurtzeko da, handituko direnean, Gristinoei oldar daitezen eta gerla izigarria egin diezaieten.

Eta berdin, etsaien lurretan bizi diren adineko zibilak, soldadu ez direnak, hobengabetzat hartzen dira, baina geroxeago armak hartuko dituzkete eta kalteak egin ditzakete. Eta beraz, zilegi ote da horrelakoen hiltzea?

Iduri luke baietz, beste errugabeak ustegabeen hiltzea zilegi den arrazoi ber-berengatik: Deuteronomo-an (Dt 20, 13) agintzen zaie Israeldarrei, hiri batez jabetzen direlarik, jende heldu guzien erailtzea. Ez daiteke bada asma guziak hobendun zirela.

Baina hona zer dudan ihardesten: Norbaitek menturaz erranen du kasu berezi horretan haizu dela hiltzea, nik ordea daukat, neholaz ere ez dela zilegi, zeren ez baita gaizkirik egin behar, gaitz handiagoak baztertzekotan ere.

Ezin onetsia da bestalde norbaiten hiltzea, noizbait egin dezakeen gaizkiarengatik.

Eta azkenean, geroago egin dezaketen kalteetarik begiratzeko, bada beste biderik, hala nola preso hartzea, desterratzea, eta horrelako....laster erranen dugun bezala.

Ondorioz, garaipenetik landa edo guduaren artetik, soldadu bat hobenik gabea dela, gerlariak ikusten baldin badute eta artetik atera badezakete, salbatzea eginbide dute.

Kontrako argumentuari erantzunen diot, Israeldarren jokamoldea Jainkoaren agindu berezi batengatik gertatu zela, zeren Kanaandarren aurka gogaiturik eta hasarreturik, suntsitu nahi izan baitzituen osoki. Sodoma eta Gomorraren gainera ere igorri zuen horrela Jainkoak bere sua, hobendunak bezala hobengabeak suntsitu zituen. Baina Hura ororen Jauna da eta agindu berezi hori ez zuen eman lege komunaren arabera.

Eta berdin ihardesten zaio Deuteronomo-ko pasarteari (Dt 20, 13), zeren gerlako lege komun bat baita, geroan ere balioko duena; baina Jaunak kasu horretan erran duena izan daiteke, izatez etsaiaren hirian diren gazte guziak hobenduntzat hartzen direlako, eta bestalde hobengabeak hobendunetarik bereizten ahal ez direlako, horrengatik beraz guziak erailtzen ahal baitira.

BIGARREN GALDEA: Hobengabeen erantztea zilegi ote da gerla zuzenean?

Lehen proposamena: Ez da dudarik zilegi dela, errugabeei kentzea etsaiek gure kontra erabiliko dituzten ontasunak eta gauzak, hala nola armak, itsasuntziak eta gerlako tresnak. Bestela ezen ez gintezke heltzen ahal gerlaren helburura, garaipenera.

Gehiago oraino, zilegi da ere errugabeen ontasunez jabetzea, haien uztak erretzea eta suntsitzea, eta haien zaldiak hiltzea, etsaien indarrak ahultzeko behar baldin bada.

Eta ondorioz, gerlak irauten baldin badu, zilegi izanen da etsaien lurretan, hobengabeen eta hobendunen arteko bereizkuntzarik gabe, denen ontasunak hartzea, zeren herritarren ontasunez baliatzen baita etsaia bere gerla makurraren eramateko, baina indarrak galduko ditu haren herritarrak larrutzen baldin badira.

Bigarren proposamena: Gerlarik eraman badaiteke aski ongi, laborariak eta beste hobengabeak hunkitu gabe, ez da zilegi izan behar haien larrutzea.

Hori da Silbestro Prieriokoaren iritzia (ikus Bellum hitza, I, § 10). Irain batetarik sortu da, ezen, gerla. Zuzenbidea beste bide batetik berregiten ahal bada, ez da beraz zilegi hobengabeen aurka gerla zuzenbidea erabiltzea. Gehiago oraino, dio Silbestrok, hobengabeen larrutzeko aitzakia zerbait izan baldin bada, gerlatik lekora garaileak beharko die gainerateko guzia bihurtu.

Baina hori ene ustez, ez da beharrezko, zeren, erranen dugun bezala, gerla zuzenbidez eginga baldin bada, gerla zuzenaren alderdiari dagokio eskubide eta irabazi guzia, eta beraz, ez da nehoi itzultzerik zuzenbidez hartu den ontasunik. Silbestroren aburua bizkitartean haizu da onartzea, eta ez du argumenturik falta.

Etsaien eremuetan dabilzan bidaiariak eta arrotzak ordean, ez dira nehondik ere larrutzen ahal, non ez den argi haien hobena, zeren ez baitira etsaien lerroan sartzen.

Hirugarren proposamena: Etsaiek ez baldin badituzte zuzengabeki ebatsi gauzak itzuli nahi eta kaltetuak ez baldin badu bere ontasunen berreskuratzeko beste bide onik, zilegi zaio horrelakoari berea nolazpait bereganatzea, bai hobendunen bai hobengabeenganik.

Demagun, adibidez, Frantses lapurrak lapurketan ari izan direla Espainiako lurretan eta Frantziako erregeak ez dituela behartu nahi ebatsia itzultzera, egiten ahal lukeelarik, Espainolei orduan zilegi zaie, beren Printzearen baimenarekin Frantziako merkatarien edo laborarien larrutzea, hobenik gabeak izanik ere hauek. Zeren eta Frantziako Erre-

gea edo Estatua ez bazen ere hastapenean hobendun, orain hala da, ez duelako jakin, San Agustinek dioen bezala, bere menpekoen gaiztakerien zigortzen.

Bestalde, kaltetua izan den Printzeak, jasan duenaren ordaina eskuratzen ahal du Erresumako edozein herritarrengatik, eta edozein eskualdetarik. Horra zergatik, kasu horietan printzeek ematen dituzten markazko edo ordainezko gutunak ez diren berenaz zuzengabeak, ezen horrela, beste Printze baten bidegabekeriaren eta axolagabekeriarengatik kaltetua izan denak baitu ukaiten bere Printzearengatik, berdin hobengabeen bizkar, bere ontasunen berreskuratzeko eskubidea. Gutun horiek bizkitartean arriskutsuak dira, lapurketarako paradak eskaintzen dituztelakoan⁹⁴

HIRUGARREN GALDEA: Nahiz ez den zilegi haurren eta beste hobengabeen hiltzea, haizu ote da bederen haien preso hartzea eta esklabu eramatea?

Ihardespen bakarra da: Bai zilegi da hobengabeen preso eramatea, haien erantztea zilegi den bezala, zeren zortearen kontu baitago askaturik edo preso sarturik izatea.

Gerlako baldintzak halakoak direlarik non haizu baita etsai guzien larrutzea, bereizkuntzarik gabe, eta haien ontasun guziez jabetzea, zilegi izanen da ere etsai guzien, hobendun ala hobengabeen, preso eramatea.

Hori da, hain zuzen, paganoen kontrako gerlaren kasua: beti iraunen baitu eta egiten dituzten kalteak eta makurrak ez baitituzte sekulan ordaintzen ahalko. Ez da beraz batere dudarik zilegi dela, Sarrazinoen haurrak eta emazteak preso hartzea eta esklabu eramatea.

Baina Giristinoen artean onartzen den herri zuzenbidearen arabera, ez baita iduriz haizu, gerla zuzenbidez, Giristinoak esklabu egitea, Giristinoen arteko gerlan ez da horrelakorik izaten ahal. Bizkitartean, gerla bururatu beharrez, errugabeen, hots, haurren eta emazteen preso eramatea zilegi da; ez haien esklabu egiteko, baina haien askatzea eskuratzeko xedetan.

Ez da halere jokamolde hori gerlako beharrek eta gerlari zuzenen ohiturek daramaten baino urrunago eraman behar.

LAUGARREN GALDEA: Etsaiak bere hitza jaten baldin badu eta hitzartua ez begiratzen, zilegi ote da, edo menia artean edo gerla ondoan bahitutzat utzi dituen pertsonen hiltzea?

Ihardespen bakarra da: Bai zilegi da, delako bahituak bestalde hobendun baldin badira, hala nola armak erabili baldin badituzte, orduan bai zilegi da haien hiltzea.

Baina bestalde errugabeak baldin badira, hala nola emazteak, haurrak edo horrelako hobengabeak, argi da, erran dugunaren arabera, ez dela zilegi haien hiltzea.

BOSTGARREN GALDEA: Zilegi ote da bederen, gerla zuzen batean, hobendun guzien erailtzea?

Galde honi ihardesteko, oroitu behar da, erran denaren arabera, gerla egiten dela, lehenik, nork bere buruaren eta bere ontasunen zaintzeko; bigarrenekorik, galdu ontasunen berreskuratzeko; hirugarrenekorik, jasan makurraren mendekatzeko; laugarrenekorik, bakea eta segurantz finkatzeko⁹⁵. Horiek horrela, hona bada lehen proposamena:

Lehen proposamena: Guduko suaren erdian, hiri bati oldartzean edo hura zaintzean, zilegi da gudari guzien hiltzea, bereizkuntzarik gabe, eta orobat daiteke, etsaia hor deno. Ezen bestela, gerlariek ez lukete gerla ongi egiten ahal, beren etsaiak eta aurkako gudariak ez balitzate guziak suntsi.

Baina hauxe da berriz galdea eta zailtasun guzia, ea garaitu ondoan eta etsaien aldetik ez delarik gehiago arriskurik, zilegi ote den armak erabili dituzten guzien erailtzea.

Iduriz argi dago zilegi dela, erran bezala, Jaunak eman dituen agindu militarren artean (Dt 20, 10-14) bat baitugu, dioena etsaiaren hiri bat hartzen delarik hango bizilagun guziak garbitu behar direla. Honela da hitzez hitz: "Hiri baten hartzeko, hurbilduko zatzaizkionean, lehenik bakea eskainiko diozu. Onesten badu eta ateak irekitzen badizkizu, han den populu guziak bizia izanen du eta zerbitzatuko zaitu zerga ordainduz. Ez badu ordea solasik egin nahi eta gerla ematen hasten baldin bazaizu, setiatuko duzu, eta zure Jainko Jaunak eskuetaratuko dizunean, han diren gizonki guziei ezpataren ahoaz emanen diezu, bazter utziz haurrak eta emaztekiak".

Bigarren proposamena: Garaipenaren ondotik eta arrisku oro baztertua delarik, hobendunen hiltzea zilegi da.

Frogatzen da, erran bezala, gerlaren helburua ez delako bakarrik galdu ontasunen berreskuratzea, bainan ere bai gaiztakerien men-

dekatzea eta beraz irain egin izan delarik, irain egilea erailtzea zilegi da.

Hori bera egitea zilegi da gainera, herritar gaiztaginekin. Ondorioz, zilegi izan behar da ere atzerritarrekin, zeren, erran dugun bezala, gerla zuzenbidez, gerla egiten duen Printzeak badu etsaiei buruz, legezko Printzeak edo Epaileak duen eskubide bera.

Eta azkenean etsaiaren arriskua baztertua izanik ere momentuko, segurantzarik ez litzateke gerorako.

Hirugarren proposamena: Irain bat mendekatzeko baizik ez bada egiten, ez da beti zilegi hobendun guzien hiltzea.

Herritarren kasuan alabaina, hiri oso batena edo Probintzia batena balitz ere hobena, ez litzateke zilegi gaizkile guzi guzien hiltzea. Eta herri osoarena balitz jazarpena, ez litzateke sori herri guziaren erailtzea eta suntsitzea. Zerbait horrelako eginik, Teodosio ez zuen utzi Elizan sartzera⁹⁶ San Ambrosiok: Herriaren onaren aurka, hots gerlaren eta bakearen xedearen aurka, zihoan alabaina enperadorearen ekintza. Ez da beraz zilegi, hobendun diren etsai guzien erailtzea.

Eta ondorioz, kontutan hartu behar dira, etsaien laidoaren neurria, haiek egin kalteak eta beste gaitz guziak. Horiek oro ikusi -eta behar da mendekatu eta zigortu, baina basakeriarik eta gogorkeriarik gabe. Gai horri buruz Ciceron-ek dio De Officiis-en (1. II), "ez direla etsaiak zigortu behar, zuzentasunak eta gizatasunak onartzen duten neurrian baizik". Eta Salustiok berriz idatzi zuen: "Hain zintzoak ziren gure arbasoek non ez baitzieten deusik kentzen berek garaitzen zituztenei, makurrik berriz egiteko ahalmena baizik" (De Conjuratone Catilinae, XII, 3-4).

Laugarren proposamena: Batzuetan halere, zilegi da eta beharrezko, hobendun guzien hiltzea.

Bakea eta segurantzaren beharrez egiten da gerla, alabaina. Segurantzaren ordea, ez dezakezu batzuetan finka, etsai guziak suntsituz baizik. Hala nola, itxuraz, fedegabeekin, ez baita sekulan izanen haiekin bakea izateko menturarik. Horra zergatik ez duzun beste biderik, armak har ditzaketen guzien erailtzea baizik, hobendun agertu diren ber. Horrela behar da hartu Deuteronomo-aren delako agindu hura (Dt 20, 13).

Baina bestela, Gristinoen arteko gerlan, ez dut uste haizu dela horrelakorik. Ezinbestekoa da alabaina "galbideak gertatzea" (Mt 18, 7), eta Printzeen arteko gerlak izatea: Garaileak beti hil balitza bere etsai guziak, gizadia osoa eta Kristau Eliza suntsi litezke eta laster lur guzia berriz hutsa litzateke eta ez liteke gehiago egin gerlarik herriaren onetan, herriaren kaltetan baizik itsutuki. Zigorak beraz hutseginaren izariko behar du izan, eta ez du mendekuak neurria gainditu behar.

Gogoan hartu behar da gainera, eta ikusi, menpekoek, erran dugun bezala, ez dutela gerlaren kausak aztertzeke eginbiderik, baina gerlara jarraitzen ahal zaizkiola beren Printzeari, honen beraren eta honen herri biltzarraren erabakiari fidatuz. Eta ondorioz, gerla ez izanik ere batzuen ustetan zuzena, partehartzen duten soldaduak, eta gudukatzen direnak, hirietan ihardokiz edo hiriei oldartuz, hobengabeak dira gehienak, alde batekoak nola bestekoak. Horra zergatik, garaituak izan

direlarik delako soldaduak eta ez delarik gehiago arriskurik haien aldetik, ez den zilegi ez bakarrik haien guzien hiltzea, ez eta, ene ustez, haietarik bakar bat ere, fede onez gerlan partehartu dutela onartzen den ber.

SEIGARREN GALDEA: Zilegi ote da presoek eta errenditu direnen hiltzea, hobendun direla ikusiz gero?

Erranen da, berez ez dela zuzentasuna bortxatzen, gerla zuzen batean, presoak eta errenditu direnak erailtzen direlarik, hobendun baldin badira. Baina gerlako egitate anitz herri zuzenbideak baititu finkatzen, onartu ohi da, gerlako ohituren eta usadioen arabera, garaipenaren ondotik eta arrisku oro baztertuz gero, ez dela presonerik hil behar, non ez den, nonbaitik ere, ihesi joaten. Eta herri-zuzenbidea begiratu behar da, gizon zintzoek egin ohi duten bezala.

Errenditu direnez berriz, ez dut nehoiz entzun haien erailtzeko ohiturarik izan dela. Gehiago oraino, errenditu diren hirietako amoremaleek jarri ohi duten baldintza da, bizirik jalgiko direla eta osorik aterako, zeren beldur baitira batere baldintzarik gabe errendituz gero hilen dituztela; eta hori ere batzuetan gertatu dela, irakurri dugu. Horra zergatik, hiri bat errenditzen delarik baldintzarik gabe, ez den nik uste gaizki Printzearen edo Epailearen aginduz hobendun handienetarik zenbait erail ditzaten.

ZAZPIGARREN GALDEA: Gerla zuzenean hartu diren ontasun guziak hartu eta eskuratu dituztenenak ote dira?

Lehen proposamena: Ez da batere dudarik, gerla zuzenean hartu diren guziak, hartu dituztenentzat direla, hauek zuzenkontra galdu eta gerlan xahutu dituzten ontasunen ordaintzeko heineraino bederen.

Ez du horrek frogatu beharrik, hori bera baita gerlaren helburua. Baina ordaintze eta berreskuratze guziak bazter utziz gero eta gerla zuzenbidearen ikuspegi soiletik ikusiz, bereizketa egin behar da, zeren gerla denboran hartu direnak izaten ahal dira edo higigarriak, hala nola dirua, jantziak, urrea eta zilarra, edo higiezinak, hala nola landak, hiriak eta gotorlekuak.

Ontasun higigarriak

Bigarren proposamena: Herri-zuzenbidearen arabera, ontasun higigarri guziak hartu dituenarenak dira, nolazpait gainditzen baldin badute ere jasan damuek eskatzen dutena. Horrela mintzo dira, Digesta (De Captivis, Si quid bello legea eta Hostes legea), Decreta (dist. I, c. Jus Gentium), eta argiago oraino Institutes (De Rerum Divisione, § Item ea quae ab hostibus), non erraten baita, herri zuzenbidearen arabera, etsaiari hartu guzia, berehala gurea dela, eta gizon askeak ere, gure esklabu bilakatzen direla.

Eta San Ambrosiok dio De Patriarchis - en, Abrahamek lau Errege hil zituelarik, harrapakinak garailearentzat zirela, Abrahamentzat, honek ez bazituen ere hartu nahi izan (Hs 14, 15. 21-24), ikus Decreta (C. 23, q. 5, c. Dicat aliquis).

Aburu beraren berme dator Jaunaren hitza, dioena, hiri bat hartzen delarik honela: "hatzeman guzia armadari banatuko diozu eta zure etsaiaren buluzkinetarik janen duzu" (Dt 20, 14).

Iritzi bera agertzen du Adriano VI. ak, itzultzearen legeaz gerlaren kasu berezia aipu duenean.

Silbestro Prieriokoak berdin dio, (Bellum hitzean, § 2 & 9), zuzenki gudukatu duenak ez duela harrapakinaren itzultzerik (cf. Decreta, C. XXIII, q. 7, c. Si de rebus). Ondorioz iduritzen zaio gerla zuzenean

hartu ontasunak ez direla erabiltzen aitzineko zorra ordaintzeko, Gido Baysiokoak⁹⁷ erakusten duen bezala delako Decreta-ren iruzkinean (C. XXIII q. 2, c. Dominus noster) eta Bartolok ere Si quid bello lege beraren iruzkinean. Eta hori erran behar da, etsaiak onartzen badu ere, berak egin kalte eta damuen ordaintzea.

Silbestrok bizkitartean, muga bat jartzen dio lege horri, eta zuzen den bezala, galdatzen du jasan diren kalte eta damuen ordaintzeko aski eta egoki dena baino gehiago ez hartzea: Hala nola, Frantsesek Espainiako lurretan suntsitu baldin badute herrixka bat edo hiri txar bat, ez da uste izan behar Espainolei zilegi zaiela Frantzia osoaren larrutzea, ahal badute. Beti kontutan hartu behar da jasan den makurra zenbatekoa eta nolakoa izan den, gizon zuhur baten arabera.

Baina hemen dator beste galde bat: Soldaduak uzten ahal ote dira hiri baten zakuratzera?

Hirugarren proposamena: Hori ez da berez debekatzen, egin behar delarik, gerlaren bideratzeko, etsaien iziarazteko edo soldaduen karra berotzeko.

Horrela mintzo da Silbestro Bellum hitzean, § 10. Arrazoi zuzen batengatik zilegi da ere hiri bati su ematea, baina horrelako baimenen ondorioz, sekulako basakeriak eta odol-ixurtze gupidagabeak egin ohi dituzte soldadu basa batzuek: hobengabeen sarraskiak eta oinazeak, nesken ebasketak, emazteen bortxaketak eta elizen lapurketak. Horra zergatik, batere dudarik gabe, ez den zuzen hiri baten zakuratzera uztea, bereziki Giristinoen hiri baten, ezinbestez baizik eta arrazoi larri zerbaitengatik.

Bizkitartean gerlako ezinbestekak aginduz gero, ez da debekatzen ahal, nahiz menturaz soldaduek egingen dituzten beren izigarrikeriak eta basakeriak. Aitzindariei dagokie orduan, horrelako egitateen debekitzea eta ahal bezainbatean eragozteak.

Laugarren proposamena: Erran diren guziengatik, soldaduek ez dute eskubiderik, ez harrapakatzeko ez su emateko, beren Printzearen edo aitzindariaren baimenik gabe, zeren berak ez baitira erabakitzeke, betetzeko baizik. Eta bestela egin baldin badute, hartu dutena itzuli behar dute. Baina gauza eta ontasun higiezinentzat zailago da erabakitzea.

Ontasun higiezinak

Bostgarren proposamena: Ez da dudarik, zilegi dela etsaien gotorlekuen eta hirien hartzea eta atxikitzea, damuen ordaintzeko behar den bezainbatean. Hala nola, etsaiek suntsitu baldin badigute gotorleku bat, erre hiri bat, oihan, mahasti edo olibadoi zenbait, zilegi zaigu ordainez, haien lur bat, gotorleku bat edo hiri bat hartzea eta atxikitzea. Alabaina zilegi baldin bada etsaiari ordaina edekitzea lapurtu dizkigun ontasunentzat, ez da segur ez naturazko ez Jainkozko zuzenbiderik agintzen digunik, ontasun higiezinetarik baino lehen hartzea ordain horren, ontasun higigarrietarik.

Seigarren proposamena: Segurantzak finkatzeagatik eta etsaien arriskua osoki baztertzeko xedetan, zilegi da ere haien hiri bat edo gotorleku bat hartzea eta atxikitzea, hura behar baldin badugu gure buruen zaintzeko edo etsaiari kentzeko kaltegitoko parada eta ahalmena.

Zazpigarren proposamena: Egin duen irainarengatik eta zigor kondu, hau da mendeku gisan, zilegi da oraino, egina izan den kaltearen arabera, etsaiaren lur zati batez jabetzea. Eta arrazoi beragatik haizu da berdin gotorleku batez edo hirihetsi batez jabetzea.

Baina, erran dugun bezala, izarian egon behar da, eta ez dira hartu behar armen botereak eta indarrak zure esku eta menpe ezar ditzaketen guziak. Ezinbestez eta gerlaren kausaz hartu behar izan bada etsaiaren lurralde gehiena eta kendu behar izan bazaizkio zenbait hiri, gerla ondoan eta ordena berrantolatuz gero, jabeari itzuli behar zaizkio.

Ez da atxiki behar, laidoaren mendekatzeko, gerlako gastuen eta damuen ordaintzeko, zuzentasunak eskatzen duena baizik; zuzenki eta gizonki jokatzuz; zeren kaltearen arabera, izan behar baitu zigorrak. Eta beraz Frantsesek Espainolen abereak ebats balitzate, edo erre balezate haien herrixka soil bat, ez litzateke nehondik ere zilegi Frantziako Erresuma osoaz jabetzea.

Deuteronomoa-k argi erakusten du zilegi dela, zigor gisa, etsaiari kentzea bere luraren zati bat edo bere hirietarik bat, erraten duelarik (Dt 20, 12-13) bakea onartzen ez duen hiri batez jabetzea haizu dela gerla denboran.

Bestalde, erresumaren barneko gaiztaginak horrela zigortzea zilegi da, adibidez etxe bat edo lur bat edo jauregi bat haiei kenduz, egin duten gaizkiaren arabera. Arrotzentzat beraz berdin.

Epaikari nagusi batek, gainera, gaizki egile baten zigortzeko eskubide du, hiri bat edo jauregi bat hari kenduz. Baina ondorioz, kaltetua izan den Printze batek eskubide bera du, epaikaritzat daukagun ber, gerla zuzenbidez.

Azkenean, bide beretik eta aitzakia berez, handitu eta hedatu zen Erromako Inperioa, hots kalte egiten zioten etsaien hiriez eta lurraldez jabetuz gerla zuzenbidearen izenean. Eta bizkitartean San Agustinek, San Jeronimok, San Ambrosiok, San Tomasek eta beste doktore sailduak inperio zuzen eta legezkotzat hartzen zuten.

Gehiago oraino, badirudi Jesus Jaunak berak onartzen zuela Inperio hori, erran zuelarik: "Eman bada Zesarrena Zesarri!" (Mt 22, 21).

Bai eta Jondoni Paulok ere. berak Zesarri dei egin baitzion eta galdegin baitzuen bestalde giristinoak egon zitezen goiko agintarien eta printzeen menpe eta zergak haiei ordaint zitzaten (Er 13, 1, 6-7). Orduko agintari horiek oro Erromako Inperioaren gizonak ziren bada.

ZORTZIGARREN GALDEA: Zilegi ote da garaitu diren etsaiei zergarik ezartzea?

Bai zilegi da, dudarik batere gabe, gaztigatuak eta zigortuak izan daitezen, eta ez bakarrik egin kalteak ordain ditzaten.

Aski argi ageri da erran dugunetik, eta Deuteronomo-tik, hor ere errana baita: "Israeldarrak arrazoi zuzenez hurbildu direlarik hiri batetarik, hartaz jabetzeko, eta hiri horrek ongi etorri egin dielarik eta ateak ireki dizkielarik, hango populu guzia bizirik utziko da, eta zerga ordainduko du" (Dt 20, 11). Eta gerlako legeak eta ohiturek zaindu dute arau bera.

BEDERATZIGARREN GALDEA: Zilegi ote da etsaien Printzeak kentzea eta ordainak ezartzea edo haien boterea eskutan hartzea?

Lehen proposamena: Ez ez da zilegi, itsura eta nolanahika, gerla zuzenaren aitzakiaz, gerla egitea.

Erran dugunetik ageri da hori; ezen zigorrak ez du irainaren neurririk ez naturarik gainditu behar.

Gehiago dena, zigorrak arindu behar litezke, eta faboreak emendatu: ez du hori giza zuzenbideak soilik agintzen, baina bai naturazkoak, eta Jainkozkoak ere. Eta beraz, etsaiak egin makurra nahikoa balitz ere gerlaren zuzenesteko, ez liteke menturaz aski, etsaiaren gobernu aldatzeko eta herritar Printze legezkoen kentzeko. Hori zinez latza eta gogorra liteke, izigarri.

Bigarren proposamena: Ez da halere ukatzen ahal, arrazoi zuzenak eta nahikoak gerta daitezkeela batzuetan, bai Printzeen aldatzeko bai botereaz jabetzeko. Eta hori izanen da, edo makur eta kalte izigarri anitz egin dutelako edo bereziki bestela, bakerik eta segurantzarik utz ez lezaketelako etsaiek, eta orduan, arrisku handitan litekeelako Erresuma.

Errana dugu alabaina, horrelako arrazoi batzuegatik zilegi dela hiri batez jabetzea. Ondorioz, hiri horretako Printzearen kentzea zilegi da ere. Eta berdin Probintzia batentzat, eta horko Printzearentzat, aski arrazoi handiak izanez gero.

Oharra

Bizkitartean, seigarren, zazpigarren, zortzigarren, bederatzigarren galdeen kasuan ikusi behar da batzuetan, eta berdin frankotan, Printzeek berek eta ez bakarrik haien menpekoek, fede onez dihardutela, gerlaren egiteko kausa zuzenik gabe eta beraz hobetik batere ez dutela.

Hala nola, gerla egiten delarik, gauzak artoski aztertu ondoan, gizon zuzen eta zuhurren aholkua harturik. Kasu horretan bada ez da nehor behar zigortu, hobendun ez baldin bada. Zilegi zaio garaileari, jakina, galdu dituen ontasunen berreskuratzea eta menturaz gerlako zorren ordaina hartzea. Baina garaipenetik landa ez baita zilegi nehoren hiltzea, ez da ere haizu ordainketa zuzenaren gainerako ontasunik hartzea edo edekitzea. Gainerako guzia alabaina zigorra izanen da; baina hobenik ez dutenentzat ez da behar zigorrik.

ERAKARPENA

Erran diren guzietarik atera ditzakegu gerlarako, zenbait arau edo lege.

Lehen araua: Printze batek baduelarik gerla egiteko boterea, eginbide du lehenik, ez bilatzea gerlaren egiteko paradarik edo aitzakiarik, baina, Jondoni Paulok dioen bezala (Er 12, 18), bakean bizitzea, ahalaz gizon guziekin.

Gogoan eduki behar du, gizon guziak gure hurkoak direla, gure burua bezala maitatu behar ditugunak, eta guziek Jainko Jaun bera dugula, guziak bere auzitegira kontu ematera deituko gaituena.

Azken izigarrikeria da alabaina, Jainkoak berak kreatu eta Kristok bere herioaz erosi dituen gizonen hiltzeko eta suntsitzeko arrazoinen bilatzea, eta aurkitzean, bozkariatzea.

Baina ezinbestez eta ahalegin guziengatik da behar erori gerlaren egitera.

Bigarren araua: Arrazoi zuzenengatik egiten delarik, gerla eginen da. Ez gudukatzen diren etsaiak hondatu beharrez, bakoitzak bere eskubidea, bere herriaren eta erresumaren defentsa, zaintzekotan baizik,

eta noizbait bakea eta segurantzak ekar ditzan gerlak berak.

Hirugarren araua: Garaipenaren ondotik, gerla bururatu denean, behar da jakin garaiteaz baliatzen izarian eta giristinoaren zuhertasunarekin.

Garaileak ikusten du bere burua bi erresumen arteko epaikari bezala: bata kaltea jasan duena eta bestea kalte egin duena. Epaikari bezala, eta ez erasotzale bezala, hartuko du erabaki bat, jasan dituen Erresumari kalteak ordainduko dizkiona. Baina nehondik ahalaz, gutieneko kaltea eta makurra eginez hobendun den Erresumari, eta oroitz bereziki Giristinoen kasuan, Printzeak direla orobat hobendun soilak, eta beren Printzeen alde, federik hoberenean, gudukatu ohi direla haien menpekoak.

Ezen ez da zuzen, poetak dioten bezala; "Beren Erregeen erokeria guziengatik, paira dezaten Akaiarrek" (Horatius, l. II, Ep. 2, v. 14).